- Proiektuak ezartzen eta garatzen laguntzen da mikroenpresetan, zerga-kostuak murriztuz, zergen ordainketa sinplifikatuz eta mozkinen berrinbertsioa sustatuz, haien ahalmena eta hedadura hobetzeko.

- Patenteen eta ikerketa eta garapen arloko jarduketetatik datozen beste emaitza batzuen zerga-tratamendua indartzen da. Horrela, lehiakortasuna hobetu nahi da osagai teknologikoa edo funtzionala duten produktu eta zerbitzuekin, gaur egungo egoera globalizatuaren barruan.

- Zenbait gasturen kengarritasuna mugatu da, iruzur fiskalaren kontrako borroka indartzeko eta enpresen azpikapitalizazioa saihesteko. Hain zuzen ere, hauek mugatzen dira:
  - Hornitzaileak edo bezeroak ordezkatzeko edo artatzeko gastuak.
  - Enpresaren jarduerarekin lotutako ibilgailuak erosi eta erabiltzeagatiko gastuak.

- Zergaren sinplifikazioa bilatzen da, araubide bereziak berrikusiz, haien zati bat araubide orokorrean sartuz eta dagoeneko gaur egungo beharrei erantzuten ez dietenak kenduz.

- Kenkariak berrikusi dira, eraginkortasun handia dutenak eta jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzen laguntzen dutenak mantenduz eta eragin eskasa dutenak kenduz.

Gainera, 2/2015 eta 5/2015 Foru Dekretu Arauemaileen bidez, foru-legeria egokitu da, Ekonomia Itunarekin bat, Estatuaren araudira arlo hauetan: talde fiskalaren kontzeptua, sozietate nagusia, mendeko sozietateak, nagusitasun-maila eta taldearen eragiketak. Araudi hori Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeren bidez aldatua zen, eta derrigorrean sartzekoa zen Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudian.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga:

capitalización empresarial,

- la reserva especial para nivelación de beneficios y
- la reserva para el fomento del emprendimiento y reforzamiento de la actividad productiva.

- Se facilita la implantación y el desarrollo de proyectos en las microempresas con la reducción de sus costes fiscales, la simplificación de su tributación y con el fomento de la reinversión de sus beneficios para la mejora de su capacidad y dimensión.

- Se potencia el tratamiento tributario de la explotación de patentes y otros resultados de las actuaciones de investigación y desarrollo. Se pretende así mejorar la competitividad con productos y servicios con un componente tecnológico o funcional diferencial dentro del escenario globalizado actual.

- Se limita la deducibilidad de determinados gastos para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y evitar la subcapitalización de las empresas. En particular se limitan:
  - los gastos de representación o atención a proveedores o clientes,
  - los gastos por adquisición y utilización de vehículos afectos a la actividad de la empresa.

- Se busca la simplificación del impuesto mediante la revisión de los regímenes especiales, incorporando parte de ellos al régimen general y eliminando aquellos que ya no responden a las necesidades actuales.

- Se han revisado las deducciones, manteniendo las que poseen gran eficacia incentivadora y que contribuyen a la reactivación de la actividad económica y del empleo y eliminando las de escasa influencia.

Además, a través de los Decretos Forales Normativos 2/2015 y 5/2015 se ha procedido a la adpatación de la legislación foral ,de conformidad con el Concierto Económico,a la normativa del Estado en materia de concepto de grupo fiscal, sociedad dominante, sociedades dependientes, grado de dominio y operaciones del grupo que había sido modificada por Ley 27/2014 de 27 de noviembre, del Impuesto sobre Sociedades y de obligada incorporación a la normativa fiscal del THB.

4. Impuesto sobre el Valor Añadido:

Azpimarratzekoa da 2016ko ekitaldian ez zirela aldatu zerga-tasa orokor eta zerga-tasa murriztua, eta, hala, % 21ean eta % 10ean jarraitzen dutela, hurrenez hurren. Zerga-tasa guztiz murriztuak ere aldatu gabe jarraitu du, % 4an.

Foru Dekretu Arauemaile bat bakarrik egon da 2016an, eta bere helburua Bizkaiko Lurralde Historikoaren legedira egokitzea bakarrik da, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, BEZaren kasuan, Lurralde Historiko horretan Estatuko arau berak ezarri behar direlako.

1. Horrela, otsailaren 2ko 1/2016 FDAren bidez, Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legean ezarritako neurriak hartu dira, BEZari dagokionez. Neurri horiek ez dute eragin handirik.

Aipatzekoak dira, batetik, 13. Xedapen Iragankorrean jasotako aldaketa, zeinak 150.000 eurotik 250.000 eurora igo baititu 2016an eta 2017an araubide erraztua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak, eta, bestetik, Xedapen Iragankor bakarraren aldaketa, zeinak ezartzen baitu sozietate zibilak irteten direla BEZaren baliokidetasun-errekarguaren araubide berezitik eta PFEZan errentak eratxikitzeko araubidean tributatzeari utzi eta hasi behar direla Sozietateen gaineko Zergaren objektu pasiboak izaten 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hay que destacar que en el ejercicio 2016 los tipos impositivos general y reducido no se modifican y se mantienen en el 21% y 10% respectivamente. Igualmente permanece estable en el 4% el tipo superreducido.

En 2016 tan sólo ha habido un Decreto Foral Normativo cuyo objeto es exclusivamente la adaptación a la legislación del Territorio Histórico de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el Concierto Económico ya que en el caso del IVA deben regir en dicho Territorio Histórico las mismas normas sustantivas y formales que en el Estado.

1. Así, mediante el DFN 1/2016 de 2 de febrero se adoptan las medidas establecidas en la Ley 48/2015 de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado para 2016 referidas a IVA y que son de escasa relevancia.

Destacar la modificación recogida en la Disposición transitoria decimotercera relativa a los límites para la aplicación del régimen dsimplificado y del régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca en los ejercicios 2016 y 2017 que se elva de 150.000 euros a 250.000 euros y la modificación de la Disposición Transitoria única que establece el cese en el régimen especial del recargo de equivalencia del IVA para las sociedades civiles que pasan de tributar en el IRPF, dentro del régimen de atribución de rentas, a ser sujeros pasivos del Impuesto sobre Sociedades a partir del 1 de enero de 2016

aitorpen -autolikidazioak
declaraciones- autoliquidaciones

Capítulo I

I Aitorpen-autolikidazioak 2016
Declaraciones-autoliquidaciones 2016

I.0 Sarrera
Introducción

2016an, laukietan ageri diren zerga kontzeptuengatik ordaintzeko aurkeztu diren 974.996 autolikidazioen diru-bilketa 8.399 milioi eurora iritsi zen. 2015eko kopuruen aldean, gorakada egon da aurkeztutako agiri kopuruan eta baita ere zergapetuek ereduen bitartez egindako ordainketen zenbatekoan ere. Horrek, kopuru absolutuetan, 207 milioi gehiago biltzea eragin zuen.

En 2016 la recaudación en las 974.996 autoliquidaciones presentadas a ingresar correspondientes a los conceptos tributarios que figuran en los cuadros, alcanzó la cifra de 8.399 millones de euros que, con respecto a 2015 implica tanto un aumento en el número de documentos presentados como en el importe de los ingresos efectuados por los contribuyentes a través de los diversos modelos, que en términos absolutos, supuso un incremento notable de 207 millones más.

Sartzeko autolikidazio kopuruak aldaketa positiboa izan du kasu guztietan aurreko urtearen aldean, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan eta Zerga Berezietan gertatutako jaitsierak izan ezik; Ondare Irabazien gaineko Atxikipenetan jaitsiera arinak gertatu dira.

El número de autoliquidaciones a ingresar presenta, en todos los casos, una variación positiva respecto al año anterior, con la excepción de las disminuciones producidas en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, Impuesto sobre el Patrimonio, en los Impuestos Especiales y, mínimamente en las Retenciones sobre Ganancias Patrimoniales.

Sartzeko agirien aurkezpenak handitu egin dira zenbait zergetan, hala nola ekoizpen elektrikoaren gaineko zergan, elektrizitatea ekoizten duten konpainiek ordaindutakoa; hain zuzen % 215,54 handitu da, eta 251 agirietatik 792ra pasa da (hala ere, sartutako zenbatekoa % 34,4 jaitsi da), eta PFEZen kuota diferentzialari dagokionez, ia 14.000 aitorpen gehiago egin dira sartzeko.

Los incrementos en las presentaciones de documentos a ingresar son importantes en figuras como el Impuesto sobre la producción eléctrica, satisfecho por las compañías productoras de electricidad, un 215,54% pasando de 251 documentos a 792 (aunque no el importe ingresado que ha disminuido un 34,43%).y la Cuota Diferencial de IRPF con un aumento de casi 14.000 declaraciones más a ingresar.

Aldaketa positiboa aurreko urtearekiko zergengatik sartutako zenbatekoetan gertatu da. Horren arrazoia, gehienbat, EEEZren, PFEZen kuota diferentzialaren eta Jolas Jardueren sarrerak izan dira.

La variación positiva que se produce en los importes ingresados por tributos respecto al año anterior, se debe en su mayor parte, en términos relativos, a los ingresos por IRNR, por Cuota Diferencial de IRPF y Actividades de juego entre otros.

Termino absolutuetan, BEZean eta zerga berezietan egindako bilketen igoerak nabarmentzekoak dira: 73 eta 92 milioi hurrenez hurren. Neurri txikiagoan, PFEZen kuota diferentzialaren eta laneko atxikipenen igoera: 52 eta 46 milioi hurrenez hurren.

En términos absolutos, son destacables los incrementos producidos en la recaudación de conceptos como IVA (73 millones) e Impuestos especiales (92 millones). En menor medida, el incremento en Cuota diferencial de IRPF (52), y en Retenciones de trabajo (46 millones).

Erantsitako laukietan antzeman daitekeenez, igoerarik handienak hiru zergetan gertatu dira: lan pertsonalaren gaineko atxikipenak, BEZa eta Fabrikazioko Zerga Bereziak, izan ere, ia % 82koak izan dira guztira.

Como se puede apreciar en los cuadros adjuntos los mayores ingresos provienen de tres figuras tributarias cuales son las Retenciones sobre el Trabajo Personal, IVA e Impuestos Especiales de Fabricación ya que en su conjunto responden del casi el 82por ciento del total.

Horren aldean, aurkeztutako agiri kopuruari erreparatzen badiogu, zergadunei gehiago eragiten diena, BEZean, laneko atxikipenetan eta PFEZen eragina dutenen aurkezpena nabarmentzen da.

Por el contrario si nos fijamos en el número de documentos presentados y que por tanto afecta a más contribuyentes, destacar la presentación de aquellos que afectan a IVA, Retenciones de Trabajo, e IRPF.

Laburbilduz, 2016. urtean egondako agiri kopuruaren igoera osoak % 2,36koak izan dira aurreko urtearen aldean; % 2,53koa sartutako zenbatekoan.

En resumen, los incrementos totales registrados en el año 2106 respecto a las presentaciones en el año anterior son del 2,36% en el número de documentos y del 2,53% en el importe ingresado.

1.taula/ Cuadro nº 1
Ordaindutako aitorpen autolikidazioak. Kopurua
Declaraciones-autoliquidaciones ingresadas. Número

Kontzeptua / Concepto	2014	2015	2016	% Aldakuntza Variación 2016/2015
Lanaren atxikipenak Retenciones de Trabajo	173.506	176.299	181.247	2,81%
Kapital higigarrien atxikipenak Retenciones de Capital Mobiliario	10.380	10.418	10.586	1,61%
Ondare irabazien atxikipenak Retenciones sobre Gananancias Patrimoniales	1.007	990	987	-0,30%
Kapital higiezinen atxikipenak Retenciones de Capital Inmobiliario	86.650	89.062	91.088	2,27%
PFEZren konturako zatikako ordainketak Pagos Fraccionados a cuenta del IRPF	124.583	126.257	127.075	0,65%
PFEZren Kuota diferentziala Cuota Diferencial de I.R.P.F	128.856	148.834	162.668	9,29%
EEEZ. Establezimendu finkorik ez duten subjektuak IRNR Sujetos pasivos sin Establecimiento Permanente	1.701	1.851	2.142	15,72%
Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga Producción de Energía eléctrica (583)	243	251	792	215,54%
Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	9.384	10.230	10.872	6,28%
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	9.612	10.973	10.310	-6,04%
Ondarearen gaineko zerga Impuesto sobre el Patrimonio	6.717	7.824	7.102	-9,23%
Balio Erantsiaren gaineko Zerga Impuesto sobre el Valor Añadido	242.149	249.323	253.300	1,60%
Ondare eskualdaketen eta E.J.Agiridunen gaineko zerga Impuesto sobre Trans. Patrimoniales y AJD	60.081	59.398	55.949	-5,81%
Jokoaren gaineko Tasa Fiskala Tasa Fiscal sobre el Juego	52.495	50.351	50.491	0,28%
Aseguru priimen gaineko zerga Impuesto Sobre Primas de Seguro	1.556	1.566	1.865	19,09%
Zerga Bereziak Impuestos Especiales	7.915	8.523	8.108	-4,87%
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga Impuesto sobre gases fluorados efecto invernadero (587)	124	233	235	0,86%
Sarien gineko karga berezia (230) Gravamen especial sobre Premios (230)	6	9	9	0,00%
Joko jarduerak (43J) Actividades de juego (43J)	13	88	132	50,00%
Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga (410) Impuesto sobre Depósitos Entidades de crédito (410)	31	36	38	5,56%
Guztira / Totales	917.009	952.516	974.996	2,36%

Azkenik, aipatu behar da 2014. urtetik aurrera sortutako eta hitzartutako zergak eta kargak finkatu direla:

Por último mencionar la consolidación de los impuestos y gravámenes creados y concertados a partir del ejercicio 2014:

- Sarien gaineko zerga berezia. 9 230 eredu aurkeztu dira, 4,05 milioi euroan.
- Jolas-ekintzak. 132 43J eredu aurkeztu dira, 1,92 milioi euroan.
- Berotegi-efektua eragiten duten fluordun gasen gaineko zerga. 235 587 eredu aurkeztu dira, 1,04 euroan.
- Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga. 38 410 eredu aurkeztu dira, 6,84 milioi euroan.

- Gravamen especial sobre premios, con la presentación de 9 modelos 230 por importe de 4,05 millones.
- Actividades de juego con la presentación de 132 modelos 43J por importe de 1,92 millones.
- Impuesto sobre gases fluorados efecto invernadero con la presentación de 235 modelos 587 por importe de 1,04 millones de euros.
- Impuesto sobre depósitos entidades de crédito con la presentación de 38 modelos 410 por importe de 6,84 millones.

2. taula / Cuadro nº 2
Ordaindutako aitorpen-autolikidazioak. Zenbatekoa
Declaraciones-autoliquidaciones ingresadas. Importe

Concepto	2014	2015	2016	% Aldakuntza Variación 2016/2015
Lanaren atxikipenak Retenciones de Trabajo	2.300	2.352	2.398	1,97%
Kapital higigarrien atxikipenak Retenciones de Capital Mobiliario	209	185	175	-5,43%
Ondare irabazien atxikipenak Retenciones sobre Gananancias Patrimoniales	25	34	24	-29,22%
Kapital higiezinen atxikipenak Retenciones de Capital Inmobiliario	98	93	89	-3,91%
PFEZren konturako zatikako ordainketak Pagos Fraccionados a cuenta del IRPF	63	68	68	-0,11%
PFEZren Kuota diferentziala Cuota Diferencial de I.R.P.F	201	251	303	20,57%
EEEZ. Establezimendu finkorik ez duten subjektuak IRNR Sujetos pasivos sin Establecimiento Permanente	30	20	33	68,36%
Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga Producción de Energía eléctrica (583)	23	28	18	-34,43%
Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	636	611	593	-3,08%
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	36	44	44	-0,94%
Ondarearen gaineko zerga Impuesto sobre el Patrimonio	68	65	72	11,74%
Balio Erantsiaren gaineko Zerga Impuesto sobre el Valor Añadido	3.251	3.086	3.159	2,35%
Ondare eskualdaketen eta E.J.Agiridunen gaineko zerga Impuesto sobre Trans. Patrimoniales y AJD	61	68	57	-15,45%
Jokoaren gaineko Tasa Fiskala Tasa Fiscal sobre el Juego	31	26	27	5,00%
Aseguru priimen gaineko zerga Impuesto Sobre Primas de Seguro	38	39	41	2,88%
Zerga Bereziak Impuestos Especiales	1.157	1.190	1.282	7,69%
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga Impuesto sobre gases fluorados efecto invernadero	0,34	2	1	-37,26%
Sarien gineko karga berezia (230) Gravamen especial sobre Premios (230)	13	19	4	-78,85%
Joko jarduerak (43J) Actividades de juego (43J)	3	2	2	16,95%
Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga (410) Impuesto sobre Depósitos Entidades de crédito (410)	6	7	7	0,43%
Guztira / Totales	8.250	8.192	8.399	2,53%

Milioika eurotan/ Millones de euros

3. taula/ cuadro nº 3
Ordaindutako aitorpen-autolikidazioak 2016. (Bide telematikoa)
Declaraciones-autoliquidaciones ingresadas 2016. (Vía telemática)

Eredua Modelo	Kontzeptua / Concepto	Kopurua / Número			Zenbatekoa / Importe		
		Aurkestutakoak guztira Total presentadas	Bide telamatikoa Vía telemática	% Internet Guztira Total	Aurkestutakoak guztira Total presentadas	Bide telamatikoa Vía telemática	% Internet Guztira Total
110 - 111	Lanaren atxikipenak Retenciones de Trabajo	181.247	173.475	95,71	2.398.084.287	2.308.403.598	96,26
123 - 124 - 126 - 128	Kapital higigarrien atxikipenak Retenciones de Capital Mobiliario	10.586	10.046	94,90	175.097.012	172.470.418	98,50
117	Ondare irabazien atxikipenak Retenciones sobre Gananancias Patrimoniales	987	661	66,97	24.289.201	19.340.865	79,63
115	Kapital higiezinen atxikipenak Retenciones de Capital Inmobiliario	91.088	84.021	92,24	89.403.596	86.603.244	96,87
130	PFEZren konturako zatikako ordainketak Pagos Fraccionados a cuenta del IRPF	127.075	102.396	80,58	68.154.175	56.576.374	83,01
100	PFEZren Kuota diferentziala Cuota Diferencial de I.R.P.F	162.668	144.440	88,79	303.168.175	256.573.665	84,63
210 - 211 - 212 -215 - 216	EEEZ. Establezim. finkorik ez duten subjektuak IRNR Sujetos pasivos sin Establec. Permanente	2.142	1.133	52,89	33.423.151	26.418.558	79,04
583	Sortutako energia elektrikoaren balioaren gaineko zerga Producción de Energía eléctrica	792	792	100,00	18.346.663	18.346.663	100,00
200 - 218 - 220 - 222	Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	10.872	10.866	99,94	592.580.469	592.442.742	99,98
650-651-652-653	Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones	10.310	-		44.017.617	-	-
714	Ondarearen gaineko zerga Impuesto sobre el Patrimonio	7.102	6.958	97,97	72.387.276	70.219.905	97,01
303 - 309 - 310 - 353 -368- 390 - 391	Balio Erantsiaren gaineko Zerga Impuesto sobre el Valor Añadido	253.300	200.568	79,18	3.158.881.445	3.096.772.095	98,03
600 - 610 - 615 - 620 - 621 - 30A	Ondare eskuald. eta E.J.Agiridunen gain. zerga Impuesto sobre Trans. Patrimoniales y AJD	55.949	23.708	42,37	57.252.487	22.371.799	39,08
048 - 43B - 43Z - 43M - 43G - 42C	Jokoaren gaineko Tasa Fiskala Tasa Fiscal sobre el Juego	50.491	49.967	98,96	27.416.528	26.353.156	96,12
430	Aseguru priimen gaineko zerga Impuesto Sobre Primas de Seguro	1.865	1.793	96,14	40.591.491	40.008.310	98,56
560 - 561 - 562 - 563 - 565 - 566 - 576 - 581 - 582	Zerga Bereziak Impuestos Especiales	8.108	8.062	99,43	1.282.061.594	1.281.938.114	99,99
587	Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga Impuesto sobre gases fluorados efecto invernadero	235	235	100,00	1.035.675	1.035.675	100,00
230. eredua/Modelo 230	Sarien gineko karga berezia Gravamen especial sobre Premios	9	9	100,00	4.053.977	4.053.977	100,00
43 J. Eredua/Modelo 43 J	Joko jarduerak Actividades de juego	132	130	98,48	1.918.069	1.907.618	99,46
410. eredua/Modelo 410	Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga Impuesto sobre Depósitos Entidades de crédito	38	38	100,00	6.836.893	6.836.893	100,00
Guztira / Totales		974.996	819.298	84,03	8.398.999.782	8.088.673.669	96,31
							Eurotan/ En euros

Bizkaian, uztailaren 13ko 1.800/2005 Foru Aginduak, zenbait eredu (laneko atxikipenei, kapitalari, ondare-irabaziei, alokatutako higiezinei buruzkoak, sozietateen gaineko zerga, BEZa) nahitaez bide telematikoren bidez aurkeztu behar zirela ezarri zuen, bere ekonomia-jardueraren barruan, gutxienez hamar langileri besteren kontura enplegua ematen zieten subjektu pasiboen kasuan.

Geroago, 342/2008 Foru Aginduak, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo guztiek nahitaez telematikoki aurkeztu behar zutela ezarri zuen, edozein dela bere jardueran erabiltzen duten besteren konturako langile kopurua.

En Bizkaia, la Orden Foral 1.800/2005 de 13 de julio, estableció, con carácter obligatorio, la presentación por vía telemática de determinados modelos (los relativos a Retenciones de trabajo, de capital, de ganancias de patrimonio, de inmuebles arrendados, Impuesto sobre Sociedades, IVA) para aquellos sujetos pasivos que, en el ámbito de su actividad económica, dieran empleo a un mínimo de diez trabajadores por cuenta ajena.

Con posterioridad, la Orden Foral 342/2008 amplió la obligatoriedad de la presentación telemática para todos los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, con independencia del número de trabajadores por cuenta ajena que empleen en su actividad.

Halaber, 2014ko ekitalditik, ondarearen gaineko zergaren aitorpenak nahitaez telematikoki aurkeztu behar dira.

Zentzu horretan, 2016ko ekitaldian Internet bidez aurkeztutako agiri telematikoak ingresatzeko aurkeztutako agiri guztien % 84,03 izan dira, hots, 819.298 autolikidazio. Aztertutako ia zerga-kontzeptu guztiei dagozkie (Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga izan ezik), 8.089 milioi eurogatik. Ingresatutako kopuru osoaren % 96,31 da.

Datu hauek erakusten dute, logikoa denez, zergadun handiek erabili behar dutela sartzeko bide hori beraien zerga-aitorpenetan. Bere zenbatekoarengatik hauek nabarmentzen dira: zenbait kontzepturengatiko atxikipenenak, BEZ, zerga bereziak eta sozietateen gaineko zerga.

Aurreko ekitaldietan bezala, zerga-ereduaren arabera autolikidazio gisa agertzen diren sarreren zenbatekoak ez du benetako zerga-bilketan adierazitakoekin bat etorri behar, hau da, zorpetutako sarrerekin. Hori zenbait arrazoirengatik da; hauek dira nabarmenenak:

- Kontabilizazio-daten eta ekitaldi bakoitzaren abenduan eta urtarrilean bereziki zerga-ereduen arabera egindako daten artean dagoen desoreka.
- Ematen diren laukietan eta datuetan 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte lortutako kontabilitate-sarrerak jasotzen dira.
- Autolikidazioengatiko sarrera gisa jasotzen diren eta sartu arte benetako bilketa-datuetan agertzen ez diren ordainketa geroratzeak.
- Bilketan jasotzen diren baina autolikidazioengatiko sarreretan agertzen ez diren sartutako behin-behineko eta behin betiko likidazioak.

Bilakaerak ageri dituen ezberdintasunak ikusita, bai kontzeptu bakoitzaren kopuruaren aldetik, bai haietako bakoitzaren zenbatekoaren aldetik eta baita autolikidazio eredu ezberdinetako kontzeptu bakoitzaren barruan ere, jarraian xehetasun gehiagoko azterketa egingo da. Bertan, ahal den heinean, aldakuntza horien arrazoiak aztertuko dira.

Igualmente rige la obligación de presentación telemática desde para las declaraciones del Impuesto sobre Patrimonio desde el ejercicio 2014.

En este sentido, en el ejercicio 2016, las presentaciones telemáticas, vía Internet, han alcanzado el 84,03% del total de los documentos presentados a ingresar, 819.298 autoliquidaciones, correspondientes a casi todos los conceptos tributarios analizados (con la excepción del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones), y por importe de 8.089 millones de euros, hasta alcanzar el 96,31% del total ingresado.

Estos datos ponen de manifiesto, como es lógico, que son los grandes contribuyentes los que deben utilizar esta vía de ingreso para sus declaraciones tributarias destacando por su importe las relativas a las Retenciones por diversos conceptos, el IVA, los Impuestos Especiales y el Impuesto sobre Sociedades.

Como en ejercicios anteriores, hay que hacer constar que el importe de los ingresos que figuran por autoliquidaciones según modelo tributario no tiene que coincidir con los consignados en la Recaudación real, es decir, con los ingresos contraídos, y ello por diversas razones, destacando:

- El desfase existente entre las fechas de contabilización contable y la realizada por modelos tributarios que se manifiesta en particular en los meses de diciembre y de enero de cada ejercicio.
- Los cuadros y datos que se aportan recogen los ingresos contables obtenidos desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2016.
- Los aplazamientos de pago que constan como ingresos por autoliquidaciones y no figuran en los datos de recaudación real hasta su ingreso.
- Las liquidaciones provisionales y definitivas ingresadas que figuran en la recaudación pero no en los ingresos por autoliquidaciones.

Dada la disparidad que presenta la evolución, tanto en número como en importe de cada concepto e incluso dentro de cada concepto de los distintos modelos de autoliquidaciones, se realiza a continuación un examen más pormenorizado analizando, en la medida de lo posible, las causas de tales variaciones.

I.1 Atxikipenak eta Zatikako ordainketak
Retenciones y Pagos fraccionados

Lanaren eta lanbide jardueren atxikipenen zioz ordaindutako autolikidazioa guztira
Autoliquidaciones ingresadas por Retenciones de trabajo y actividades profesionales

Eredua/ Modelo	2015		2016		% Aldakuntza Variación	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
110. eredua Modelo 110	140.928	989.603.734	144.818	1.013.975.600	2,76	2,46
111. eredua Modelo 111	35.371	1.362.122.528	36.429	1.384.108.687	2,99	1,61
Guztira/ Total	176.299	2.351.726.262	181.247	2.398.084.287	2,81	1,97

Eurotan / En euros

Lanaren eta lanbide jardueren atxikipenengatik 2016ko ekitaldian aurkeztutako ereduek 2.398 milioi euroko diru-sarrera ekarri zuten. Aurreko urteko kopuruaren aldean % 1,97ko hazkundea izan da, hain zuzen ere 46,36 milioi eurokoa.

Los modelos por Retenciones de trabajo y actividades profesionales en el ejercicio 2016 registraron unos ingresos de 2.398 millones de euros, que con respecto al ejercicio anterior supone un aumento del 1,97%, es decir, 46,36 millones de euros más.

Bestalde, ordaindutako autolikidazio kopurua % 2,81 handitu zen, hau da, 2015ean baino 4.948 agiri gehiago egon zen.

Por su parte, el número de autoliquidaciones ingresadas aumentó el 2,81%, es decir, 4.948 más que en 2015.

Laneko atxikipenengatiko sarrerek gora egin dute 2016. urtean 2015aren aldean, beraz, suspertze ekonomiko arina antzematen da, enplegua ere igo delako. Are gehiago kontuan hartzen badugu atxikipenen taula bera erabili dela, 2014. urtetik ez delako deflatatu.

Este aumento de los ingresos por Retenciones de trabajo en 2016 con respecto a 2015, deja entrever una ligera recuperación económica que se plasma en un leve aumento del empleo. Mas, teniendo en cuenta que se ha aplicado la misma tabla de retenciones ya que no se ha deflactado desde 2014.

2016an aurkeztutako agiri guztiak ikusita, 110 eredukoak dira horien % 80. Bertan, enpresa txiki eta ertainen lanaren atxikipenak jasotzen dira eta, hiru hiletik behin, 36.200 subjektu pasibo inguruk aurkezten du. Aitzitik, eredu honek ekarritako ordainketak % 42tik gertuko portzentajeak bakarrik dira urtetik urtera.

A la vista del total de documentos presentados en el año 2016, al igual que en años anteriores, el 80% de los mismos corresponde al modelo 110, que recoge las retenciones de trabajo relativas a pequeñas y medianas empresas, y que presentan trimestralmente unos 36.200 sujetos pasivos. Sin embargo, los ingresos por este modelo sólo representan año tras año porcentajes cercanos al 42%.

111 ereduaren bitartez eskuratzen da aurkezpenen % 20rekin lanaren atxikipenengatiko ordainketa osoen gainerako % 58, eta hilero enpresa handi diren 3.000 atxikitzaile inguruk aurkezten du.

Es a través del modelo 111, con el 20% de las presentaciones, donde se computa el 58% restante de los ingresos totales por retenciones de trabajo y lo efectúan mensualmente unos 3.000 retenedores que son grandes empresas.

Ia aurkeztutako agirien % 95 eta diru-sarreren % 96 baino gehiago Internet bidezkoak izan dira.

Más del 95% de las presentaciones y del 96% de los ingresos son vía internet.

Bilakaerak % 3,34ko igoera erakusten du lanaren atxikipena jasotzen duten ereduen aurkezpen telematikoen kopuru osoan, eta baita % 0,99ko jaitsiera

La evolución nos indica un aumento del 3,34% en el número total de presentaciones telemáticas de los modelos de retenciones de trabajo y una ligera

ere eredu horietan ordaindutako kopuruetan.

disminución en los importes ingresados en dichos modelos del 0,99%.

Kapital higigarriaren zioz ordaindutako autolikidazioak
Autoliquidaciones ingresadas por Retenciones de capital mobiliario

Eredua/Modelo	2015		2016		% Aldakuntza Variación	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
123. eredua Modelo 123	8.921	127.071.721	9.095	139.399.184	1,95	9,70
124. eredua Modelo 124	97	935.925	86	718.630	-11,34	-23,22
126. eredua Modelo 126	698	45.492.672	680	22.504.403	-2,58	-50,53
128. eredua Modelo 128	702	11.658.124	725	12.474.795	3,28	7,01
Guztira / Total	10.418	185.158.441	10.586	175.097.012	1,61	-5,43

Eurotan/En euros

Konturako ordainketetan, kapital higigarriaren eta sarien etekinen gaineko atxikipen ehunekoa aldatu egin da 2016an 2015. urtearen aldean. 2015eko uztailaren 11 arte tasa % 20koa izan zen, eta egun horretatik 2015eko abenduaren 31ra tasa % 19,5ekoa izan zen. 2016an tasa % 19koa izan da.

En materia de pagos a cuenta, el porcentaje de retención sobre los rendimientos del capital mobiliario y los premios en 2016 varía respecto al 2015. Hasta el 11 de julio de 2015 el tipo fue del 20% y desde esa fecha hasta el 31 de diciembre de 2015 el tipo fue del 19,5%. En 2016 el tipo ha sido del 19%.

Horrela, kapital higigarriaren atxikipenengatik izandako diru-sarrerak 175,10 milioi euro izatera iritsi dira. Horrek % 5,43ko beherakada izan dela erakusten du.

Esto se refleja en los ingresos por retenciones de capital mobiliario que han alcanzado los 175,10 millones de euros. Esto representa una disminución del 5,43%.

Guztira aurkeztutako agiri kopuruak gora egin du % 1,61, 10.586 izan baitira.

El número de documentos totales presentados aumenta un 1,61%, alcanzando la cifra de 10.586.

Kapital higigarriko atxikipenengatiko sarreretan honako hauek eragiten dute: balore-burtsetan gertatzen diren gorabeherek, izan ere, inbertitzaileak errenta finkoan babes ziurra bilatzera behartu ditzakeelako; interes-tasen aldaketek, epe finkoaren errentagarritasuna erakargarriagoa edo ez hain erakargarriagoa eginez, eta dibidendu banaketa handiagoa egiten duten enpresen emaitzek.

Los ingresos por Retenciones de capital mobiliario están condicionados a las oscilaciones registradas en las Bolsas de Valores, ya que pueden empujar a los inversionistas a buscar refugio seguro en la renta fija, a la variación en los tipos de interés, que pueden hacer más o menos atractiva la rentabilidad del plazo fijo**,** y a los resultados empresariales de las empresas que posibilitan un mayor reparto de dividendos.

123 eredua, "Atxikipenak eta konturako sarrerak kapital higigarriaren errenta eta etekinen gainean, bankuko kontuen interesak edota etekin inplizituak salbu", da enpresek beren akziodunei ordaindutako mozkinak erregistratzen dituen eredua. Modu honetara 139,40 milioi euro bildu da. Kapital higigarriaren atxikipen guztien % 79,61 dira eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero % 9,70 jaitsi da.

El modelo 123, “Retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos del capital mobiliario, excepto intereses de cuentas bancarias y/o rendimientos implícitos” es el modelo donde se registran los dividendos satisfechos por las empresas a los accionistas de las mismas, con un importe recaudado de 139,40 millones de euros. Representa el 79,61% del total de las retenciones de capital mobiliario y aumenta con respecto al ejercicio anterior en un 9,70%.

Enpresek beren akziodunei eman beharreko ordainsaria mantentzeko egindako esfortzua mantendu da baina ordainsaria banatzeko zerga-atxikipena ekiditen duten aukerak daude orain.

Se mantiene el esfuerzo realizado por las empresas para mantener la retribución a sus accionistas, pero con opciones de reparto del mismo que eluden la retención fiscal.

Horrela, azken ekitaldietan enpresa kotizatu handiek kapital-gehikuntzaren aukera erabiltzen dute, akzio

Así, en los últimos ejercicios las grandes empresas cotizadas utilizan la opción de ampliación de capital con

liberatuak entregatuz edo dibidendua gauzatzeko harpidetzeko eskubideak salduz.

124 ereduari dagokionez, "Atxikipenak eta konturako sarrerak, araubide orokorrari atxikitako kapital higigarriaren etekin inplizituen gainean", atxikipenak eta konturako sarrerak biltzen dituena besteren kapitala topatu eta erabiltzearen ordezkari diren aktibo motak eskualdatu, amortizatu, itzuli edo trukatzetik etorritako kapital higigarriaren errenta eta etekinen gainean, esan behar da kopuru absolutuetan garrantzi gutxienekoa dela, 718.630 milioi eurorekin. Kapital higigarriaren atxikipenengatik izandako diru-sarreren % 0,41 da eta beraz, aurreko urtearekin alderatuta % 23,22ko beherakada egon dela esan daiteke.

126 ereduan, "Atxikipenak eta kontura egindako ordainketak, finantza erakunde guzietako kontuetan eskuratutako kapital higigarriaren errenta eta etekin esplizituen gainean, aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarrizkoak barne", mota guztietako kontu eta bankuko gordailuen titularrei ordaindutako interesak jasotzen dira. 2016an, % 50,53ko murriztapena erregistratu da (ia 23 milioi euro, aurreko ekitaldiaren aldean). Eredu hau berariazko pisuan bigarrena da, izan ere, diru-bilketa hau 22,50 milioi eurora iristen da eta kapital higigarriaren atxikipen guztien % 12,85 hartzen du.

126 eredu honetan sartutako atxikipenen jaitsiera horrek argi erakusten du ia desagertu dela, eta ez azken urteetan banku-produktu horiek ordaintzeko erabili den erreferentziako interes-tasak behera egin duela.

128 ereduak, "Atxikipenei eta konturako sarrerei dagokien aitorpen-likidazioa, kapitalizazio eragiketetatik eta bizi aseguruen edo elbarritasun aseguruen kontratuetatik etorritako kapital higigarrien errenta eta etekinen gainean", 12,47 milioi euroko zenbatekoa bildu du. Kopuru hori kapital higigarriaren atxikipen guztien % 7,12 baino ez da, eta bere bilketak gora egin du % 7.

2016an autolikidazioen % 94,90 aurkeztu zen telematikoki, hau da, 172,47 milioi euro. Ingresatutako guztizkoaren % 98,50 da.

entrega de acciones liberadas o venta de derechos de suscripción para la materialización del dividendo.

En cuanto al modelo 124 “Retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos implícitos del capital mobiliario sujetos al régimen general” que recoge las retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos del capital mobiliario derivados de la transmisión, amortización, reembolso o canje de cualquier clase de activos representativos de la captación y utilización de capitales ajenos, es el menos importante en su cuantía absoluta con 718.630 euros. Su peso en el total de ingresos por retenciones de capital mobiliario es del 0,41% del total, experimentando una disminución del 23,22% con respecto al año anterior.

En el modelo 126 “Retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos explícitos del capital mobiliario obtenidos de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros” se recogen los intereses satisfechos a los titulares de todo tipo de cuentas y depósitos bancarios. En 2016 registra una notable disminución del 50,53% (casi 23 millones de euros menos respecto al ejercicio anterior). Este modelo es el segundo en peso específico ya que su recaudación que alcanza 22,50 millones de euros, representa el 12,85% del total de las retenciones de capital mobiliario.

Esta disminución de las retenciones ingresadas en este modelo 126 es un claro reflejo, ya no de la bajada del tipo de interés de referencia utilizado para retribuir estos productos bancarios que se ha venido produciendo en los últimos años, sino de su casi desaparición.

El modelo 128 “Declaración-liquidación correspondiente a Retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos del capital mobiliario procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez”, con un importe recaudado de 12,47 millones de euros, representa únicamente el 7,12% del total de las retenciones de capital mobiliario, aumentando su recaudación en un 7%.

El número presentado por vía telemática durante el año 2016 fue del 94,90% de las autoliquidaciones por importe de 172,47 millones de euros que representa el 98,50% del total ingresado.

Ondare-irabazien atxikipenen zioz ordaindutako autolikidazioak
Autoliquidaciones ingresadas por Retenciones sobre ganancias patrimoniales

Eredua Modelo	2015		2016		% Aldakuntza Variación	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
117. eredua Modelo 117	990	34.318.496	987	24.289.201	-0,30	-29,22

Eurotan/En euros

117 ereduak pertsona fisiko edo juridikoaren zerga pertsonalaren konturako atxikipenengatiko sarrerak jasotzen ditu (hau da, PFEZen, SZren edo EEEZren kontura, dagokionaren arabera), inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen eskualdaketan edo itzultzean sortutako ondare-irabazien gainean.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzultzeek eragindako ondare-irabazien gaineko atxikipena % 20 izan zen 2015eko irailaren 1 arte, eta hortik aurretik abenduaren 31ra % 19,5. 2016an % 19 izan da.

2016. urtean, 987 agiri aurkeztu dira 117. ereduan, eta horiengatik ordaindutako zenbatekoa 24,29 milioi eurokoa izan da.

2015eko ekitaldiari dagokionez, diru-sarrerek behera egin dute % 29,22 eta aurkeztutako aitorpen kopuruak gora egin du % 0,30.

2016ko ekitaldian, 661 autolikidazio aurkeztu da bide telematikotik. Horien kopurua 19,34 milioikoa izan da, hau da, autolikidazio guztien % 66,97 eta sarreren % 79,63. Aurreko ekitaldiaren aldean, igoera arina gertatu da aurkezteko modu hori erabili duten autolikidazioen kopuruan (% 10,72). Bestalde, nabarmen txikiagotu da sartutako zenbatekoa (% -24,17), eredu horren bilketa osoaren jaitsierarekin bat.

El modelo 117 recoge los ingresos por Retenciones a cuenta del impuesto personal del transmitente, persona física o jurídica (esto es, a cuenta del IRPF, del IS o del IRNR, según proceda) sobre las ganancias patrimoniales generadas en la transmisión o reembolso de acciones o participaciones representativas del capital o del patrimonio de las instituciones de inversión colectiva.

El porcentaje de retención sobre ganancias patrimoniales derivadas de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva fue del 20% hasta el 1 de septiembre de 2015 y desde esa fecha hasta el 31 de diciembre del 19,5%. En el año 2016 ha sido del 19%.

En el año 2016 el importe ingresado por los 987 modelos 117 presentados ha sido de 24,29 millones de euros.

Con respecto al ejercicio 2015 se produce una disminución de los ingresos del 29,22% y del 0,30% en el número de declaraciones.

En el ejercicio 2016 se han presentado por vía telemática 661 autoliquidaciones por un importe de 19,34 millones lo que supone el 66,97% del total de las autoliquidaciones y el 79,63% de los ingresos. Respecto del ejercicio anterior, se ha producido un ligero aumento en el número de autoliquidaciones que han utilizado esta vía de presentación (10,72%), disminuyendo de forma sustancial el importe ingresado (-24,17%) en clara consonancia con la disminución de la recaudación total por este modelo.

Higiezinetako kapitalaren atxikipenen zioz ordaindutako autolikidazioak
Autoliquidaciones ingresadas por Retenciones de capital inmobiliario

Eredua Modelo	2015		2016		% Aldakuntza Variación	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
115. eredua Modelo 115	89.062	93.039.952	91.088	89.403.596	2,27	-3,91

Eurotan /En euros

Hiri-ondasun higiezinen errentamendu eta azpierrentamendutik etorritako etekinek, etxebizitzarako higiezinak alde batera utzita, atxikipena edo konturako sarrera dute, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako.

Kapital higigarriko etekinen gaineko atxikipen guztietan aplikatutako karga-tasa % 20 izan zen 2015eko urtarrilaren 1etik irailaren 1era, eta % 19,5 2015eko irailaren 1etik abenduaren 31 arte. 2016an % 19 izan da.

2016an 89,40 milioi euro bildu zen guztira kontzeptu

Los rendimientos procedentes del arrendamiento y del subarrendamiento de inmuebles urbanos, distintos a inmuebles destinados a vivienda, se encuentran sometidos a retención o ingreso a cuenta, a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades.

El tipo de gravamen aplicado en todas las Retenciones sobre rendimientos de capital inmobiliario fue desde el 1 de enero de 2015 hasta el 1 de septiembre de 2015 el 20% y desde el 1 de septiembre hasta el 31 de diciembre de 2015 del 19,5%. En el año 2016 ha sido del 19%.

En 2016 se recaudó por este concepto (modelo 115) un

honengatik (115 eredua). Aurreko ekitaldiaren aldean, % 3,91ko hazkundea eduki zuen, kopuru absolutuetan 3,64 milioi euro gutxiago, bi ekitaldietan aplikagarria zen atxikipen-tasa txikiagoa izan zelako.

Aurkeztutako 91.088 agiriek erakusten dute pasa den urtean baino pixka bat gehiago aurkeztu direla. Ñabartzekoa da agiri bakar batek, kasuaren arabera, errentari eta alokairu ezberdinak jaso ditzakeela.

Azkenik, aipatzekoa da 115 ereduari dagokion aitorpen-likidazioaren aurkezpen telematikoa derrigorrezkoa dela 10 langile edo gehiagoko subjektu pasiboentzat. Horri dagokionez, telematikoki agirien % 92,24 aurkeztu da, 86,60 milioi euroko kopurura iritsiz. Horiek kontzeptu honengatiko diru-bilketaren % 96,87 dira.

total de 89,40 millones de euros que con relación al ejercicio precedente supone una disminución del 3,91%, que en términos absolutos son 3,64 millones de euros menos, debido a la disminución del tipo de retención aplicable en ambos ejercicios.

Los 91.088 documentos presentados significan una presentación ligeramente superior al año anterior, matizando que un solo documento, según el caso, puede recoger diversos arrendatarios y arrendamientos.

Mencionar finalmente que la presentación telemática de la declaración-liquidación correspondiente al modelo 115 es obligatoria para los sujetos pasivos con 10 o más trabajadores. A este respecto, se han presentado vía telemática el 92,24% de los documentos por importe de 86,60 millones de euros que representa el 96,87% de la recaudación por este concepto.

Zatikako ordainketen zioz ordaidutako autlikidazioak
Autoliquidaciones ingresadas por Pagos fraccionados

Eredua Modelo	2015		2016		% Aldakuntza Variación	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
130. eredua Modelo 130	126.257	68.227.824	127.075	68.154.175	0,65	-0,11

Eurotan/ En euros

Enpresa-jardueren eta jarduera profesionalen araberako zatikako ordainketen atalean ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergapekoek egin beharreko PFEZen konturako sarreretatik datorren bilketa jasotzen da, etekin garbia kalkulatzeko edozein araubideren bidez: Zuzeneko zenbatespena edo zenbatespen objektiboa.

2016ko ekitaldian, kontzeptu honengatiko sarrerak 68,15 milioi eurokoak izan ziren, 127.075 agiriren bitartez. Jaitsiera arina egon da sarreretan aurreko ekitaldiaren aldean, % 0,11koa hain zuzen, eta termino absolutuetan 73.648 euro gutxiago dira.

Igoera arina gertatu da aurkeztutako autolikidazio kopuruan (818 agiri gehiago), beraz % 0,65eko igoera gertatu da.

Subjektu pasibo aurkezleen kopuruan nahiz bildutako zenbatekoan egondako aldaketa txiki horiek PFEZren autonomo aitortzaileek sektore ekonomikoan egindako jardueran geldialdia gertatu dela erakusten dute. Horrela, 2015eko joera apurtu dute, orduan goranzko aldaketak gertatu zirelako, bai subjektu pasibo aurkezleen kopuruan, bai bildutako kopuruan. Horrek, sektore horretan garatutako jardueraren suspertze arina erakutsi zuen, baina eredu eta ekitaldi honetan ez da islatu.

En el apartado de Pagos fraccionados por actividades empresariales y profesionales se recoge la recaudación procedente de los ingresos a cuenta del IRPF que deben efectuar los contribuyentes que ejercen actividades económicas, por cualquiera de los regímenes de cálculo del rendimiento neto: Estimación Directa o Estimación Objetiva.

En el ejercicio 2016 los ingresos por este concepto se cifraron en 68,15 millones de euros a través de 127.075 documentos. Ha habido una ligera disminución de los ingresos con relación al ejercicio precedente del 0,11% que en términos absolutos suponen 73.648 euros menos.


Se produce un ligero aumento en el número de autoliquidaciones presentadas (818 documentos más), lo que supone un aumento del 0,65%.

Estas mínimas variaciones tanto en el número de sujetos pasivos presentadores como en el importe recaudado evidencian un estancamiento en la actividad desarrollada en el sector económico de los autónomos declarantes del IRPF, rompiendo la tendencia producida en 2015 cuando se produjeron variaciones al alza tanto en el número de sujetos pasivos presentadores como en el importe recaudado, evidenciando una ligera recuperación en la actividad desarrollada en dicho sector que no ha se ha visto reflejada en este modelo y para este ejercicio.

Azkenik, adierazi egin behar da 130 ereduari dagokion aitorpen-likidazioaren aurkezpen telematikoa borondatezkoa dela. 2016an, PFEZren konturako ordainketa zatikatuengatiko autolikidazio guztien % 80,58 ordaindu da, eta horien zenbatekoa 56,58 milioi eurokoa izan da. Kopuru hori kontzeptu honengatik bildutako kopuru osoaren % 83 izan da, eta 2016ko ekitaldiaren aldean hazkunde txikia gertatu da, bai aurkezpen kopuruari dagokionez, bai bide telematikotik sartutako kopuruari dagokionez.

Por último, indicar que la presentación telemática de la declaración-liquidación correspondiente al modelo 130 tiene carácter voluntario. En 2016, se han ingresado el 80,58% del total de las autoliquidaciones por pagos fraccionados a cuenta del IRPF, y su importe alcanza 56,58 millones de euros (83% del total), produciéndose un ligero aumento respecto al ejercicio 2016 tanto en el número de presentaciones como en el importe ingresado por vía telemática.

Atxikipen eta zatikatutako ordainketengatik aurkeztutako autolikidazioen zenbatekoaren banaketa/
Distribución del importe ingresado en las autoliquidaciones presentadas por Retenciones y Pagos fraccionados



1.2 PFEZaren kuota diferentziala
Cuota diferencial del IRPF

2015eko PFEZren kanpainan, ordaintzeko emaitza eduki duen autolikidazio kopurua (2016ko urriaren 6an) 161.552koa izan da. Diru-sarrerak 297,6 milioi eurora iritsi dira. 2014ko PFEZren kanpainaren aldean, agiri kopuruaren % 9ko hazkunde handia gertatu da (13.575 autolikidazio gehiago). Aldiz, diru-bilketan % 21eko igoera gertatu da (51,47 milioi euro gehiago).

El número de autoliquidaciones presentadas con resultado a ingresar correspondiente a la campaña IRPF 2015 (a fecha 6 de octubre 2016) ha sido de 161.552 con unos ingresos que se elevan a 297,6 millones de euros. Estas cifras suponen con relación a la campaña IRPF 2014 un importante incremento del 9% en el número de documentos (13.575 autoliquidaciones más) y asimismo, un incremento del 21% en la recaudación (51,47 millones de euros más).

2014ko PFEZren kanpainaren harira Bizkaiko Foru Aldundiak disketean edo internet bidez jaso dituen, finantza-erakundeetan eginak diren eta ordaintzeko emaitza duten autolikidazioen banaketa honakoa izan da kanpainako datuen arabera:

La distribución de las autoliquidaciones con resultado a ingresar recibidas por la Diputación Foral de Bizkaia realizadas en entidades financieras, en disquete o vía Internet, en la campaña IRPF 20145 según datos de la campaña, ha sido:


- % 28,80k Rentanet finantza erakunde laguntzaileak. 46.535 aitorpen eta 46.236.401 euro, autolikidazio bakoitzeko batez bestekoa 994 eurokoa da.
- Eskuz % 10,59; 17.112 aitorpen aurkeztu dira, 42.034.476 euro guztira, eta autolikidazio bakoitzeko batez bestekoa 2.456 euro izan da.
- % 28,52k Internet. 46.082 aitorpen eta 158.286.355 euro, eta batez bestekoa 3.435 eurokoa da.
- % 31,84k Rentanet Etxean, 51.438 aitorpen eta 50.744.407 euro, 987 euroko batez bestekoarekin.
- % 0,24k Web proposamenak, 385 proposamen bidali eta onartuz sarean, 302.896 euroko zenbatekoan, eta batez beste 678 euro.

- El 28,80% Rentanet Entidades financieras colaboradoras, con 46.535 declaraciones por importe de 46.236.401 euros y una media por autoliquidación de 994 euros.
- El 10,59% Manuales, con 17.112 declaraciones por importe de 42.034.476 euros y una media por autoliquidación de 2.456 euros.
- El 28,52% Internet, con 46.082 declaraciones por importe de 158.286.355 euros y una media de 3.435 euros.
- El 31,84% Rentanet Etxean, con 51.438 declaraciones emitidas por importe de 50.744.407 euros y una media de 987 euros.
- El 0,24% Propuestas Web, con 385 propuestas emitidas y aceptadas en la red por importe de 302.896 euros y una media de 678 euros.

2015eko PFEZri dagokion kanpaina honetan, Rentanet-Etxean izeneko sistema erabiltzen jarraitzen da, zergapetuei ordaindu beharra zekarkieten likidazio proposamenak bidaltzeko. Aurreko ekitaldiari zegokionez, ingresatutako kopuruan % 4,3ko hazkundea egon zen, eta proposamenen kopuruan, berriz, jaitsiera arina (% -2,53 eta 1.335 gutxiago).

En esta campaña correspondiente a IRPF 2015, se sigue utilizando el sistema denominado Rentanet-Etxean para el envío a los contribuyentes de propuestas de liquidación con resultado a ingresar obteniendo, respecto al ejercicio anterior, un incremento del 4,3% en el importe ingresado y un ligero descenso en el número de propuestas (-2.53% y 1.335 menos).

Jatorriaren arabera aurkeztutako aitorpen kopuruaren banaketa
Distribución del número de declaraciones presentadas según su origen



El Impuesto sobre la Producción Eléctrica que recae sobre las empresas productoras de energía eléctrica que entró en vigor en 2013, ha reducido su recaudación respecto al año anterior un 13,69%, lo que supuso, en términos absolutos, una recaudación de 16,27 millones de euros.

En 2014 surgieron varias figuras impositivas en el sistema tributario del Estado que son objeto de concertación con las Diputaciones Forales. Entre ellos, y dentro del capítulo de los Impuestos Directos, está el nuevo Impuesto sobre Depósitos en Entidades de Crédito, cuya recaudación en este ejercicio ha sido de 13,68 millones de euros, un 4% menos que el año anterior, tras el fuerte incremento del 130,6% que vivió el ejercicio anterior en su segundo año de implantación debido a ingresos por acuerdos con otras Administraciones fiscales derivados de la aplicación del Concierto Económico.

Zerga nagusien bilketako pisu erlatiboa (tasak eta bestelako Sarrerak gabe)
Peso relativo en la recaudación (sin tasas y otros Ingresos) de los principales impuestos



II. kapituluari dagokionez (zeharkako zergak), 2016. urtean bilketa handitu da, 2015. urtean egin zuen bezala.

Zerga horien zioz 3.371,56 milioi bildu dira, aurreko ekitaldian baino 68,27 milioi euro gehiago, hots, % 2,07

En cuanto al Capítulo II (Impuestos Indirectos) en el año 2016 incrementa su recaudación en similar proporción al incremento experimentado en el año 2015.

Sus 3.371,56 millones de recaudación reflejan un aumento de 68,27 millones de euros en relación al

gehiago. Datu hori 2007. urtean 3.516 milioi eurorekin lortutako mailara hurbiltzen hasi da, nahiz eta oraindik ere bederatzi ekitalditan egindako bilketa baino % 4,12 gutxiago izan.

ejercicio anterior, con un incremento del 2,07%. Este dato comienza a acercarse al nivel alcanzado en 2007, con una recaudación de 3.516,5 millones de euros, aunque todavía supone un 4,12% menos de recaudación en nueve ejercicios.

Gorakadak egon dira kontzeptu guztien bilketan, Fluor gasei buruzko zergan eta iraungitako zergetan izan ezik, horiek murrizketak izan baitituzte, kapituluaren zenbateko osoaren gainean txiki-txikiak direnak.

Se producen aumentos en la recaudación de todos los conceptos, salvo en el Impuesto sobre Gases fluorados y en los Impuestos extinguidos que sufren minoraciones, aunque son muy residuales sobre el total del capítulo.

Atal horretako kontzeptu nagusien artean, BEZa nabarmentzen da batez ere. 2016an BEZaren bilketa pixka bat handitu zen kudeaketa propioaren kontzeptuan (% 1,06) eta Inportazioengatiko doikuntzan (% 26,53); Barne eragiketengatiko doikuntza, berriz, txikitu zen (% -32,65). 2016. urtean, bilketak % 1,62 baino ez du egin gora (40,42 milioi euro gehiago). Zerga-bilketa horretan sartzen dira, baina zeinu negatiboarekin, BEZaren lurralde arteko konpentsazioa dela-eta Bizkaiak beste bi aldundiei ordaindutako 579,18 milioiak, Ekarpenei buruzko Legearen ondoriozko doikuntza dela-eta.

Entre los principales conceptos de este apartado destaca sobre todo el IVA. En 2016 se produce un pequeño aumento de la recaudación del IVA en su concepto de gestión propia (1,06%) y Ajuste por Importaciones (26,53%) mientras que disminuye el Ajuste por Operaciones Interiores (-32,65%). En el año 2016 aumenta mínimamente la recaudación líquida con un 1,62% (40,42 millones de euros más). Se incluye en esta recaudación, pero con signo negativo los 579,18 millones pagados por Bizkaia a las otras dos Diputaciones Forales en concepto de Compensación Interterritorial de IVA, ajuste derivado de la Ley de Aportaciones.

Ondare-eskualdaketen eta Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren bilketa garbia 77,68 milioikoa izan da 2016. urtean, eta, 2015. urteari dagokionez, % 11,08 gehitu da (7,75 milioi euro gehiago). Hala ere, higiezinen merkatuaren eskasia dela-eta, bilketa-zifrak 2010. urteko zifretatik oso urrun daude, urte horretan 173 milioi bildu baitziren kontzeptu horrengatik, hau da, sei urtean % 55,19 gutxiago bildu da.

La recaudación neta del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y AJD en 2016 ha sido de 77,68 millones, con un incremento del 11,08% respecto al año 2015 (7,75 millones de euros más). No obstante, debido a la precariedad del mercado inmobiliario, las cifras de recaudación están muy alejadas de las del año 2010, en ese año se recaudaron por este concepto 173 millones, lo cual supone un 55,19% menos de recaudación en 6 años.

Zerga berezien ziozko zerga-bilketa garbia % 2,56 handitu da, hots, 17,86 milioi gehiago bildu dira. Horien artean nabarmena da Hidrokarburoen gaineko zergaren bilketaren gorakada.

La recaudación neta de los Impuestos Especiales ha aumentado un 2,56% lo que suponen 17,86 millones de euros más. Entre ellos destaca el aumento en la recaudación en el Impuesto sobre Hidrocarburos.

2013tik aurrera Hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga Hidrokarburoen gaineko zergan sartu da, nahiz eta aurreko urteetako hondarrak sortzen jarraitzen duen. Aurreko ekitaldian bezala, honetan bilketaren zenbatekoa negatiboa izan da, osasuneko zentimoaren erreklamazioengatiko itzulketa dela-eta 4,86 milioi euroko zenbatekoan egindako itzulketengatik, nahiz eta negatibotasuna % 14,75 murriztu.

El Impuesto sobre Ventas Minoristas de Hidrocarburos a partir de 2013 se diluye dentro del Impuesto sobre Hidrocarburos, aunque sigue generando restos de años anteriores. En este ejercicio ha tenido, al igual que en el ejercicio anterior, un importe de recaudación negativo, debido a las devoluciones efectuadas, por importe de 4,86 millones de euros por la devolución de las reclamaciones del céntimo sanitario, pero con un descenso de la negatividad del 14,75%.

Zeharkako zergei buruzko kapituluaren barnean, foru aldundiekin itundu beharreko bi zerga-figura berri sortu ziren 2014an estatuko tributu sisteman: Fluor gasen gaineko zerga eta Joko jardueren gaineko zerga. Hirugarren ekitaldi honetan, zerga horien bilketa 1,12 milioi eurokoa izan da (aurreko ekitaldian baino % 17,15 txikiagoa) eta 1,99 milioi eurokoa (% 21,15 handiagoa), hurrenez hurren.

En 2014, dentro del capítulo de los Impuestos Indirectos, surgieron dos nuevas figuras impositivas en el sistema tributario del Estado que son objeto de concertación con las Diputaciones Forales: el Impuesto sobre Gases fluorados y el Impuesto sobre actividades de juego. La recaudación de estos dos impuestos, en este tercer ejercicio ha sido de 1,12 millones de euros (un 17,15% menos que en el ejercicio anterior) y 1,99 millones de euros, respectivamente (un 21,15% más).

BEZa azpimarratu behar da, zeharkako zerga nagusia baita. Beraren bidez, 2016an 2.539,30 milioi euro garbi bildu dira, hau da, zeharkako zerga guztien % 77,56 eta zerga itunduen bidez ekitaldian bildutako kopuru likido osoaren % 35,63 (estatuarekiko doiketak

Resaltar, que el impuesto indirecto de mayor peso específico, IVA, cuya recaudación neta en 2016 se eleva a 2.539,30 millones de euros, representa el 77,56% de los Impuestos Indirectos y el 35,63% de la Recaudación Líquida Total del ejercicio por tributos concertados

barne)

BEZaren guztizko bilketa garbia honela dago osatuta:

- 3.088,33 milioi euroko zerga-bilketa osoak 73,64 milioi euroko gehikuntza dakar, hots, % 2,44koa.
- Aurreko ekitaldietako hondarrak: 87,58 milioi eurok 42,50 milioi euroren murrizketa dakarte (% 32,67).
- Itzulketak: -734,98 milioi, hau da, 44,26 milioi gehiago itzulita, eta % 6,41eko gehikuntza.
- Inportazioak direla-eta Estatuko Administrazioarekin egindako doikuntza: 503,19 milioi. Kontzeptu horretan 105,49 milioi euroko gorakada egon da, % 26,53, alegia.
- Barruko eragiketak direla eta Estatuko Administrazioarekin egindako doikuntza: 37,44 milioiko sarrerak, 149,91 milioiko hondarrak eta 13 milioi euroko itzulketak. Horrek eragin du kontzeptu horrengatik sortutako sarrera garbia 174,34 milioi eurokoa izatea, eta % 32,65eko murrizketa egotea.
- Barne-doikuntza beste foru aldundiekin: -579,18 milioi euro Horietatik 172,43 milioi Arabari dagozkio eta 406,75 Gipuzkoari.

(incluidos Ajustes con el Estado).

Este total de recaudación neta por IVA está compuesto por:

- La recaudación íntegra de 3.088,33 millones de euros, que refleja un aumento de 73,64 millones, un 2,44%.
- Los residuos de ejercicios anteriores: 87,58 millones reflejan una disminución de 42,50 millones, el 32,67%.
- Devoluciones por importe de -734,98 millones que supone 44,26 millones más de devolución y un aumento del 6,41%.
- Ajuste por importaciones con la Administración del Estado: 503,19 millones. Este concepto experimenta un aumento de 105,49 millones, un 26,53%.
- Ajuste por operaciones interiores con la Administración del Estado: con unos ingresos de 37,44 millones, residuos de 149,91 millones y unas devoluciones de 13 millones de euros, lo que ha supuesto un ingreso neto por este concepto de 174,34 millones de euros con una reducción del 32,65%.
- Ajuste interno con las otras Diputaciones Forales: -579,18 millones de euros. De los cuales 172,43 millones correspondieron a Álava y 406,75 a Guipuzkoa.

19. taula / Cuadro nº 19
BEZaren eta Zerga Berezien doiketak
Ajustes IVA e Impuestos Especiales

	2016	2015	2014
Inportazioak Importaciones	503.193.806	397.700.171	327.280.007
Barneko eragiketak Operaciones interiores	174.343.573	258.870.884	302.479.222
BEZ doiketak guztira Total ajuste IVA	677.537.379	656.571.055	629.759.229
Inportazioak Importaciones	144.734	205.002	227.197
Barneko eragiketak Operaciones interiores	-125.436.875	-104.491.295	-111.065.095
Zerga Berezien doiketak guztira Total ajustes Impuesto Especiales	-125.292.142	-104.286.294	-110.837.898

Zenbatekoa eurotan / Importe en euros

Ondare-eskualdaketen gaineko zergaren eta Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren baterako bilketari dagokionez, 2015. urtearekin alderatuta, 7,75 milioi gehiagoko gehikuntza egon da.

Respecto a la recaudación conjunta de los Impuestos sobre Transmisiones Patrimoniales y AJD, el incremento con respecto a 2015 ha sido de 7,75 millones más.

Eskualdaketen gaineko zergak pisu espezifiko handiagoa duela nabarmendu behar da, beraren bilketak guztizko zenbatekoaren ia % 76 egiten baitu, eta Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren bilketak % 24 baino ez.

Destacar el mayor peso específico del Impuesto sobre Transmisiones cuya recaudación representa casi el 76% del total de ambos, frente al 24% del correspondiente a los AJD.

Eskualdaketen gaineko zergaren bilketa % 22,4 handitu da, eta Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren bilketa, aldiz, % 13,8 txikitu da.

El Impuesto sobre Transmisiones incrementa un 22,4% su recaudación, frente a un descenso del 13,8% en el Impuesto de Actos Jurídicos Documentados.

Zerga Berezien ziozko bilketa garbi osoa (alegia, kudeaketa propioa gehi lurraldeen arteko doikuntza gehi inportazioak eta barne-eragiketak direla-eta estatuarekin egindako doikuntzak) 715,57 milioi eurokoa izan da 2016an. Horrek esan nahi du % 2,56 handitu dela (17,86 milioi euro gehiago), aurreko ekitaldikoaren aldean.

La recaudación neta total por Impuestos Especiales, es decir, gestión propia, más ajuste interterritorial, más ajustes con Estado por importaciones y operaciones interiores, alcanza en 2016 la cifra de 715,57 millones de euros que supone un aumento del 2,56% (17,86 millones de euros más) respecto al ejercicio precedente.

Zifra hori honela osatuta dago: kudeaketa propioko 840,86 milioiko zerga-bilketa (beste lurralde historikoekiko lurralde arteko -420,70ko doikuntzak barne) eta Estatuarekiko doikuntza negatiboa, -125,29 milioikoa.

Esta cifra se desdobla en una recaudación de 840,86 millones por gestión propia (incluidos ajustes interterritoriales con los otros TTHH por importe de -420,70) y un ajuste de carácter negativo con el Estado por importe de -125,29 millones.

Zerga bereziak osatzen dituzten zerga kontzeptu guztien artean, kudeaketa propioko bilketa garbiak (lurralde arteko -420,70ko doikuntzak barne eta estatuarekiko doikuntzak kanpo) gora egin du zerga guztietan, Alkohol eta edarien gaineko zergan eta Bitarteko produktuen gaineko zerga berezian izan ezik; izan ere, % 9,22 eta % 10,6 gutxitu dira, hurrenez hurren. Gorakada handiena izan duen zerga berezia Hidrokarburoen gaineko zerga berezia izan da, autonomia mailakoa: % 180,25.

Dentro de los distintos conceptos tributarios que configuran los Impuestos Especiales, la recaudación neta por gestión propia (incluidos ajustes interterritoriales y excluidos ajustes con el Estado) sufre aumento en todos los impuestos excepto en el Impuesto sobre Alcohol y Bebidas que disminuye un 9,22% y en el Impuesto Especial s/productos intermedios con un 10,6% menos. El impuesto especial que sufre una mayor subida es el Impuesto Especial sobre Hidrocarburos en su tramo a tipo autonómico con un aumento del 180,25%.

Zerga-bilketaren garrantziari dagokionez, Hidrokarburoen gaineko zerga berezia eta Tabako gaien gaineko zerga berezia dira garrantzitsuenak. Horrenbestez, bien arteko baterako bilketak zerga berezien guztizkoaren % 94 osatzen du, doiketen aurretik.

Por su importancia recaudatoria son el I.E sobre Hidrocarburos y el I.E. sobre Labores del Tabaco los de mayor magnitud. Así, la recaudación conjunta de ambos impuestos representa el 94% de la recaudación total de Impuestos Especiales antes de ajustes.

Hidrokarburoen gaineko zergaren kudeaketa propioagatik egindako bilketa garbiak (tasa autonomikoaren zatia kontuan hartu gabe) 26,39 milioi euro egin du gora, eta 607,03 milioi eurora iritsi da.

La recaudación neta por gestión propia del Impuesto sobre Hidrocarburos (sin incluir los ingresos del tramo a tipo autonómico) ha aumentado en 26,39 millones de euros, hasta un total de 607,03 millones de euros.

Era berean, Hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren bilketaren zenbateko garbia (kudeaketa propioa gehi estatuarekiko -161,70 milioiko doikuntzak eta zati autonomikorik gabe) 445,33 milioi eurokoa izan da. Horrenbestez, % 4,06ko gorakada izan du. Zerga Berezien bilketa garbi osoaren % 62,23 izan da.

Igualmente, el importe neto de la recaudación por el I.E. sobre Hidrocarburos, gestión propia más ajustes con el Estado, estos últimos por un importe de -161,70 millones, y sin tramo autonómico, ha sido de 445,33 millones de euros, con un aumento del 4,06%. Su peso sobre el total de la recaudación neta de Impuestos Especiales es del 62,23%.

Hidrokarburoen gaineko zerga berezia (tasa

El Impuesto Especial sobre Hidrocarburos tramo tipo

autonomikoaren zatia) figura berriak epe luzera zero sarrera garbia sortu behar du, sarrera hori autonomia erkidegoei itzuli behar zaielako, horiek baitira produktuaren hartzaileak eta zero ez den tasa autonomikoa dute ezarrita. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako tasa % 0 da, eta, beraz, zati horrek ez du sarrerarik sortzen. Hala ere, figura horrengatiko bilketa 485.564 eurokoa izan da 2016an (estatuarekiko doikuntzak barne).

Tabako gaien gaineko zerga bereziaren kasuan, zerga-bilketa garbiaren eta barne-doikuntzaren batura aurreko ekitaldietakoa baino handiagoa izan da, 179,78 milioi hain zuzen, baina 190,38 milioira handitzen da estatuarekiko 10,60 milioiko doikuntza batzen zaionean, eta Zerga Berezien zenbateko osoan % 26,61eko pisu espezifikoa du.

Zerga bereziei dagokienez, barneko eragiketak eta inportazioak direla-eta Estatuarekin egindako doikuntzen guztizko batura negatiboa da 2016an, hain zuzen ere -125,29 milioi eurokoa, eta negatibotasuna % 20,14 handitu da. Arrazoia izan da barneko eragiketak direla-eta egindako doikuntzaren negatibotasuna. Esan beharra dago estatuarekiko doikuntzen zenbateko oso hori beti izan dela negatiboa, Hidrokarburoen gaineko zergari barneko eragiketengatik egin beharreko doikuntzaren eraginez, CLH Bizkaian kokatuta dagoelako.

Beste foru aldundiekiko lurraldeen arteko doikuntzei dagokienez, BEZaren, Zerga Berezien, Hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zergaren eta Ekoizpen elektrikoaren gaineko zergaren batura –1.005,66 milioi eurokoa da. Horietatik 239,35 milioi euro Arabari dagozkio eta 766,31, aldiz, Gipuzkoari.

Itundutako zergen ziozko bilketa garbi osoan zerga nagusiek duten pisu erlatiboari dagokionez (tasak eta beste sarrera batzuk barne), 2016an PFEZaren ehunekoa pixka bat handiagoa izan da % 37,20ra helduta, Sozietateen gaineko zergarena % 8,83ra handitu da, eta BEZarena (kudeaketa propioa gehi doikuntzak), aldiz, antzekoa izan da: % 37,32. Zerga bereziek % 10,5 inguruko partaidetzari eutsi diote, eta Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eta Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga % 1ekoak izan dira, gutxi gorabehera.

Autonómico, es una nueva figura que a L/P debe generar un ingreso neto de cero ya que el ingreso debe ser devuelto a las Comunidades Autónomas receptoras del producto y que tienen establecido un tipo autonómico distinto de cero. Actualmente, el tipo establecido en la Comunidad Autónoma Vasca es del 0%, por lo que este tramo no genera ningún ingreso. No obstante, la recaudación por esta figura en 2016 (incluidos ajustes con el Estado) fue de 485.564 euros.

En el caso del IE sobre Labores del Tabaco su recaudación neta más el ajuste interno ha sido superior a la de ejercicios anteriores, 179,78 millones, y se incrementa hasta los 190,38 millones al agregar el ajuste con el Estado de 10,60 millones y su peso específico en el total de Impuestos Especiales ha sido del 26,61%.

La suma total de los Ajustes con el Estado por operaciones interiores y por importaciones, relativos a los Impuestos Especiales, en 2016, es negativa por importe de -125,29 millones de euros con un aumento en la negatividad del 20,14%, debido al aumento en la negatividad del ajuste por operaciones interiores. Hay que decir que este total de Ajustes con el Estado tradicionalmente es negativo por el efecto del ajuste por operaciones interiores del Impuesto sobre Hidrocarburos debido a la radicación de CLH en Bizkaia.

En lo referente a los ajustes interterritoriales con las otras Diputaciones Forales, la suma total por IVA, Impuestos Especiales, Impuesto sobre Ventas Minoristas de Hidrocarburos y el Impuesto sobre la Producción Eléctrica es de –1.005,66 millones, de los cuales 239,35 millones corresponden a Álava y 766,31 a Guipúzcoa.

Con referencia al peso relativo de los principales impuestos en la recaudación neta total por tributos concertados (incluidas las tasas y otros ingresos) en 2016, el porcentaje de IRPF sube ligeramente hasta el 37,20%, el Impuesto sobre Sociedades disminuye hasta el 8,83%, y el IVA (gestión propia más ajustes) se mantiene similar con un 37,32%. Los Impuestos Especiales mantienen su participación en torno al 10,5% y el Impuesto sobre Donaciones y Sucesiones y Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados en torno al 1%.

20. taula/Cuadron°20
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontu Orokorra. Sarrerak
Cuenta General de la Diputación Foral de Bizkaia. Ingresos

Kapituluak / Capítulos	2016	2015	2014	% var 2016/2015
Zuzeneko Zergak Impuestos directos	3.273.832	3.154.457	3.187.959	3,78
Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Impuesto sobre la Renta Personas Físicas	2.531.121	2.428.451	2.264.727	4,23
Ez-egoiliarren errentaren zerga Impuesto Renta no residentes	-22.448	-65.016	-1.433	-65,47
Sozietateen gaineko zerga Impuesto sobre sociedades	600.730	627.557	770.611	-4,27
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga Impuesto Sucesiones y Donaciones	57.937	60.418	60.213	-4,11
Ondarearen gaineko zerga Impuesto sobre el Patrimonio	73.043	66.291	69.420	10,19
Tokiko zergen gaineko errekarguak Recargos sobre Tributos locales	3.495	3.649	3.868	-4,23
Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren gaineko zerga Impuesto s/ Producción Energía Eléctrica	16.273	18.854	14.374	-13,69
Kreditu Erakundeetako gordailuen gaineko zerga Impuesto sobre Depósitos en Entidades de crédito	13.680	14.253	6.180	-4,02
Zeharkako zergak Impuestos indirectos	3.371.562	3.303.293	3.237.634	2,07
Ondare eskual. Eta EJAren zerga Impuesto Transmisiones Patrimoniales y AJD	77.684	69.937	65.577	11,08
Balio erautsiaren gaineko zerga Impuesto sobre el Valor Añadido	2.539.295	2.498.878	2.440.877	1,62
Zerga bereziak Impuestos especiales	715.571	697.713	689.461	2,56
Gas fluoradunen gaineko zerga Impuesto sobre Gases fluorados	1.123	1.356	330	-17,15
Aseguruen primen gaineko zergak Impuesto sobre primas de seguros	40.757	39.462	37.622	3,28
Hidrokarburo batzuen txikizkako salment.zerga Impuesto sobre Ventas Min. Hidrocarburos	-4.855	-5.695	103	-14,75
Joko jardueren gaineko zerga Impuesto sobre actividades de juego	1.987	1.640	3.262	21,15
Agortutako zergak / Impuestos extinguidos	1	2	403	-26,73
Zergak guztira / Total impuestos	6.645.395	6.457.750	6.425.594	2,91
Tasak eta bestelako sarrerak Tasas y otros ingresos	159.109	144.698	142.372	9,96
Ohiko transferentziak Transferencias corrientes	156.714	143.580	133.459	9,15
Ondare sarrerak / Ingresos Patrimoniales	1.274	1.247	8.133	2,22
Inbertsio errealak besterengantzea Enajenación de inversiones reales	487	1.096	519	-55,55
Kapital transferentziak Transferencias Capital	8.346	8.221	12.622	1,52
Bestelako sarrerak guztira Total otros ingresos	325.930	298.841	297.104	9,06
Finantza ez diren sarreak guztira / Total ingresos no financieros	6.971.324	6.756.591	6.722.698	3,18
Finantza aktiboen aldkuntza Variación Activos Financieros	6.397	821	730	678,76
Finantza pasaiboen aldakuntza Variación Pasivos Financieros	148.488	152.000	147.600	-2,31
Finantza sarrerak guztira Total ingresos financieros	154.885	152.821	148.330	1,35
Sarrerak guztira / Total ingresos	7.126.210	6.909.412	6.871.028	3,14

Milaka eurotan / Miles de euros

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontu Orokorreko sarreren ataleko emaitzak aztertzen jarraituko dugu. Aurrekontu bateratuaren (urtekoa gehi itxitakoak) datuen arabera, 2016ko ekitaldiko sarreren bilketa 7.126,21 milioi eurokoa izan da, eta aurreko ekitaldian baino 216,80 milioi euro gehiago bildu dira (+% 3,14). Azpimarratu behar da zergen bidezko sarreren (I., II. eta III. kapituluak) pisu espezifikoa sarrera ez finantzarioen zenbateko osoaren % 97,61 dela. Hiru kapitulu horietako sarreren batura 2015ean 6.602,45 milioi euro izatetik 2016an 6.804,50 milioi izatera igaro da, hau da, % 3,06ko gehikuntza izan du, 202 milioikoa, hain zuzen. Aldakuntza hori positiboa izan da, batez ere PFEZaren, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta BEZaren bilketak (102,67 milioi euro gehiago, 42,57 milioi euroko negatibotasun txikiagoa eta 40,42 milioi euro gehiago, hurrenez hurren) handitzeagatik.

Siguiendo con el análisis de los resultados de la Cuenta General de la Diputación Foral de Bizkaia en su vertiente de ingresos, con datos del Presupuesto refundido (corriente más cerrados), la recaudación de ingresos del ejercicio 2016 supone 7.126,21 millones de euros, incrementándose respecto al ejercicio anterior en 216,80 millones de euros (+3,14%). Destacar que el peso específico de los ingresos tributarios (Capítulos I, II y III) representa una participación del 97,61% del total de los ingresos no financieros. El ingreso conjunto de estos tres capítulos pasa de 6.602,45 millones de euros en 2015 a 6.804,50 millones en 2016, lo que supone un aumento de 3,06% cuantificado en 202 millones. Dicha variación ha sido positiva debido fundamentalmente al incremento en la recaudación del IRPF (102,67 millones más), del IRNR (42,57 millones de menor negatividad) y en la recaudación del IVA (40,42 millones más).

IV. kapituluan (Transferentzia arruntak) Aldundiak eragiketa arruntak finantzatzeko jasotako baliabideak daude, baliabide baldintzatuak zein baldintzatu gabekoak. Kapitulu hori % 9,15 handitu da 2016an, 156,71 milioi euroraino. Haren guztizko zenbatekoak osagai hauek ditu: estatuaren transferentziak (% 14,92), EAErenak (% 22,35), Bizkaiko Lurralde Historikoarenak (% 51,77) eta nazioarteko erakundeenak (% 8,66).

El Capítulo IV, Transferencias Corrientes, que incluye los recursos condicionados o no, recibidos por la Diputación para la financiación de operaciones corrientes, experimenta en 2016 un aumento del 9,15% hasta los 156,71 millones. Su importe total lo integran las Transferencias recibidas del Estado (14,92%), de la C.A. de Euskadi (22,35%), del Territorio Histórico de Bizkaia (51,77%) y de Organismos Internacionales (8,66%).

Jasotako transferentziei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: estatutik 22,68 milioi euro aurreko ekitaldiko kupoa erregularizatzeko (22,18 milioi aurreko ekitaldian); EAEtik 25,25 milioiko zenbatekoa ekarpen orokorrengatik (76,74 milioi 2015ean); eta Bizkaiko Lurralde Historikotik Udalkutxaren likidaziotik datozen 75,55 milioi gehitu dira, 2015eko ekitaldiko 20,91 milioien aldean.

De las transferencias recibidas del Estado destacan los 22,68 millones por Regulación Cupo de ejercicio anterior (22,18 en el ejercicio anterior), de la C.A. de Euskadi cabe destacar las “Aportaciones Generales” por importe de 25,25 millones de euros (76,74 millones en 2015), y en las del TH Bizkaia las procedentes de la liquidación con Udalkutxa aumenta hasta los 75,55 millones frente a los 20,91 del ejercicio 2015.

V. kapituluan ondare-sarrerak biltzen dira, eta Aldundiaren ondasunen errentetatik datoz sarrera horiek. Kapitulu hori % 2,22 handitu da, eta sarrera ez finantzarioen zenbateko osotik % 0,02 baino ez du hartzen.

El Capítulo V, Ingresos Patrimoniales, que proceden de rentas de la propiedad o patrimonio de la Diputación, muestra un incremento del 2,22% y sólo representan el 0,02% del total ingresos no financieros.

VI. kapituluan (Inbertsio errealen besterentzea), sarrerek 2016ko ekitaldian 608,75 mila euroko beherakada izan dute, hau da, -% 55,55ekoa. Hala ere, emaitza horiek ez dira esanguratsuak, inbertsioen besterentzeak normalean oso sarrera txikiak ekartzen dituelako Foru Aurrekontuaren aldean, eta sarrera horiek berez ausazko izaera dutelako.

Los ingresos por Capítulo VI, Enajenación de Inversiones Reales, ha experimentado en el ejercicio 2016 una reducción de 608,75 miles de euros, lo que supone un 55,55%. Sin embargo, no tienen carácter significativo, ya que la enajenación de inversiones habitualmente arroja unos ingresos con importes mínimos en relación al Presupuesto Foral y por su propia naturaleza tienen un carácter aleatorio.

VII. kapituluan (Kapital transferentziak) Aldundiak kapital-eragiketak finantzatzeko jasotzen dituen baliabideak biltzen dira, baliabide baldintzatuak izan edo ez. Kapitulu hori pixka bat handitu da, aurreko ekitaldiaren aldean: % 1,52, hau da, 125,17 mila euro gehiago. Kapitulu horretako sarreren iturriak sei dira: Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa, nazioarteko erakundeak, irabazi asmorik

El Capítulo VII, Transferencias de Capital, que engloba los recursos condicionados o no, que recibe la Diputación para la financiación de operaciones de capital, refleja en relación al ejercicio anterior un ligero aumento del 1,52% lo que ha supuesto 125,17 miles de euros más. Los ingresos de este capítulo tienen seis tipos de origen: Comunidad Autónoma de Euskadi, Territorio Histórico de Bizkaia, Organismos

gabeko erakundeen transferentziak, familiak eta enpresak.

Internacionales y Transferencias de instituciones sin fines lucrativos, Familias y Empresas.

2015eko ekitaldiaren aldean egondako gehikuntza honako hauek izan duten gorakadan oinarritzen da gehienbat: Bizkaiko Lurralde Historikoko transferentziak, 0,24 milioi euroko bilketa izatetik 2016an 1,85 milioi eurokoa izatera pasatu direnak (% 658,48); enpresen transferentziak, 0,46 milioi euroko bilketa izatetik 0,63 milioi eurokoa izatera pasatu direnak (% 37,61); eta familien transferentziak, 0,07 milioi euroko bilketa izatetik 0,09 milioi eurokoa izatera pasatu direnak (% 29,70).

El incremento respecto al ejercicio 2015, se debe principalmente al incremento en las Transferencias del THB que pasan de 0,24 millones de recaudación a 1,85 millones en 2016 (658,48%), en las Transferencias de las empresas que pasan de 0,46 millones a 0,63 millones (37,61%) y en las Transferencias de Familias que pasan de 0,07 millones a 0,09 millones (29,70%).

2016an VII. kapituluko osagai nagusia "Nazioarteko erakundeen transferentziei" dagokiena da; izan ere, 2016an kapitulu horren ia % 68 osatzen du, eta gehienbat EGEFetik dator (% 97,28).

En 2016, el componente principal del capítulo VII, es el correspondiente a "Transferencias de Organismos Internacionales", aportando en 2016 casi el 68% de este capítulo y procediendo en su mayor parte del FEDER (el 97,28%).

VIII. eta IX. kapituluetan biltzen diren finantza-sarrerei dagokienez, batera hartuta pisu espezifiko txikia dute aurrekontuan. Haien zenbatekoa 154,89 milioi euro izan da, guztira.

En lo que concierne a los ingresos financieros que se recogen en los Capítulos VIII y IX, conjuntamente tienen poco peso específico en el presupuesto y su importe agregado es de 154,89 millones de euros.

VIII. kapituluko (Finantza aktiboen aldakuntza –positiboa–) sarrerak, berriz, Aldundiak udalei, langileei eta familiei emandako epe laburreko maileguen eta aurrerakinen itzulketetatik datoz. 2016ko ekitaldi honetan zenbatekoa 6,40 milioi eurokoa da, eta 2015eko ekitaldiarekin alderatuta, % 678,76ko gehikuntza egon da.

Los ingresos del Capítulo VIII, Variación (positiva) de Activos Financieros, provienen de reintegros de préstamos a corto plazo y anticipos que la Diputación concede a Ayuntamientos, personal y familias. Su importe en este ejercicio 2016 es de 6,40 millones de euros, con un aumento en la recaudación respecto al ejercicio 2015 del 678,76%.

Sarreren ataleko IX. kapituluak (Finantza-pasiboen aldakuntza –positiboa–) ekitaldian hartutako epe luzerako maileguak jasotzen ditu. 2016. urtean, 148,49 milioiko beste zorduntze bat egin da hainbat finantza-erakunderekin. 2015. urtearekin erkatuta, aitortutako eskubideek 3,5 milioi egin dute behera, 152 milioitik 148,49 milioira.

El Capítulo IX de Ingresos, Variación (positiva) de Pasivos Financieros, recoge los préstamos a largo plazo tomados en el ejercicio. En el año 2016 se ha procedido a efectuar un nuevo endeudamiento con una serie de Entidades Financieras por 148,49 millones. Comparado con 2015 los derechos reconocidos disminuyen en 3,5 millones, pasando de 152 millones a 148,49 millones.

Zorpetze garbiaren bilakaera ezagutu ahal izateko, batera aztertu behar dira kapitulu hori eta gastuen ataleko IX. kapitulua (Finantza-pasiboen aldakuntza –negatiboa–), epe luzeko maileguen amortizazioak biltzen dituena. Horien zenbatekoa murriztu egin da: 2015eko 152,29 milioi eurotik 2016ko 148,49 milioi eurora (-3.800 mila euro eta -% 2,50). Murrizketa horren zuzeneko arrazoia "EAEtik jasotako maileguen amortizazioa" da (-5.400 mila euro).

Este capítulo debe analizarse paralelamente con el Capítulo IX de Gastos, Variación (negativa) de Pasivos Financieros, que recoge las amortizaciones de préstamos a largo plazo, y ello, a efectos de conocer la evolución del endeudamiento neto. El importe de las mismas se ha reducido pasando de 152,29 millones en 2015 a 148,49 millones en 2016 (-3.800 miles de euros y -2,50%). La causa directa de esta disminución reside en la Amortización de Préstamos recibidos de la CAE (-5.400 miles de euros).

Sarrerei buruzko IX. kapitulua 148,49 milioi eurora handitu denez, zorpetzearen 2016ko aldakuntza garbia 0 eurokoa da; gauzak horrela, aurrekontuko zor publikoaren saldoa 1.207,46 milioi eurokoa zen 2016ko abenduaren 31n, ia egonkor egonda.

Dado que el Capítulo IX de ingresos ha ascendido a 148,49 millones de euros, la variación neta del endeudamiento en 2016 asciende a 0 euros, dejando el saldo de Deuda Pública Presupuestaria a 31/12/2016 en 1.207,46 millones de euros, manteniéndose prácticamente constante.

Bizkaiko Foru Aldundiak erabilgarri dituen zerga itunduak

Bizkaiko Foru Aldundiak 2016an eskuragarri eduki dituen baliabideak 1.074,78 milioi euro izan dira; kopuru hori zerga itunduengatiko sarreren % 16 da. Eskuragarri dauden baliabideen zenbateko hori Foru Aldundiaren kudeaketarako erabiltzen da eta 2015eko ekitaldiari dagokionez, oro har 54,57 milioiko igoera izan dute, hots, % 5,3 gehiago. Erabilgarri dauden zergen eta zerga itunduen arteko loturan % 0,3ko igoera egon da.

Eskuragarri dauden baliabideak 2016ko ekitaldian pixka bat igo dira, zerga itunduen bidez gehiago bildu delako (% 3,1) eta erakunde-konpromisoengatiko gastuak ere igo direlako, azken horien igoera txikiagoa izan arren (% 2,6). Zerga-bilketa osoaren % 84 izan dira, guztira.

Tributos Concertados disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia

Los recursos disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia en 2016 se elevan a 1.074,78 millones y representan el 16% de los ingresos por tributos concertados. Este importe de recursos disponibles que se destina a la gestión propia de la Diputación Foral supone, en relación al ejercicio 2015, un incremento de los mismos en términos absolutos de 54,57 millones, lo que significa un aumento porcentual del 5,3%, y 0,3 puntos porcentuales más en la relación tributos disponibles/tributos concertados.

Este incremento de recursos disponibles en el ejercicio 2016 es debido al aumento en la recaudación por tributos concertados (3,1%) y al incremento un poco menor (2,6%) de los gastos por compromisos institucionales, que suponen el 84% del total de la recaudación.

21. taula / Cuadro nº 21
Bizkaiko Foru Aldundiak erabilgarri dituen zerga itunduak
Tributos Concertados disponibles de la Diputación Foral de Bizkaia

Kontzeptua Concepto	2016		2015		% Aldakuntza Variación 2016/2015
	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	
Tributu itunduen zergabilketa Recaudación Tributos concertados	6.715.104	100	6.515.483	100	3,1
Erakundearteko konpromisoak Compromisos institucionales	5.640.324	84,0	5.495.270	84,3	2,6
Ordaindutako kupoa Cupo pagado	358.057	5,3	385.987	5,9	-7,2
Ekarpenak / Aportaciones	4.438.519	66,1	4.278.303	65,7	3,7
Udal finantzaketa Financiación municipal	836.248	12,5	822.980	12,6	1,6
Juntas Generales Batzar Nagusiak	7.500	0,1	8.000	0,1	-6,3
BFA erabilgarri dituen zerga Disponible T. Concertados DFB	1.074.780	16,0	1.020.213	15,7	5,3

Milaka eurotan /Miles de euros

Aurreko taulan zerga itunduen bilketaren guztizkotik BFAk eskuragarri duen zenbatekoaren kalkulua ageri da, behin erakundeen konpromisoetatik eratorritako ordainketak kenduta.

EJri eta Doikuntza Funts Orokorrari egindako ekarpenek, guztira, 4.464,09 milioi euroko gastua ekarri dute; eta azken likidazioaren ondorioz, 25,57 milioiko itzulketak izan dira. Kopuru horretan sartuta dago, beraz, 2016. urteko ekarpenen likidazioan

En el cuadro anterior figura el cálculo del importe disponible por la DFB del total de la recaudación por tributos concertados una vez detraídos los pagos por Compromisos Institucionales.

Las Aportaciones al GV y el Fondo General de Ajuste han alcanzado un importe conjunto de 4.464,09 millones de euros de gastos y unos reintegros de 25,57 millones por la liquidación final. La cifra indicada, por tanto incluye el ajuste derivado de la liquidación de las

egindako doikuntza, nahiz eta positiboa izan eta sarrera moduan kudeatu.

Horrenbestez, Ekarpenen eta Beste Funtsen guztizko zenbateko garbia 4.438,52 mila eurokoa izan da 2016. urtean

2015eko ekitaldiari dagokionez, EJri eta Doikuntza Funts Orokorrari egindako ekarpenak 160 milioitan gehitu dira (% 3,74).

2016an Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenak zerga itunduen bilketaren % 66,1 izan dira, eta erakundeen konpromiso guztien % 78,69.

Udal-finantzaketa 836,25 milioi eurokoa izan da 2016an. Udalerrientzako transferentzien bidezko gastu arrunta eta Udalkutxaren zuzkidurak gehituta atera da zenbateko hori. VII. kapituluko kapital-transferentziak ere sartu dira, inbertsioetarako ustekabekoak finantzatzeko zirenak (4,84 milioi euro).

Udalkutxaren zuzkidurak 824,06 milioi euro izan dira 2016an, udalerriek zerga itunduen ziozko sarreren kontura jaso dituzten kopuru gordinei dagozkienak.

Ez da sartzen 2016ko ekitaldiko likidazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldekoa izan dena 61,81 milioirekin. Sartu gabe geratu da.

Udal-finantzaketan, zerga itunduengatik bildutakoaren % 12,5 izan da, eta erakundeen konpromisoengatik guztira ordaindutakoaren % 14,83.

2016ko kupoagatiko gastu gordinak 380.742 mila eurokoak izan dira. Kopuru horri aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioagatiko kontzeptutik eratorritako 22.685 mila euro kendu behar zaizkio. Beraz, 2016ko kupoaren gastu garbia 358.057 mila eurokoa da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,2ko beherakada izan da. Kupoa 2016ko ekitaldiko itundutako zergen bilketaren % 5,3 da, eta erakundeen konpromiso guztien % 6,35.

Batzar Nagusientzako transferentziek ez dute edukitzen bilakaera erregularrik, unean-unean planteatzen diren beharrizanei lotuta egoten dira eta. Ekitaldiko zenbatekoa 7,5 milioi euro izan da, hots, aurreko ekitaldian baino % 6,3 gutxiago.

Laburbilduta, 2016an erakunde-konpromisoen zenbatekoa 5.640,3 milioi euro izan da, zerga itunduen bidez bildutakoaren % 84; hau da, 2015ean baino ehuneko 0,3 puntu txikiagoa.

Aportaciones del propio año 2016, aunque sea positiva y se haya gestionado como ingreso.

Por tanto, el total neto de Aportaciones y Otros Fondos en 2016 ha sido de 4.438,52 miles de euros.

Con respecto al ejercicio 2015, las Aportaciones al GV y el Fondo General de Ajuste han aumentado en 160 millones, el 3,74%.

Las Aportaciones al GV realizadas en 2016 suponen el 66,1% de la recaudación por tributos concertados y constituyen el 78,69% del total de Compromisos Institucionales.

La financiación municipal asciende en 2016 a 836,25 millones de euros. Este importe se obtiene agregando el gasto corriente por transferencias a los municipios, más las dotaciones a Udalkutxa. Se incluye, además, las Transferencias de Capital del Capítulo VII dirigidas a financiar imprevistos destinados a inversiones (4,84 millones de euros).

Las dotaciones a Udalkutxa ascienden en 2016 a 824,06 millones de euros, correspondientes a las cantidades brutas recibidas por los municipios a cuenta de los ingresos por tributos concertados.

No incluye la liquidación del ejercicio 2016, que ha resultado a favor de la Diputación Foral de Bizkaia por importe de 61,81 millones, pendiente.

En el caso de la financiación municipal ha supuesto el 12,5% de la recaudación por tributos concertados y el 14,83% del total pagado por Compromisos Institucionales.

Los gastos brutos por Cupo 2016 alcanzaron los 380.742 miles de euros a los que hay que descontar los 22.685 miles de euros de Ingreso, provenientes del concepto por Liquidación del Cupo Ejercicio Anterior. Por tanto, el gasto neto correspondiente al Cupo 2016 es de 358.057 miles de euros.

Supone un descenso respecto al ejercicio anterior del 7,2%. El Cupo representa un 5,3% del total de recaudación por tributos concertados del ejercicio 2016 y el 6,35% del total de los Compromisos Institucionales.

Las transferencias a Juntas Generales no siguen una evolución regular estando sujetas a las necesidades puntuales que se puedan plantear. Su importe en el ejercicio ha sido de 7,5 millones de euros, disminuyendo en un 6,3% respecto el año anterior.

En definitiva, en 2016 los Compromisos Institucionales alcanzan la cifra de 5.640,3 millones de euros y representan el 84% de los ingresos por tributos concertados, 0,3 puntos porcentuales menos que en 2015.

III.1.2 Kudeaketa propioko gastuen eta sarreren egitura
Estructura de los ingresos y gastos de gestión propia

Aurrekontu propioaren egituran, kudeaketa propioko gastuak eta sarrera propioak bereizten dira, eta biak daude salbuetsita kapital-eragiketetatik (VIII. eta IX. kapituluak). Halaber, sarrera propioetan nahiz kudeaketa propioko gastuetan, kontzeptu bakoitzak guztizko zenbatekoarekiko duen pisu espezifikoa ageri da.

Sarrera propioetan, I, II eta III. kapituluetan (Zerga Zuzenak, Zeharkako Zergak eta Tasak eta Beste sarrera batzuk), zerga itunduak eta gainerako zerga-sarrerak bereizita taldekatu dira. Lehen taldetik kendu dira erakundeen konpromisoak eta, hala, Foru Aldundiak kudeaketa propiorako dituen zerga itundu erabilgarrien zenbatekoa lortzen da.

La estructura del presupuesto propio distingue entre ingresos propios y gastos de gestión propia, excluyendo de ambos las operaciones de capital (Capítulos VIII y IX). Asimismo, dentro de los ingresos propios como dentro de los gastos de gestión propia se recoge el peso específico de cada uno de los conceptos que lo integran respecto del total.

En los ingresos propios, los Capítulos I, II y III (Impuestos Directos, Impuestos Indirectos y Tasas-Otros Ingresos) se han agrupado diferenciándose entre los tributos concertados y el resto de ingresos tributarios, y restando del primer grupo el importe de los compromisos institucionales, se obtiene la cuantía por tributos concertados disponibles por la Diputación Foral para su gestión propia.

22. taula / Cuadro nº22
Aurrekontu propioaren egitura
Estructura del presupuesto propio

Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa/ Importe			Egitura / Estructura (%)			% Aldakuntza /Variación	
	2016	2015	2014	2016	2015	2014	2016/2015	2015/2014
Sarrera propioak (A) Ingresos propios (A)	1.539.369	1.336.293	1.497.264	100,00	100,00	100,00	15,20	-10,75
BFAk erabilgarri dituen Zerga itunduak Tributos concert. Disponibles DFB	1.074.780	1.020.282	1.106.561	69,82	76,35	73,91	5,34	-7,80
Itundu gabeko bestelako zergak Otros tributos no concertados	282.899	80.574	211.838	18,38	6,03	14,15	251,10	-61,96
Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	171.649	224.571	157.516	11,15	16,81	10,52	-23,57	42,57
Ondare sarrerak Ingresos patrimoniales	1.144	1.519	8.042	0,07	0,11	0,54	-24,69	-81,11
Inbertsioak errealak besterentzea Enajenación Inversiones Reales	487	1.096	519	0,03	0,08	0,03	-55,57	111,18
Kapital Transferentziak Transferencias de Capital	8.410	8.251	12.788	0,55	0,62	0,85	1,93	-35,48
Kudeaketa propioko gastuak (B) Gastos de gestión propia (B)	1.223.356	1.197.958	1.189.422	100,00	100,00	100,00	2,12	0,72
Langileria gastuak Remuneración de Personal	187.932	184.259	187.983	15,36	15,38	15,80	1,99	-1,98
Ondasun arrunten eta zerb. erosketak Compras Bienes corrientes y servic.	405.347	378.503	364.307	33,13	31,60	30,63	7,09	3,90
Gastu Finantzarioak Gastos financieros	29.744	33.041	47.654	2,43	2,76	4,01	-9,98	-30,66
Ondasun arruntak Transferencias corrientes (gestión propia)	439.005	407.810	398.003	35,89	34,04	33,46	7,65	2,46
Inbertsio errealak Inversiones reales	62.116	61.238	70.878	5,08	5,11	5,96	1,43	-13,60
Kapital Transferentziak Transferencias de Capital	99.212	133.107	120.597	8,11	11,11	10,14	-25,46	10,37
Finantzaketaren beharra/gaitasuna (A-B) Necesidad/capacidad Financiac. (A-B)	316.013	138.335	307.842				128,44	-55,06
Finantza-aktiboen aldaketa positiboa Variación Positiva de Act. Financieros	6.397	821	730				679,17	12,47
Finantza-aktiboen aldaketa negatiboa Variac.Negativa de Act. Financieros	102.115	123.731	120.776				-17,47	2,45
Zorpetze garbiko behar edo gaitasuna Necesidad ó Capacidad Endeud. Neto	220.295	15.426	187.796				1.328,08	-91,79
Finantza-pasiboen aldaketa positiboa Variación positiva Pasi. Financieros	148.488	152.000	147.600				-2,31	2,98
Finantza-pasiboen aldaketa negatiboa Variación negativa Pasi. Financieros	148.488	152.288	147.666				-2,50	3,13
Aurrekontu superabita/deficita doitu gabe Superavit/Déficit presupuestario sin ajustar	220.295	15.138	187.730				1.355,25	-91,94

Milaka eurotan/ Miles de euros

Taulan ikusten den bezala, erabilgarri dauden zerga itunduei dagozkien sarrera propioek dute garrantzirik handiena, % 69,82 baitira. 2014ko eta 2015eko ekitaldiekin alderatuta, partaidetzaren ehuneko handiagoa izan dute. Balio absolututan, 2016an erabilgarri zeuden zerga itunduak 1.074,78 milioi eurokoak izan ziren.

Como se observa en el cuadro, el mayor peso específico de los ingresos propios corresponde a los tributos concertados disponibles, que representa el 69,82% de los mismos, disminuyendo su porcentaje de participación respecto a 2014 y 2015. En términos absolutos los tributos concertados disponibles en 2016 se cifran en 1.074,78 millones de euros.

Itundu gabeko beste zerga batzuengatiko sarrerek

Los ingresos por otros tributos no concertados

partaidetza handiagoa izan dute guztirakoan; 2015ean % 6,03koa eta 2016an % 18,38koa; horrela, berreskuratu egin dira 2015aren aurreko mailak. Garrantziari dagokionez, haien atzetik datoz jasotako transferentziak, % 11,70eko partaidetzarekin; transferentzia arruntak izan dira nagusi, % 11,15eko partaidetzarekin, hau da, 2015eko ekitaldiarekin alderatuta % 23,57ko partaidetza txikiagoarekin. Bestalde, kapital-transferentziek % 0,55eko partaidetza izan dute; hots, 2015eko ekitaldiarekin alderatuta, % 1,93 handitu dira.

incrementan su participación en el total, pasando de un 6,03% en 2015 a un 18,38% en 2016, recuperando niveles de años anteriores a 2015. Le siguen en importancia las transferencias recibidas que participan con el 11,70%, destacando las transferencias corrientes, con una participación del 11,15%, lo que supone un descenso del 23,57% respecto al ejercicio 2015. Por el contrario, las transferencias de capital, con una participación del 0,55%, aumentan respecto al ejercicio 2015 un 1,93%.

Diru-sarrera propioen guztizkoa, 2016an, handitu egin da, 2015arekin alderatuta; aldakuntza positiboa izan da, 203,08 milioikoa, alegia, % 15,20ko gorakada.

El total de los ingresos propios en 2016, en términos absolutos, se incrementa respecto al 2015, con una variación positiva de 203,08 millones que representa un aumento del15,20%.

Zehazki, Transferentzia Arrunten IV. kapituluan, nabarmentzekoa da urte arteko eboluzio negatiboa; beherakada, guztira, 52,92 milioikoa izan da (% 23,57).

En particular, dentro del capítulo IV de Transferencias Corrientes, destaca la evolución interanual negativa con un descenso total de 52,92 millones, el23,57%.

Osagaien eboluzioa honako hau izan da:

La evolución de sus componentes es la siguiente:

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren transferentzietan eboluzio negatiboa eskuratu da urtetik urtera: 2015ean 80,80 milioi izatetik 2016an 67,39 milioi izatera pasatu da. Hori guztia Udalkutxaren azpikontzeptuagatik eta ekitaldi arrunteko likidazioagatik, 2015ean 75,53 milioi izatetik 2016an 61,81 milioi izatera pasatu baita.

- Las Transferencias del THB, se obtiene una evolución interanual negativa, pasando de 80,80 millones en 2015 a 67,39 millones en 2016, debido al subconcepto Udalkutxa, Liquidación del ejercicio corriente, que ha pasado de los 75,53 millones en 2015 millones a los 61,81millones en 2016.

- EAErekiko transferentzietan eboluzio negatiboa eskuratu da urtetik urtera: 2015ean 82,54 milioi izatetik 2016an 34,55 milioi izatera pasatu da.

- Las Transferencias con la CAPV, que presentan una evolución interanual negativa al pasar de 82,54 millones en 2015 a 34,55 millones en 2016.

- Beste transferentzia batzuetan eboluzioa positiboa izan da: 3,03 milioitik 3,52 milioi eurora igo da. Igoeraren funtsezko kausa "Enpresen Transferentziek" izandako gorakada izan da: 0,492 milioi gehiago.

- En Otras Transferencias la evolución es positiva, pasando de 3,03 millones a 3,52 millones de euros. La causa fundamental del incremento es el aumento experimentado por las "Transferencias de Empresas" con 0,492 millones más.

- Estatuarekiko transferentziak igo egin dira: 2015ean 50,44 milioitik 2016an 52,62 milioira igo da. Izan ere, aurreko ekitaldiko Kupoaren erregularizazioa 22,18 milioitik 22,68 milioira igaro da 2016an, eta aurreko ekitaldiko AMASerako Estatuaren Zuzkidurak likidatu dira (2,16 milioi).

- Las Transferencias con el Estado se incrementan pasando de 50,44 millones en 2015 a 52,62 millones en 2016, debido a que la regularización del Cupo del ejercicio anterior pasa de 22,18 millones a 22,68 en 2016 y a la liquidación del ejercicio anterior de las Dotaciones del Estado para el SAAD que suponen 2,16 millones .

- Nazioarteko erakundeen trasnferentziek eboluzio positiboa izan dute: 7,75 milioitik 13,57ra igaro dira 2016an, NBBEFren eta EGIFen bi azpikontzeptuetan izandako igoeraren ondorioz.

- Las Transferencias de Organismos Internacionales obtienen una evolución positiva, pasando de 7,75 millones a 13,57 millones de euros en 2016, debido al incremento en los dos subconceptos, Transferencias del FEOGA y de FSE.

Kapital-transferentziak direla eta, esan behar da igoera txikia izan dutela, 0,16 milioi eurokoak, eta 2015eko 8,2 milioitik 2016ko 8,4 milioira igaro direla, batik bat,

En lo que respecta a las Transferencias de Capital decir que han sufrido una ligero incremento de 0,16 millones de euros, pasando de 8,2 millones en 2015 a 8,4

BLHaren transferentzietan egon den igoeraren ondorioz (1,67 milioi gehiago eta % 666,65), zeinak konpentsatu egiten baitu nazioarteko erakundeen transferentzien beherakada (1,5 milioi gutxiago eta -% 21,50).

millones en 2016, derivado principalmente del aumento en las Transferencias del THB (1,67 millones más y 666,65%), que compensa el descenso en las Transferencias de Organismos Internacionales (1,5 millones menos y -21,50%).

Halaber, igoera txikia egon da Euskal Autonomia Erkidegoko kapital-transferentzietan eta enpresa eta familietatik datozenetan. Ordea, beherakada txikia egon da irabazi-asmorik gabeko erakundeen transferentzietan.

Se produce también un ligero aumento en las Transferencias de capital procedentes de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en las procedentes de las Empresas y las Familias. Por el contrario, se produce un ligero descenso en las Transferencias de Instituciones sin fines de lucro.

2016an Foru Aldundiaren gastua 7.168,07 milioi eurokoa izan da guztira. Bada, horren % 78,69 (5.640,32 milioi) erakundeen konpromisoei dagokie, % 17,07 (1.223,356 milioi) kudeaketa propioko gastuei eta gainerako % 4,25a kapital-gastuei. Datu horiek zenbateko garbiei dagozkie; izan ere, kontzeptu bakoitzari sartu beharreko likidazioak kendu dizkiogu, ekitaldiko sarreren aurrekontuari dagozkionak.

Una vez realizados los ajustes pertinentes en febrero de 2017, el resultado definitivo de las Aportaciones al Gobierno Vasco correspondientes al ejercicio 2016 ha sido de 4.438.518.701 euros.

43. taula / Cuadro nº 43
Eusko Jaurlaritzari eta Egokitzapen Funts Orokorrari ekarpenak. 2016ko likidazioa, Bizkaia (% 50,64)
Aportaciones al Gobierno Vasco y al Fondo General de Ajuste. Liquidación 2016 - Bizkaia (50,64%)

2016ko Ekarperen Likidazioa / Liquidación Aportaciones 2016	Behin-betiko Zenbatekoak Importes definitivos	Konturako ordainketak / Pagos a cuenta	2016ko doiketa Ajustes en 2016
Ekarpen orokorra / Aportación general	4.165.100.799	4.190.347.814	-25.247.015
Ekarpen zehatza Autonomia Erkidegoko Polizia/ Aportación específica Policía Autónoma	15.865.051	15.865.051	0
Ekarpen zehatza. HLO garapena/ Aportación específica. Desarrollo LOE	14.208.278	14.208.278	0
Konpetentzia berriak / Nuevas competencias.	222.399.997	222.399.997	0
Ezohiko programa. Abal publikoak/ Programa extraord. Avales públicos	5.577.955	2.581.010	2.996.945
2016ko Ekarpen guztira / Total Aportaciones 2016	4.423.152.080	4.445.402.150	-22.250.070
Egokitzapenerako Funts orokorreko likidazioa/ Liquidación Fondo General de Ajuste	15.690.762	12.427.737	3.263.025
2016ko ekarpen guztira + Beste Fondo Batzuk/ Total aportaciones 2016+ Fondo gral. Ajuste	4.438.842.842	4.457.829.887	-18.987.045
Inbertsio Funts Estrategikoen Likidazioa/ Liquidación Fondo de Inversiones Estratégicas	-160.283		-160.283
Kobraezineko abalak berreskuratzea eta 3R / Recuperación de avales fallidos y 3R	-137.039		-137.039
Formalizatutako abalengatiko komisioak /Comisiones por avales formalizados	-26.819		-26.819
Ekarpenak guztira+ bestelako ordainketak/kobrantzak / Total aportaciones+ otros pagos/cobros	4.438.518.701	4.457.829.887	-19.311.186

Eurotan/ Euros

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak finkatutako zenbatekoei hainbat doikuntza egin zaizkie, Bizkaiak egindako ekarpenen likidazioa egiteko eta behin betiko zenbatekoak finkatzeko.

Zehazki esateko, Ekarpenak Guztira gehi Beste Funts Batzuk zenbatekoa Bizkairako 2016an 4.438,52 milioikoa da, eta honela dago osatuta:

- Ekarpen orokorra 4.165 milioi eurokoa da, eta 4.190,35 milioi euro ordaindu ziren kontura. 2017ko otsailean egindako egokitzapenak emaitza negatiboa izan du 25.247.015 eurotan, hots, zenbateko hori kendu egin zen, kontuan egindako ordainketan behin betiko ekarpena baino gehiago izan zelako.

- Berariazko ekarpenak (Ertzaintza eta Hezkuntzari buruzko Legearen garapena), guztira 30,07 milioi euroko zenbatekora iritsi ziren.

- Berariazko beste ekarpen bat EAEri eskualdatutako eskumen berriak finantzatzeko, kupoaren atalean adierazitakoa, 2016. urtean ondorioak izango dituena dagozkion errege dekretuen bidez, 222,40 milioi euroko ekarpen zehatza sortuz.

A los importes marcados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas se les realiza una serie de ajustes para efectuar la liquidación de las aportaciones realizadas por Bizkaia y fijar los importes definitivos.

En concreto, el importe Total Aportaciones más Otros Fondos para Bizkaia en 2016 de 4.438,52 millones está compuesto por:

- La aportación general por un importe de 4.165 millones, con unos pagos a cuenta de 4.190,35 millones. El ajuste realizado en febrero de 2017 ha resultado negativo en 25.247.015 euros, es decir, se ha detraído la citada cantidad, ya que los pagos a cuenta fueron superiores a la aportación definitiva.

- Las aportaciones específicas (Policía autónoma y el Desarrollo de la Ley de Educación) que conjuntamente alcanzaron los 30,07 millones de euros.

- Otra aportación específica para la financiación de las nuevas competencias enunciadas en el apartado de cupo, traspasadas a la CAPV, mediante sus correspondientes Reales Decretos con efectos para el año 2016, generando una aportación concreta por importe de 222,40 millones de euros.

— 5,58 milioi euroko berariazko beste ekarpen bat, enpresak finantzatzeko abal publikoak emateko ohiz kanpoko programa egiteko asmoz Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez ezarri dena.

— Azkenik, 2016. urtean Doikuntzarako Funts Orokorrak 122 milioi euroko hornidura izan du behin-behinean. Hortik, Bizkaiak 12,43 milioi jarri ditu ekainean konturako ordainketa modura. Ekarpen horren likidazioa 2017ko otsailean egin da eta 3,26 milioi eurokoa izan da. Guztira, 2016rako, 15,69 milioiko kopurua atera da. Funts honetarako eta 2016 ekitaldirako zenbateko osoa 103, 4 milioikoa izan da. Bere egunean funts hori hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ezarri zuten, hiru lurralde historikoetatik baten batean gerta daitezkeen diru bilketako desorekei aurre egite aldera.

— Aipatu behar da 2016an abalak, eta Inbertsio Estrategikoen Funtsek egokitzapen negatiboak eman dituztela (zenbateko globala: -324.141 euro).

Foru Aldundien ekarpena egiteko Eusko Jaurlaritzari urteko sei transferentzia egiten zaizkio ekitaldi bakoitzean eta zenbatekoa Foru Aldundien artean banatuz aipatutako ekitaldi bakoitzean indarrean dauden koefiziente horizontalen arabera.

Amaitzeko, adierazi behar da koefiziente horizontalak kupoari eta ekarpenei dagozkien kargak hiru foru aldundien artean banatzeko erabiltzen diren portzentajeak direla, eta Ekarpenei buruzko legeetan adierazitako metodologiari jarraituta finkatzen direla.

Honako hauetan aplikatzen dira:

- Kupoan, ekitaldian benetan ordaindutako zenbatekoaren gainean, hau da, ekitaldiko kupo likidoaren baturaren gainean eta aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioaren gainean.

- Ekarpenetan, EAEn lortutako baliabide guztiei koefiziente bertikala aplikatuta lortzen diren balioen gainean.

— Una nueva aportación específica que se establece mediante acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas para la realización de un programa extraordinario de concesión de avales públicos para la financiación empresarial por importe de 5,58 millones de euros.

— Por último, en 2016 se dota provisionalmente el Fondo General de Ajuste por un importe total de 122 millones de euros, de los cuales Bizkaia ha aportado 12,43 millones en junio en concepto de pago a cuenta, practicándose la liquidación de dicha aportación en febrero de 2017 por importe de 3,26 millones resultando un total para 2016 de 15,69 millones. El importe final de este Fondo para el ejercicio 2016 ha sido de 103, 4 millones. En su día fue establecido entre las tres Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco para hacer frente a los desequilibrios que se puedan producir en la recaudación de alguno de los tres Territorios Históricos.

— Mencionar que en 2016 los avales y el Fondo de Inversiones Estratégicas (FIE), han supuesto unos ajustes negativos por un importe global de -324.141 euros.

La contribución de las Diputaciones Forales se hace efectiva mediante seis transferencias anuales al Gobierno Vasco en cada ejercicio, y distribuyéndose dicho importe entre las Diputaciones Forales en función de sus coeficientes horizontales vigentes en cada uno de los ejercicios señalados.


Por último, señalar que los coeficientes horizontales que son los porcentajes utilizados para repartir las cargas correspondientes al cupo y a las aportaciones entre las tres Diputaciones Forales, se fijan siguiendo la metodología recogida en las Leyes de Aportaciones.

Su aplicación se realiza en:

- El cupo, sobre la cuantía realmente pagada en el ejercicio, es decir, sobre la suma del cupo líquido del ejercicio y sobre la liquidación del cupo de ejercicio anterior.

- Las aportaciones, sobre los valores obtenidos una vez aplicado el coeficiente vertical sobre el total de los recursos obtenidos en la CAPV.


Ekarpenak eta kupoa, 2014-2016 aldia
Aportaciones y cupo período 2014-2016



Azken batean, kupoaren eta ekarpenen batuketa Bizkaian 4.796,58 milioi eurokoa izan da 2016an, eta % 2,84 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Hazkunde hori ekarpenen zenbatekoa % 3,74 igo delako eta Estatuari ordaindutako zenbatekoa % 7,24 jaitsi delako gertatu da.

En definitiva, la suma de Cupo y Aportaciones de Bizkaia en 2016 que se eleva a 4.796,58 millones de euros, presenta un incremento del 2,84% en relación al ejercicio anterior, derivado de un aumento del 3,74% en el importe de las aportaciones y de una disminución de 7,24% en el importe del cupo pagado al Estado.

Ordainketen laburpena, kupoen eta ekarpenen araberakoa. 2016ko ekitaldia
Resumen de pagos por cupo y aportaciones. Ejercicio 2016



foru auzitegi ekonomiko-administratiboa eta lege aholkularitza

tribunal económico-administrativo foral y asesoría jurídica

Capítulo IV

IV.1. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico-Administrativo Foral

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa da (hemendik aurrera FAEA) Bizkaiko Foru Ogasunak emandako zerga zehapenen ezarpena eta zergak aplikatzeko egintzak berrikusten dituen organoa, azken auzialdian eta doako prozedura baten bidez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen bilketa ere, besteak beste tasa edo ordainarazpen parafiskalak.

El Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia (TEAF) es el órgano que, en única instancia y mediante un procedimiento gratuito, ejerce la función revisora de los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones tributarias dictadas por la Hacienda Foral de Bizkaia, así como los de recaudación de otros ingresos de derecho público, tales como tasas o exacciones parafiscales, de la DFB.


Beheko taulan ageri dira 2016ko ekitaldian jarri diren eta FAEAk ebatzi dituen administrazioarekiko diru-erreklamazioak:

Las reclamaciones económico-administrativas interpuestas y resueltas por el TEAF durante el ejercicio 2016 figuran en la siguiente tabla:

44. taula / Cuadro nº 44
Administrazioarekiko diru-erreklamazioak zerga-kontzeptuka 2016an: jarritakoak, ebatzitakoak eta ebazteko daudenak
Reclamaciones económico-administratvias interpuestas, resueltas y pendientes por concepto tributario en 2016

Kontzeptua Concepto	Ordaintzeko hasierakoa Pendiente Inicial calculado	Aurkeztu direnak Interpuestas	Ebatzi direnak Resueltas	Ordaintzeko amaierakoa Pendiente final
P.F.E.Z. kuota diferentziala (ikuskapen-akten emaitzakoak barne) I.R.P.F. Cuota diferencial (incl.las derivadas de Actas Inspección)	552	561	595	518
P.F.E.Z. atxikipenak eta ordainketa zatikatuak I.R.P.F. Retenciones y pagos fraccionados	20	7	13	14
Sozietateen gaineko Zerga / Impuesto sobre sociedades	105	94	73	126
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga Impuesto sucesiones y donaciones	10	28	15	23
Ondarearen gaineko zerga/ Impuesto sobre el Patrimonio	11	15	8	18
Zuzeneko zergak guztira / Total Impuestos directos	698	705	704	699
Ondare eskualdaketa eta EJDen gaineko Zerga Impuesto transmisiones patrimoniales y A.J.D.	45	226	152	119
B.E.Z. / I.V.A.	89	225	139	175
Garraiabide jakin batzuen gaineko zerga berezia Impuesto especial s/determinados medios transporte	4	9	7	6
Fabrikazioaren gaineko zerga-bereziak Impuestos especiales de Fabricación	7	9	12	4
Hidrokarburo txikitazko salmenta zerga Impuesto venta minorista determinados hidrocarburos	3	15	8	10
Zeharkako zergak guztira / Total Impuestos Indirectos	148	484	318	314
Hiri kontribuzioa eta Hondasun Higiezinen gaineko Zerga Contribución urbana e Impuesto bienes inmuebles	19	83	22	80
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga Impuesto sobre actividades económicas	27	28	29	26
Toki zergak guztira / Total Tributos Locales	46	111	51	106
Bilketaren kudeaketa / Gestión recaudatoria	101	119	118	102
Tasa eta salbuespen parafiskalak Tasas y exacciones parafiscales	9	11	10	10
Eratzunkizuna eskuordetzea/ Derivación de responsabilidad	74	40	66	48
Bestelakoak / Varios	1	8	7	2
Guztira beste kontzeptu batzuk / Total otros conceptos	186	178	201	163
Guztira / Total	1.078	1.478	1.274	1.282

Administrazioarekiko diru-erreklamazioak 2016an
Reclamaciones económico-administrativas en 2016



Erantsitako taulan eta grafikoan ikusten den moduan, 2016an 1.478 erreklamazio jarri dira; aurreko urtekoen aldean igoera izan da, %9,89 gehiago baitira. Izan ere, aurreko urtean 1.345 erreklamazio aurkeztu ziren. Aurreko urtean beherakada handia (%21,53koa) izan ondoren gertatu da igoera hori; zifra, hala ere, azken urteotan jarritako proposamenen ohiko kopurutik urrun dago, urtean 1.700 erreklamazio inguru jarri izan baitira.

Esan beharra dago, hori dela eta, eraginkortasunez kudeatu daitekeelako egokitzat jotzen den aurkezpen kopurua hauxe dela: urtean 1.500 bat erreklamazio.

Zeharkako zergek izandako gorakada nabarmendu behar da: aurreko urtean 244 erreklamazio izan ziren, eta 2016an, berriz, 484 izan dira, %98,36 gehiago. Gainera, toki zergei buruzko erreklamazioak apur bat ugaritu dira, hiri-ondasun higiezinen katastroa dela-eta.

Zuzeneko zergetan, berriz, 137 erreklamazio gutxiago jarri dira aurreko urtean baino, hau da, %16,27ko beherakada izan da.

2016ko ekitaldian aurkeztutako erreklamazioak honela banatuta daude:

- Zuzeneko zergak: % 47,70.
- Zeharkako zergak: % 32,75.
- Toki zergak eta beste kontzeptu batzuk: % 19,55.

Aurkeztutako erreklamazioen kopuruaren igoerak eragina izan du erreklamazioen banaketan, izan ere, zeharkako zergei dagokien partea handitu egin baita, zuzeneko zergen kaltetan, eta tokiko zergen eta beste kontzeptu batzuen

Tal como se aprecia en la tabla y en el gráfico adjunto, durante el año 2016 el número de reclamaciones interpuestas asciende a 1.478 lo que supone un ascenso del 9,89% respecto a las 1.345 presentadas el año anterior. Este ascenso se produce después del fuerte descenso registrado en el año anterior (un 21,53%), pero la cifra se mantiene lejana del número habitual de propuestas interpuestas en los últimos años que se encontraba en torno a las 1.700 reclamaciones anuales.

Hay que decir a este respecto que la cifra de presentaciones buscada, porque puede gestionarse con eficacia, es de unas 1.500 reclamaciones anuales.

Cabe destacar, el aumento experimentado en los impuestos indirectos que frente a las 244 reclamaciones del año anterior suman, en 2016, 484, un 98,36% más y un leve repunte en las referidas a Tributos Locales por cuestiones relativas al Catastro Urbano

Por el contrario, en los impuestos directos se produce una disminución de 137 reclamaciones respecto al año anterior, lo que supone una disminución del 16,27%.

Las reclamaciones interpuestas en el ejercicio 2016 presentan la siguiente distribución:

- Impuestos directos: 47,70%.
- Impuestos indirectos: 32,75%.
- Tributos locales y Otros conceptos: 19,55%.

El aumento en el número de reclamaciones interpuestas ha incidido en la distribución de las mismas ya que la participación de los tributos indirectos aumenta en detrimento de los tributos directos, mientras que permanece

parteak egonkor iraun baitu.

Zeharkako zergen artean, ohi den bezala, BEZa da erreklamazio gehien eragin duena, nahiz eta, ekitaldi honetan, OEEJDZren zifra ere garrantzitsua izan den. 2016an 225 erreklamazio jarri ziren BEZa zela-eta (2015ean baino %40,63 gehiago), eta 226 erreklamazio OEEJDZ zela-eta (%248ko gehikuntza).

Era berean zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga dela-eta (dagoeneko desagertu da) jarritako erreklamazioen kopuruak gora egin du (%400), bai eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari buruzko erreklamazioenak ere (%125); baina azken bi kasu horietan igoerak oso eragin txikia izan du zeharkako zergen guztizkoan. Aldiz, behera egin du (% 25) fabrikazioaren gaineko zerga bereziei dagozkien erreklamazioen kopuruak.

Zuzeneko zergen barruan, PFEZaren kasuan (kuota diferentziala), jarritako erreklamazioen kopuruak % 17,13 egin du behera. Halaber jaitsiera izan da PFEZaren atxikipen eta zatikako ordainketetan (% 63,16) eta sozietateen gaineko zergan (% 18,26). Igoera izan da, aldiz, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan (% 40) eta ondarearen gaineko zergan (% 36,36).

Zerga-bilketaren kudeaketarekin zerikusia duten erreklamazioen kopurua 2016. urtean % 11,9 jaitsi da. Horrelako erreklamazioak 119 izan dira.

Tasa eta ordainarazpen parafiskalei buruzko erreklamazioak 11 izan dira; 2015ean kontzeptu horrengatik 9 erreklamazio jarri ziren.

2016an ebatzitako erreklamazioei dagokienez, 1.274 izan dira, aurreikusi baino gehiago, nahiz eta 2015ean baino 241 gutxiago izan diren. Erreklamazioen kalitate politikan ezarritako helburuak bete dira; horien artean azpimarratzekoa da administrazioarekiko diru-erreklamazioak ebaztea aurkezten diren egunetik urtebete igaro baino lehen.

Hala, ezarritako kalitate-helburuetan oinarrituta, aurreko urteetan aurkeztutako erreklamazioen ugaritzeak berekin ekarri du FAEAk ebazteko behar izan duen denbora urte horretan batez beste 362 egun izatea, oraindik ere zentzuzko parametroen barrukoa.

Ebatzitako erreklamazio horiek honako proportzio honetan banatzen dira:

- Zuzeneko zergak: % 55,26
- Zeharkako zergak: % 24,96.
- Toki zergak eta beste kontzeptu batzuk: % 19,78.

2016ko ekitaldian, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan ebazteke egon diren erreklamazioen kopurua handitu egin da. Izan ere, 2015. urtearen amaieran 1. 078 erreklamazio izan ziren, eta, 2016ko abenduaren

estable la participación de los tributos locales y otros conceptos.

Dentro de los impuestos indirectos, como habitualmente ocurre, es en el IVA donde más reclamaciones se interponen, aunque, en este ejercicio, también en el ITP y AJD la cifra es importante. En 2016, se alcanzan las 225 reclamaciones en el IVA (con un aumento del 40,63% respecto al 2015), y las 226 en el ITP y AJD (que en este caso supone un incremento del 248%).

También se produce aumento en las reclamaciones acerca del desaparecido Impuesto venta minorista determinados hidrocarburos (400%) y el Impuesto especial sobre determinados medios de transporte (125%), aunque en estos dos últimos casos la importancia relativa en el total de los impuestos indirectos es mínima. Por el contrario, bajan las reclamaciones que afectan a los Impuestos Especiales de Fabricación (25%).

Dentro de los tributos directos, en el caso del IRPF (Cuota Diferencial) han disminuido un 17,13% las reclamaciones interpuestas. También se ha producido una disminución en el I.R.P.F. Retenciones y pagos fraccionados (63.16%) y en el Impuesto sobre sociedades (18.26%). En cambio, se produce un aumento en el Impuesto de Sucesiones y Donaciones (40%) y en el Impuesto sobre el Patrimonio (36.36%).

Las reclamaciones sobre aspectos de la gestión recaudatoria de los diferentes tributos, en el año 2016 disminuyen un 11,19% hasta la cifra de 119.

Las reclamaciones sobre Tasas y Exacciones parafiscales alcanzan la cifra de 11, frente a las 9 reclamaciones interpuestas en 2015 por este concepto.

En cuanto a las reclamaciones resueltas durante 2016, han sido 1.274, cifra por encima de lo previsto pese a suponer 241 menos que en 2015. Se han cumplido los objetivos marcados en su política de calidad, entre los que cabe destacar la resolución de las reclamaciones económico administrativas en un periodo inferior a un año desde la fecha de presentación.

Así, en base a los objetivos de calidad establecidos, el aumento de reclamaciones presentadas en años precedentes ha supuesto que el tiempo medio de resolución del TEAF haya sido en este año de 362 días, manteniéndose todavía en parámetros razonables.

Dichas reclamaciones resueltas se distribuyen en la proporción siguiente:

- Impuestos directos: 55,26%
- Impuestos indirectos: 24,96%.
- Tributos locales y Otros conceptos: 19,78%.

Durante el ejercicio 2016 el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia ha visto aumentado el número de reclamaciones pendientes desde las 1. 078 con las que terminó el año 2015 hasta las 1. 282 a 31 de

31n, berriz, 1. 282 ziren.

Honela banatzen da ebazteke geratu diren erreklamazioen kopurua:

- Zuzeneko zergak: % 54,52.
- Zeharkako zergak: % 24,49.
- Toki zergak eta beste kontzeptu batzuk: % 20,98.

Banaketa horrek adierazten digu, aurreko urtearen aldean, ebazteko dauden erreklamazioen guztizko kopuruan zeharkako zergek hartzen duten zatia nabarmen handiagoa dela, ekitaldian asko ugaritu direlako horrelako erreklamazioak.

Azken urteotan izandako bilakaerari dagokionez, 2016an erreklamazio gehiago jarri dira, 2013., 2014. eta 2015. urteetan etendako goranzko eboluzioa berriro agertu baita. Urte horietan behera egin zuen erreklamazioen kopuruak. Hazkunde horri ez zaio gehitu urtean ebatzitako erreklamazioen kopuruaren igoerarik, uste baino erreklamazio gehiago ebatzi diren arren. Hori dela eta, hazkunde garrantzitsua gertatu da ebazteke dauden erreklamazioetan, grafikoan ikusten den moduan.

diciembre de 2016.

El reparto del volumen de reclamaciones pendientes es el siguiente:

- Impuestos directos: 54,52%.
- Impuestos indirectos: 24,49%.
- Tributos locales y Otros conceptos: 20,98%.

Esta distribución nos indica, con respecto al año anterior, un sustancial ascenso en la participación de los tributos indirectos en el total de reclamaciones pendientes debido al fuerte ascenso de las interpuestas en el ejercicio.

En cuanto a la evolución a lo largo de los últimos años, en el 2016 se produce un aumento de las reclamaciones interpuestas, recuperando la evolución al alza que se vió interrumpida en los años 2013, 2014 y 2015, cuando se produjo una disminución de las mismas. Este aumento no ha ido acompañado de un aumento en el número de reclamaciones resueltas al año, a pesar de resolver más de lo previsto. Por ello, se produce un aumento significativo en las reclamaciones pendientes, tal como se observa en el siguiente gráfico.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioen bilakaera
Evolución de las reclamaciones económico-administrativas



Zerga-kontzeptuka, pertsona fisikoen gaineko zergaren kuota diferentzialari dagozkio jarritako erreklamazioen % 37,96 eta ebatzitakoen % 46,70; eta balio erantsiaren gaineko zergari dagozkio jarritakoen % 15,22 eta ebatzitakoen % 10,91.

Por conceptos tributarios, corresponde a la Cuota Diferencial del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas el 37,96% de las interpuestas, y el 46,70% de las resueltas; y al Impuesto sobre el Valor Añadido, el 15,22% de las interpuestas, y el 10,91% de las resueltas.

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, ehuneko horiek % 6,36 eta % 5,73 izan dira, hurrenez hurren.

En el caso del Impuestos Sobre Sociedades, estos porcentajes han sido del 6,36%, y 5,73%, respectivamente.

Zerga-bilketaren kudeaketarekin loturiko gaien inguruko administrazioarekiko diru-erreklamazioak multzokatzen badira, bakoitzari dagokion zerga-figura kontuan hartu gabe, horiek, 2016ko ekitaldian, jarritako eta ebatzitako erreklamazio guztien % 8,05 eta % 9,26 izan ziren, hurrenez hurren.

Si se agrupan aquellas Reclamaciones económico – administrativas relativas a asuntos relacionados con la gestión recaudatoria, con independencia de la figura tributaria relacionada con las mismas, éstas, en el ejercicio 2016, supusieron el 8,05% y el 9,26% del total de interpuestas y resueltas, respectivamente.

Ekitaldian jarri diren erreklamazioak eta urte hasieran ebazteke zeuden erreklamazioak batu, eta horietatik guztietatik ehuneko zenbat ebatzi diren aztertuta, zerga-kontzeptuka, emaitza hauek lortzen ditugu:

Si analizamos el porcentaje de reclamaciones resueltas sobre interpuestas más pendientes al inicio del año, para los distintos conceptos tributarios se obtienen los siguientes resultados:


- ⇒ PFEZean % 53,46 ebatzi dira.
- ⇒ Sozietateen gaineko zergan, % 36,68.
- ⇒ BEZean, portzentajea % 44,27 izan da.
- ⇒ Toki zergetan erreklamazioen % 32,48 ebatzi dira.
- ⇒ Beste kontzeptu batzuetan, ebatzitakoen ehunekoa % 55,22 izan da.

- ⇒ En IRPF, se han resuelto el 53,46% de las existentes.
- ⇒ En Impuesto sobre Sociedades, el 36,68%.
- ⇒ En IVA, este porcentaje ha sido del 44,27%.
- ⇒ En Tributos Locales se han resuelto el 32,48%.
- ⇒ En Otros conceptos el porcentaje de resueltas ha sido del 55,22%.

Beheko grafikoan, jarritako administrazioarekiko diru-erreklamazioen, ebatzitakoen eta ebazteke daudenen banaketa ikus daiteke zerga-kontzeptuka.

En el gráfico siguiente se puede observar la distribución de las reclamaciones económico-administrativas interpuestas, resueltas y pendientes por concepto tributario.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioak zerga-kontzeptuka: jarritakoak, ebatzitakoak eta ebazteko daudenak
Reclamaciones económico-administrativas interpuestas, resueltas y pendientes por concepto tributario



Ebazteko dauden erreklamazioen banaketa honako hau da zerga-kontzeptuka:

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkio ebazteko dauden erreklamazio guztien % 40,41.
- Gainerako zuzeneko zergetan, ebazteke dauden erreklamazioak % 14,12 dira.
- Zeharkako zergetan % 24,49 izan dira, 2015ean baino gehiago. Zehazki, BEZarekin zerikusia duten eta ebatzi gabe geratu diren erreklamazioak guztizko kopuruaren % 13,65 izan dira.
- Azkenik, gainerakoei, hau da, hiri lurren kontribuzioari, OHZri, JEZari, tasa eta ordainarazpen parafiskalei, erantzukizunaren bideratzeari eta zerga-bilketaren kudeaketarekin loturikoei dagokie gainerako % 20,98a.

La distribución de las reclamaciones pendientes por conceptos tributarios es la siguiente:

- El Impuesto de la Renta de las Personas Físicas representa 40,41% del total de reclamaciones pendientes.
- Para el resto de Impuestos Directos el porcentaje de pendientes es del 14,12% del total.
- Los Impuestos Indirectos representan un 24,49%, cifra superior respecto a 2015. En concreto, las reclamaciones pendientes relacionadas con IVA suponen el 13,65% del total.
- Por último, el resto, es decir, Cont. Urbana, IBI, IAE, Tasas y Exacciones parafiscales, la derivación de responsabilidad y las relacionadas con Gestión recaudatoria representan el 20,98% restante.

Beraz, 2015eko ekitaldiarekin alderatuta 2016. urteko bilakaera aztertzean, bi ekitaldien amaieran ikusten da nola, ebazteke dauden erreklamazioei erreparatuta, guztira 204 espediente gehiago dauden. Hori horrela izan da erreklamazio gehiago jarri direlako (% 9,89 gehiago), batetik, eta erreklamazio gutxiago (% 15,91 gutxiago) ebatzi direlako, bestetik.

Por tanto, al analizar la evolución del 2016 respecto al ejercicio 2015 a la finalización de ambos ejercicios, se observa que para las reclamaciones pendientes se ha producido un aumento en el total de las mismas de 204 expedientes. Ello es debido tanto al aumento producido en el número de reclamaciones interpuestas (9,89 %) como a la disminución en el número de reclamaciones resueltas (15,91%).

Hala, 2016an ugaritu egin dira zeharkako zergei eta toki zergei buruzko erreklamazioak, eta jaitsi egin da beste kontzeptu batzuk zirela-eta ebazteke egon diren espedienteen kopurua. Zuzeneko zergen arloan ebatzi gabe egon diren erreklamazioen kopuruan ez da aldaketarik egon.

Así, en 2016 aumentan las reclamaciones pendientes referidas a los Impuestos Indirectos y Tributos Locales, mientras que disminuye el número de expedientes pendientes de resolución en Otros conceptos. Las reclamaciones pendientes en Impuestos Directos se mantienen sin variaciones.

Zuzeneko zergek egonkor iraun dute aurreko urteko aldean, atal horren barruko kontzeptuetan goranzko eta beheranzko aldakuntzak gertatu direlako aldi berean. Hala, PFEZean (kuota diferentziala) eta PFEZaren atxikipen eta zatikako ordainketetan jaitsiera gertatu da, baina igoerak izan dira sozietateen gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan eta ondarearen gaineko zergan.

Los Impuestos Directos se mantienen estables respecto al año anterior debido a que se han producido, indistintamente, variaciones al alza y a la baja en los distintos conceptos dentro de este apartado. Así, se ha producido descenso en el IRPF (Cuota Diferencial) e I.R.P.F. Retenciones y pagos fraccionados y, sin embargo, aumentos en el Impuesto sobre Sociedades, Impuesto Sucesiones y Donaciones e Impuesto sobre el Patrimonio.

Zeharkako zergetan gorakada handia izan dute BEZari, OEEJDZri eta zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zergari buruzko erreklamazio ebatzi gabekoek, kontzeptu horiengatik jarritako erreklamazioen kopurua asko hazi delako.

En los Impuestos Indirectos se ha producido un fuerte ascenso de las reclamaciones pendientes relativas a IVA, ITP y AJD e Impuesto venta minorista determinados hidrocarburos, debido al importante aumento de las reclamaciones interpuestas por estos conceptos.

Beste kontzeptu batzuen atalaren barruan, aipatzekoa da "Erantzukizuna bideratzea" kontzeptuan izandako jaitsiera.

Dentro del apartado de Otros conceptos, cabe reseñar la disminución en el concepto Derivación de responsabilidad.

45. taula / Cuadro nº 45

Administrazioarekiko diru-erreklamazio ebatzi gabeen xehetasunak
Detalle de las reclamaciones económico –administrativas pendientes

Kontzeptua / Concepto	Ebatzi gabeko erreklamazioak Reclamaciones pendientes			Guztirakoan parte hartzearen % Participación en el total
	Zerga kontzeptuengatik Por conceptos tributarios	Zergabilketarenkontzeptuengatik Por conceptos de gestión recaudatoria	Guztira Total	
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (Diferentziazko kuota, ikuskapen, aktak, atx. eta zat. Ond.) Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (Cuota Diferencial, Actas de Inspección)	518	29	547	42,67
Zuzeneko gainerako ZergaK (Atx. eta zat.ond.Ondarea, Sozietateak, Oinordetzak eta Dohaintzak) Resto de Impuestos Directos (Ret. y pagos fracc., Patrimonio, Socied. Suces. y Donaciones)	181	20	201	15,68
Zeharkako Zergak Impuestos Indirectos	314	8	322	25,12
Hiril. Kont., OHZ, EJZ, JOK.Tasak eta Ordain. Parafisk. Cont. Urbana, IBI, IAE, Tasa Juego,Tasas y Exacc. Parafisc.	167	45	212	16,54
Guztira / Total	1.180	102	1.282	100

Bizkaiko FAEAren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkezteari dagokionez, horrelako 188 errekurtso jarri dira EAEko Auzitegi Nagusian; igoera txikia gertatu da, beraz, aurreko urtean aurkeztutako 181 errekurtsoen aldean, aurreko hiru urteetan izandako beheranzko joerari

En lo que se refiere a la presentación de Recursos Contencioso-Administrativos impugnatorios de las resoluciones del TEAF de Bizkaia, se han interpuesto 188 ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, lo que implica un leve ascenso respecto a los 181 recursos presentados en el año anterior, rompiendo la tendencia

buelta emanez, baina oraindik urrun daude garai batean jartzen ziren 210 errekurtso haiek.

Horrek esan nahi du erreklamatzaileek Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak emandako ebazpenekiko duten onarpen maila % 85,24koa dela, eta administrazioarekiko auzien bidera jotzen dutenak % 14,76 direla.

Teknologia berrien atalean, 2013an aplikazio berri bat erabiltzen hasi ondoren, aplikazio horren funtzionamendua erabat sendotu da, Bizkaibairako sarbidea duten zergadunek bide telematikotik kontsultatu ahal izan dezaten euren administrazioarekiko diru-erreklamazioen izapideen egoera eta telematikoki aurkeztutako idatzi eta agirien kopiak eskuratu ahal ditzaten.

descendente que se había producido en los tres años anteriores pero manteniéndose lejos de los 210 recursos que se venían interponiendo anteriormente.

Esto implica que el grado de aceptación por los reclamantes de las resoluciones emitidas por el Tribunal Económico Administrativo Foral se sitúa en un 85,24%, siendo el 14,76% el que recurre en vía contencioso-administrativa.

En el apartado de las nuevas tecnologías, tras la puesta en funcionamiento de la aplicación en el 2013, se haya plenamente consolidado su funcionamiento para que los contribuyentes con acceso a Bizkaibai puedan consultar de forma telemática el estado en el que se encuentra la tramitación de sus reclamaciones económico-administrativas y pueden obtener copias de los escritos y documentación presentada de forma telemática.

IV.2 Lege Aholkularitzaren estatistikak
Estadísticas de la Asesoría Jurídica


Ogasun eta Finantza Saileko Lege Aholkularitzako Zerbitzuaren kudeaketa, hein handi batean, txosten juridikoak egitean datza, hainbat gairi buruz. Horrez gain, justizia epaitegien edo botere legegileari loturiko beste egintza batzuk egiteaz ere arduratzen da.

La gestión del Servicio de Asesoría Jurídica de Hacienda y Finanzas se centra en gran parte en la elaboración de informes jurídicos sobre diversas materias y en otra serie de actuaciones relacionadas con los tribunales de justicia o el poder legislativo.

Jarduketa horiek grafiko honetan zehatz irudikatu dira:

El detalle de estas actuaciones se representa en el siguiente gráfico:

Hainbat gairi buruzko txostenak
Informes sobre diversas materias



2016ko ekitaldian 399 txosten egin dira, aurreko ekitaldian egindakoak baino gutxiago. Horrenbestez, % 45,64ko beherakada izan da.

En el ejercicio 2016 se han realizado 399 informes, cifra inferior a los realizados en el ejercicio anterior. Ello ha supuesto una disminución del 45,64%.

Gainera, Lege Aholkularitzari esleitutako beste eskumen batzuekin zerikusia duten 631 jarduketa egin dira, tartean Foru Ogasuna arlo zibileko edo penaleko auzitegietan ordezkatzearekin zerikusia dutenak. Horrenbestez, % 11,3ko gehikuntza egon da.

Además, se han llevado a cabo 631 actuaciones relacionadas con otras competencias atribuidas a la Asesoría Jurídica, entre las que se encuentran aquellas relacionadas con la representación de la Hacienda Foral ante los tribunales civiles o penales. Esto ha supuesto un aumento del 11,3%.

Ogasun eta Finantza Saileko organoen eskariz emandako txostenak jaso dira; Zerga-bilketako Zerbitzua da eskatzailerik ohikoena.

Se incluyen los informes emitidos a solicitud de los diferentes órganos del Departamento de Hacienda y Finanzas siendo el más habitual el servicio de Recaudación.

Txosten horien beharra dago zenbait prozedura izapidetzeko, hala nola:

1. Ordainketak geroratzeko edo eteteko bermeen askiespena.
2. Jabariko eta eskubide hobeko hirugarrengotzak.
3. Ondasunak enkantean adjudikatu aurreko txostenak.
4. Hildakoen zerga-datuak eskuratzeko baimenak.

Ordainketak geroratzeko bermeak askiesteko emandako txostenak 268 izan baitira ekitaldi honetan, eta kopuru handiagatik nabarmendu behar dira.

Araudiak dioenez, berme guztiak (abalak barne) Lege Aholkularitzako Zerbitzutik igaro behar dira, eta zerbitzu horrek txostena egiten du, ikuspuntu ekonomikotik eta juridikotik bermea nahikoa den ala ez zehazteko.

Jabariko eta eskubide hobeko hirugarrengotzei buruzko 19 txostenetan, Zerga-bilketako Zerbitzuak txostena egiteko eskatu dio Lege Aholkularitzari espedienteak ebatzi ahal izateko, jada enbargatuta zegoen eta zergadunaren jabetzakoa ez zen ondasunen bat enbargatu denean.

Bestalde, legeak ezartzen du ondasun bat enkantean adjudikatu baino lehenago Lege Aholkularitzak txostena egin behar duela, adjudikazio prozedura osoa legeari jarraituz egin dela ziurtatzeko. 2016rako Askotarikoak atalean gai honen gainean bidalitako 67 txostenak gehitu dira.

Ekitaldi honetan ez da ondare erantzukizunari buruzko txosten batik egin.

Hilda edo desgaituta dauden pertsonen zerga arloko datuak eskuratzeari dagokionez, Lege Aholkularitzaren ardura da txostena egitea, hildakoak zer ondasun eta errenta zituen jakin nahi duten jaraunsleei datuak jakinarazteko baimena emate aldera. Horrelako 11 txosten egin dira 2016ko ekitaldian.

Horrez gain, legezkotasunari buruzko 34 txosten eman dira, foru arauen eta foru dekretuen aurreproiektuei derrigor erantsi behar zaizkienak.

Estos informes se requieren para la tramitación de ciertos procedimientos, a saber:

1. Bastanteo de las garantías para aplazamientos o suspensiones de pago.
2. Sobre tercerías de dominio y mejor derecho.
3. Informes previos a adjudicaciones de bienes por subasta.
4. Autorizaciones de acceso a datos tributarios de personas fallecidas.

Destacan por su importancia numérica, los emitidos por suficiencia de garantías en aplazamientos de pago, 268 en este ejercicio.

La normativa específica que toda garantía (incluido los avales) debe pasar por el Servicio de Asesoría Jurídica quien elaborará el correspondiente informe para valorar si la garantía es suficiente tanto desde el punto de vista económico como jurídico.

En los 19 informes relativos a Tercerías de dominio y mejor derecho, el servicio de Recaudación solicita a la Asesoría Jurídica la emisión de un informe que permita resolver un expediente cuyo embargo se ha realizado sobre un bien ya embargado o que no es propiedad del contribuyente en cuestión.


Por otro lado, la ley establece que antes de adjudicar un bien en subasta la Asesoría Jurídica ha de realizar un informe que certifique que todo el procedimiento de adjudicación se ha realizado de acuerdo con la ley. En el apartado de Varios para 2016 se han incluido los 67 informes emitidos relativos a esta materia.

En este ejercicio no se ha emitido ningún informe relativo a responsabilidad patrimonial.

Respecto al acceso a datos tributarios de personas fallecidas o incapacitadas, la Asesoría Jurídica es la encargada de realizar un informe autorizando la comunicación de los datos a los herederos que quieren conocer las propiedades y las rentas del fallecido. En el ejercicio 2016 se han emitido 11 de estos informes.

Además, se han emitido 34 informes de legalidad que preceptivamente deben acompañar a los anteproyectos de Norma Foral y proyecto de Decreto Foral.

Beste jarduketa batzuk
Otras actuaciones



Ordainketen geroratze edo zatikatzeengatik esan den moduan, Lege Aholkularitzak balorazio txostena egin behar die zerga-zorren ordainketaren mota guztietako bermeei, baita abalei ere. Abalen askiespena deitzen zaio horri, eta 2016ko ekitaldian 115 aldiz egin da.

Era berean, botereak eta nortasuna egiaztatzeko bestelako dokumentuak askiesteko ardura dauka. 2016. urtean 291 administrazio-egintza egin dira.

Askieste honen bidez ordezkaritzak eta ahalordeak, pertsona fisiko zein juridikoenak, egiaztatzen dira.

2016. ekitaldian Lege Aholkularitza Zerbitzuak, epaitegi eta auzitegien aurrean, 178 egintza izan ditu. Honako honetan aritu da batez ere:

- Prozedura zibilak: 166 lehiaketa berrira joan dira.
- Prozedura judizialak: Ogasun Publikoaren aurkako delituentzako Batzordeak izapidetu ditu, eta Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzaren laguntzarekin 12

Al igual que lo dicho para los aplazamientos o fraccionamientos del pago, la Asesoría Jurídica debe elaborar un informe de valoración de todo tipo de garantías del pago de las deudas tributarias, incluidos los avales. Es lo que se denomina bastanteo de avales que para el ejercicio 2016 se ha efectuado en 115 ocasiones.

Igualmente, tiene encomendado el bastanteo de poderes y demás documentos de acreditación de personalidad que en el año 2016 se han plasmado en 291 actos administrativos.

Con este bastanteo se comprueban las representaciones y apoderamientos tanto de personas físicas como jurídicas.

En el ejercicio 2016, las actuaciones del Servicio de Asesoría Jurídica ante Juzgados y Tribunales, se han cuantificado en 178, centrando su actividad en:

- Procedimientos civiles: se ha acudido a 166 Concursos Nuevos.
- Procedimientos judiciales: instruidos por la comisión de delitos contra la Hacienda Pública en colaboración con la Secretaría de Coordinación y Asistencia Técnica que han

jarduketa egin dituzte.

Gainera, azpimarratu behar da Aholkularitza Juridikoa dela BFAko Gobernu Kontseiluetako gai-zerrenda izapidetzeko organo eskuduna Ogasun eta Finantza Sailean. Ondorioz, izapidetu eta horien jarraipena egiten du Sailean egindako araudia aldarrikatu eta argitaratu arte. 2016. urtean mota horretako 47 jarduketa egin dira.

supuesto 12 actuaciones.

Además hay que destacar que la Asesoría Jurídica es el órgano competente en la tramitación del orden del día, en lo que se refiere al Departamento de Hacienda y Finanzas, de los Consejos de Gobierno de la DFB lo que conlleva la tramitación y seguimiento hasta su promulgación y publicación de la normativa emanada del Departamento. Sus actuaciones en este campo en el año 2016 han sido 47.

estatistikak
estadísticas

Capítulo V

V.1 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga 2015
Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas 2015

V.1.1 Aurkezpen datuak
Datos de presentación

2015. urteko ekitaldi fiskalerako (horren emaitza estatistikoak aurkezten dira hemen) araudi aldaketa gutxik eragiten diote PFEZri, 2014an zergan egindako aldaketa nabarmenaren ondoren, abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua indarrean jarri zenean hain zuzen ere.

Para el ejercicio fiscal 2015, cuyos resultados estadísticos aquí se presentan, pocas son las modificaciones normativas que afectan al IRPF tras la modificación profunda del impuesto que se produjo en el año 2014 con la entrada en vigor de la nueva Norma Foral 13/2013 de 5 de diciembre.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera menpeko ekarpen finantzarioentzat integrazio eta konpentsazio araubide berri bat aplikatzen hasi ziren, eta araubide hori data horren aurretik sortutako eta konpentsazioa egiteko duten errenta negatiboei aplikatu ahal izango zaie. Konpentsazioak egin ondoren saldo negatiboak irauten badu, modu berean konpentsatu ahal izango da hurrengo lau urteetan.

A partir del 1 de enero de 2015 se aplica un nuevo régimen de integración y compensación para las aportaciones financieras subordinadas que se podrá aplicar a las rentas negativas generadas con anterioridad a esta fecha y que se encuentren pendientes de compensación. Si una vez efectuadas las compensaciones continuara existiendo saldo negativo, se podrá compensar, del mismo modo, durante los cuatro años siguientes.

2014ko PFEZri dagokion txostenean ezin izan zen enpresei eta profesionalei lotutako jarduera ekonomikoei (RAEPA) zegokien azterketa zehatzik egin, eta beraz, kapitulu honetan aztertuko dira 2014ko eta 2015eko ekitaldikoak batera.

Dado que en el informe relativo a IRPF 2014 no se pudo realizar un análisis detallado referente a las Actividades Económicas empresariales y profesionales (RAEPA), en este Capítulo se van a analizar conjuntamente los de los ejercicios 2014 y 2015.

2014ko urtarrilaren 1eko Foru Arau berria indarrean jarri ondoren, enpresa eta lanbide jardueren etekin garbia zenbatesteko araubideetan, desagertu egin zen zeinu, indize eta moduluen bidezko zenbatespen objektiboa, bai moduluei, bai nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta baxurako arrantzari dagokiena.

Con la entrada en vigor de la nueva Norma Foral, el 1 de enero de 2014 desaparecieron, dentro de los regímenes de estimación del rendimiento neto de RAEPA, el régimen de Estimación Objetiva por signos, índices y módulos; tanto los denominados Módulos, como los agrícolas, ganaderos, forestales y pesca de bajura.

Beraz, jarduera ekonomikoen mozkin garbiaren estimazioa Zuzeneko Estimazioaren Araubidearen barne egin beharko da, modalitate normalean edo sinplifikatuan.

Por tanto, el rendimiento neto de las actividades económicas se habrá de estimar, en todo caso, dentro del Régimen de Estimación Directa, bien en la modalidad Normal o en la Simplificada.

Jarduera sektore horietako batzuen kasuan, zuzeneko zenbatespen erraztuaren barruan bereizteko, koefiziente edo gastuen ehuneko batzuk ezarri dira:

En el caso de algunos de estos sectores de actividad, para su diferenciación dentro de la Estimación Directa Simplificada, se establecen diferentes coeficientes o porcentajes de gastos:

- Orokorra: % 10
- Nekazaritza-abeltzaintza: % 35
- Salgaien garraioa:
  - % 60 (2014an) eta
  - % 55 (2015ean)
- Basogintza: % 65 / % 80
- Baxurako arrantza: % 90

- General: 10%
- Agrícola- Ganadera: 35%
- Transporte de mercancías:
  - 60% (en el año 2014) y
  - 55% (en el año2015)
- Forestales: 65% / 80%
- Pesca de bajura:90%

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera txertatu zen eta

A partir del 1 de enero de 2014 se introdujo también, y

ekitaldi honetan ere mantendu egiten da jarduera ekonomiko berrientzat etekin garbi positiboaren % 10eko murrizketa, etekin garbi positiboa lortzen den lehen zergaldian eta hurrengoan aplikatzeko.

se mantiene en este ejercicio, una reducción del 10% del rendimiento neto positivo para las actividades económicas nuevas en el primer periodo impositivo con rendimiento neto positivo y en el siguiente.

Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariei dagokienez, mantendu egin dira jardueretan inbertitzeagatik eta/edo zerga gardentasunaren araubideko sozietateetan inbertitzeagatik aplikatzen diren kenkariak, enpresa eta lanbide jardueren gaineko errendimenduen araubidean eta/edo nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidean dauden zergapetze araubideak, euren definizioa eta sozietateen gaineko zergarena berdinak izanik.

Respecto a las deducciones para el fomento de actividades económicas, se mantienen las deducciones relativas a la inversión en actividades económicas y/o inversiones de sociedades en régimen de transparencia fiscal que se aplican exclusivamente por los sujetos pasivos que desarrollan RAEPA y/o el régimen de imputaciones por Transparencia Fiscal Internacional, siendo su definición idéntica a la del Impuesto sobre Sociedades.

2015eko PFEZen aitorpenak aurkezteko kanpaina bukatutakoan lorturiko emaitzek erakusten dutenez, nahiz eta arauen aldetik aldaketa handirik izan ez 2014 eta 2015 ekitaldien artean, aldaketak izan dira ekonomiaren ikuspegitik enpleguaren edo ekoizpen jardueraren arloan, diru-bilketari dagokionez hobekuntzak baitaude, aurkezpen kopuru gutxiagorekin.

Los resultados obtenidos a la finalización de la campaña de presentación de las declaraciones de IRPF 2015 nos muestran que, si bien desde el punto de vista normativo no ha habido prácticamente cambios entre los ejercicios 2014 y 2015, si los ha habido desde la vertiente económica en términos de empleo, o de actividad productiva, ya que muestran una mejora en términos recaudatorios, con un menor número de presentaciones.

Horregatik guztiagatik, 2015eko PFEZ kanpainako kuota diferentzialaren emaitza negatiboa -110,29 milioi euroraino jaitsi zen. Ondorioz, aldaketa-tasa % 41,52koa izan da, eta aurkeztutako aitorpen kopuruak behera egin du % 1,32. Aitortzaile kopurua zertxobait jaitsi da, baina kopuru garbia, beti negatiboa dena, zertxobait jaitsi da.

Por todo lo anterior, la cuota diferencial de la campaña de IRPF 2015 disminuyó su negatividad hasta -110,29 millones de euros, lo que supuso una tasa de variación del -41,52% y un descenso en el número total de declaraciones presentadas del 1,32%. Ha bajado ligeramente el número de declarantes pero el importe neto, que siempre es negativo, ha sufrido una notable disminución.

Jarraitu egin du 2012an hasitako beherako joerak, PFEZ kanpainan aurkeztutako aitorpenen kopuruari dagokionez; izan ere, % 1,32 jaitsi da aitorpen kopurua, hau da, 7.600 agiri gutxiago aurkeztu dira.

Continúa la tendencia decreciente, iniciada en 2012, en el número de declaraciones presentadas en la campaña de IRPF con un descenso del 1,32% y 7.600 documentos menos.

Beherakada horien arrazoia Foru Arau berrian izandako aldaketak izan dira. Aldaketa horien ondorioz, zerga garestiagoa izan da aitorpena aurkeztera behartuta ez dauden zergadunentzat, aurreko urteetan itzuli beharreko kuota diferentziala lortzen zutenentzat. Ondorioz, atxikipenak itzultzeko eskatzeko aurkezten zuten aitorpena.

La razón de estos descensos radica en que los cambios normativos implantados con la nueva Norma Foral han hecho el impuesto más oneroso para aquellos contribuyentes no obligados a presentar declaración y que en años anteriores obtenían una cuota diferencial a devolver por lo que presentaban la correspondiente declaración para solicitar la devolución de las retenciones.

Kopuruan zein kuota diferentzialean izandako beherakadaren ondorioz, aitorpen bakoitzeko guztizko batez bestekoa −194 euroraino jaitsi da, 2014an −328 eurokoa zelarik.

La confluencia de los descensos, tanto en número como en cuota diferencial, ha llevado a que la media total por declaración disminuya sustancialmente hasta los -194 euros frente a los -328 euros en 2014.

2015eko PFEZen kanpainan, guztira 567.236 aitorpen aurkeztu dira, eta horietatik 405.684k itzultzeko eskaera izan dute,hots, 21.174 aitorpen gutxiago 2014ko PFEZren kanpainan itzuli beharreko aurkezturikoekin alderatuta, ia % 5 gutxiago.

Se han presentado durante la campaña IRPF 2015 567.236 declaraciones, de las cuales 405.684 lo fueron con solicitud de devolución, lo que supone 21.174 declaraciones menos respecto a las presentadas a devolver en la campaña IRPF 2014, casi un 5% menos.

Itzultzeko aurkeztutako aitorpenen eta aitorpen guztien arteko aldea % 71,52koa da; ehunekoa aurreko kanpainetan lortutakoa baino txikiagoa da, hain justu ere aurkeztutako aitorpen negatiboen kopuruan eta aurkeztutako aitorpenen kopuru osoan beherakada izan

La relación entre las declaraciones presentadas a devolver y el total es de un 71,52% porcentaje inferior al obtenido en campañas anteriores, debido al descenso tanto en el número de declaraciones negativas como en el número total de declaraciones presentadas.

delako.

Bestalde, aitorpen negatiboak dituzten zergadun horiek itzultzeko eskatutako zenbatekoa 407,90 milioi eurora igo da eta beraz, 2014. urtearekin alderatuta, ia 27 milioi euroko beherakada izan da eskaeretan (–% 6,17).

Itzultzeko eskatutako zenbatekoan izandako beherakada hori 2014ko PFEZ kanpainan 2013koaren aldean izandakoa baino ia ehuneko 6 puntu baxuagoa izan da. 2011 baino lehenagoko urteetako kanpainetan lortutako emaitzetatik guztiz desberdina da, horietan itzultzeko eskatutako zenbatekoan etengabeko igoerak egoten baitziren.

Bi inguruabar horiek batuta, hau da, itzuli beharreko aitorpen gutxiago eta eskaturiko zenbateko txikiagoa, aitorpen bakoitzeko batez bestekoa txikiagoa izan da, -1.005 euro edo gutxiagokoa, 2014koa baino % 1,27 txikiagoa.

Sartu beharreko 13.575 aitorpen gehiago izan dira, % 9,17, eta sartutako zenbatekoan 51,47 milioi euroko igoera izan da, hots, ia % 21. Aitorpen bakoitzeko sarreraren batez bestekoa ere handiagoa izan da, 1.663 eurotik 1.842 eurora igo da, hain zuzen ere.

Batez besteko balioari dagokienez, batez besteko likidazio-oinarri orokorra (zero ez beste likidazio-oinarria duten aitortzaileen kopurua hartu da zatitzaile gisa) 23.597 eurokoa da; hots, 2014koaren aldean, % 3,46ko gorakada izan du.

Aurrezkiaren likidazio-oinarriari gainerako % 8,04a dagokio (2014an baino ehuneko 0,27 gutxiago) eta bertan biltzen dira, beste kontzeptu batzuen artean, kapital higigarriaren etekin gehienak; horiek beherakada handia izan dute, % 9,98koa, eta euren egozpena ia 70 milioi txikiagoa izan da. Aldiz, etxebizitzen errentamendutik sortutako kapital higiezinak 18,47 milioiko hazkundea izan du (% 13,39koa).

Beste osagaia (ondare-irabaziak), bere sorrera-aldia gorabehera, nabarmen hazi da 2014ko zerga-ekitaldiaren aldean. Hain zuzen ere, % 21,01eko gehikuntza izan du, hau da, 55,57 milioi euro gehiago.

Aurreko ekitaldian ez bezala, zeinean balore negatiboak egon ziren higiezinen eskualdaketan (-107,34 milioi) eta balore higigarrien eskualdaketan (-15,96 milioi), honako ekitaldi honetan kontzeptu guztiak positiboak izan dira, eta aipatutako biek gorakada nabarmena izan dute: hain zuzen ere, 2015ean, 107,25 eta 106,16 milioiko zenbateko garbiak metatu dituzte, hurrenez hurren. Halaber, inbertsio-funtsek gorakada handia izan dute; 2014an metatu zituzten 15,15 milioietatik 86,07 milioira pasa dira 2015ean.

Horri dagokionez, zehaztu behar da aurrezkiaren likidazio-oinarriaren barruan 370,97 milioi euroko ondare-galera garbiak aitortu direla. Zenbateko hori hurrengo lau ekitaldietako ondare-irabaziekin konpentsatzeko gelditu da.

Aurrezkiaren batez besteko likidazio-oinarria 2.799 eurokoa izan da 2015ean. Zenbatekoa oso txikia da, aurrezkiaren oinarrian kapital higigarriaren zenbateko oso txikiak aitortzen dituzten zergadunen kopurua handia delako.

Hori horrela izaten da, aurrezkiaren oinarrian sartzen direlako norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzeak sortzen dituen kapital higigarriaren etekinak eta edozein eratako erakundeen funts propioetan parte hartuz lortutakoak, hots, kontu korronte edo aurrezki-kontuen etekinak, gordailuen interesak, eta akzioen dibidenduak, nahiz eta azken horiek lehen 1.500 euroetarako salbuespena duten.

En el análisis pormenorizado de las magnitudes del impuesto, el mayor importe siempre corresponde a la base liquidable general siendo su importe en 2015 de 12.459,36 millones de euros, con un peso relativo del 91,96%. El análisis en detalle de sus componentes se realiza en el apartado siguiente.

En cuanto a su valor medio, la base liquidable general media (como divisor se toma el número de declarantes con base liquidable distinta de cero) se sitúa en 23.597 euros, aumentando con respecto a 2014 un 3,46%.

La base liquidable de ahorro, constituye el 8,04% restante (0,27 puntos porcentuales menos que en 2014) y en ella se engloban, entre otros conceptos, la mayoría de los rendimientos de capital mobiliario que han sufrido un acusado descenso porcentual del 9,98% y una imputación inferior en casi 70 millones. Por el contrario, el capital inmobiliario derivado del arrendamiento de viviendas ha sufrido un incremento de 18,47 millones (13,39%).

El otro componente, las ganancias de patrimonio, independientemente de su plazo de generación, ha sufrido un notable ascenso respecto al ejercicio fiscal 2014, un 21,01%, lo que representa un aumento de 55,57 millones de euros.

A diferencia del ejercicio anterior, en el que se produjeron valores negativos en la transmisión de inmuebles (-107,34 millones) y en la transmisión de valores mobiliarios (-15,96 millones), en este ejercicio todos los conceptos han sido positivos, destacando las fuertes subidas en los dos conceptos antes mencionados cuyos importes netos en el 2015 se han situado en 107,25 y 106,16 millones respectivamente. También se ha producido una fuerte subida en los fondos de inversión pasando de 15,15 millones en 2014 a 86,07 millones de euros en 2015.

A este respecto matizar que dentro de la base liquidable del ahorro se han declarado 370,97 millones de euros de pérdidas patrimoniales netas, importe que queda a compensar con ganancias patrimoniales futuras de los cuatro próximos ejercicios.

La base liquidable de ahorro media en 2015 se sitúa en 2.799 euros. Este importe tan pequeño es debido al importante número de contribuyentes que declaran base del ahorro con importes pequeños de capital mobiliario.

Ello es así porque en la base de ahorro se incluyen los rendimientos del capital mobiliario provenientes de la cesión a terceros de capitales propios y los obtenidos por la participación en los fondos propios de cualquier tipo de entidad, es decir, los rendimientos de las cuentas corrientes o de ahorro, los intereses de depósitos, y los dividendos de las acciones aunque éstos cuentan con una exención para los 1.500

primeros euros.

Aurreko guztiaren ondorioz, aitortzaile bakoitzeko batez besteko likidazio-oinarria, guztira, 24.579 eurokoa izan da 2015eko PFEZn, 2014an baino 1.060 euro gehiago.

Como consecuencia de todo lo anterior, la base liquidable total media por declarante en IRPF 2015 es de 24.579 euros, 1.060 euros más que la respectiva del 2014.

Zergaren kuota likidoak eta kuota osoak ezartzen dute zergadunen zerga-karga, betiere kenkariak aplikatu aurretik.

La carga fiscal de los contribuyentes viene determinada por la cuota líquida del impuesto y por la cuota íntegra, antes de deducciones.

Abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak, indarrean dagoena 2014ko urtarrilaren 1etik, aurrezkiaren errenten tributaziorako eskala-sistema bat ezarri du, 5 tartetan banatua, zeinak % 20tik % 25erainoko tasa marjinalak dituen: % 20ko tasa 2.500 euro arteko errentetarako eta %25ekoa 30.000 eurotik aurrerako errentetarako, hain zuzen.

La Norma Foral 13/2013 de 5 de diciembre, en vigor a partir del 1 de enero de 2014, establece para la tributación de las rentas del ahorro un sistema de escala en 5 tramos con tipos marginales desde el 20% para rentas hasta 2.500 euros, hasta el 25% para rentas desde 30.000 euros.

Kuota osoa, hau da, oinarri orokorraren kuoten (2.714 milioi euro) eta aurrezkiaren oinarriaren (243 milioi euro) batura, 2.957 milioi euro da, guztira. 2014an lortutakoarekin alderatuta, 120,03 milioi gehiago metatu dira (% 4,23ko hazkundea), nahiz eta kuota osoa positiboa duten aitorpenen kopurua murriztu egin den. Hazkunde hori, batik bat, likidazio-oinarri orokorraren gorakadari esker gertatu da.

La cuota íntegra, como suma de las cuotas por base general (2.714 millones de euros) y por base de ahorro (243 millones de euros) nos da un total de 2.957 millones que, con respecto a la obtenida en 2014, aumenta en 120,03 millones, un 4,23%, a pesar de la disminución del número de declaraciones con cuota íntegra positiva. Este aumento es debido principalmente al aumento en la base liquidable general.

Guztizko kuota oso horretan sartzen da, halaber, 10.000 eurotik beherako akzio-salmentetan lortutako ondare-irabazien tributaziorako sistema berriaren bitartez lortutako kuotaren zenbatekoa, hots: 482.874 euro.

Se incluye en este total cuota íntegra, el importe de cuota obtenido por el nuevo sistema de tributación de las ganancias de patrimonio por venta de acciones inferiores a 10.000 euros, cifrado en 482.874 euros.

Kuota osoa positiboa izan duten aitorpenen kopuruak % 2,48 egin du behera; alegia, 13.494 aitorpen gutxiago izan dira.

La disminución del número de declaraciones con cuota íntegra positiva es del 2,48%, 13.494 declaraciones menos.

Horregatik guztiagatik, 2015eko PFEZren batez besteko guztizko kuota osoa 5.580 izan da kuota positibo osoa duen aitortzaile bakoitzeko (2014an baino 359 euro gehiago).

Por todo ello, la cuota íntegra total media de IRPF 2015 ha sido de 5.580 por declarante con cuota íntegra positiva, y superior en 359 euros a la de 2014.

Horri dagokionez, ñabardura hau egin beharra dago: PFEZren aitortzaile bakoitzeko batez besteko kuota –aitortzaile guztiak kontuan hartuta, eta ez bakarrik zerotik gorako oinarria eta kuota dutenak–, guztira, 4.972 izan zen 2014an, eta 5.274, 2015ean.

A este respecto hay que matizar que la cuota media por declarante de IRPF teniendo en cuenta a todos los declarantes y no sólo a los que tienen base y cuota superior a cero, fue de 4.972 en 2014 y de 5.274 en 2015.

2015ean, zerotik gorako guztizko likidazio-oinarria eta kuota osoa izan dituzten aitortzaileen portzentajea % 94,53koa izan da, aitorpenen guztizko kopuruari dagokionez.

En 2015 el porcentaje de los declarantes que tienen base liquidable total y cuota íntegra mayor que cero con respecto al total de las declaraciones, es del 94,53%.

Kopuru absolutuetan, aurrekoak esan nahi du 30.661 aitortzailek izan dutela likidazio-oinarri negatiboa edo zerokoa, eta kuota osoa ere zerokoa.

En términos absolutos, lo anterior se cuantifica en que 30.661 tienen base liquidable negativa o cero y su cuota íntegra también es cero.

Hala ere, kuota osoa positiboa izan duten 92.509 aitortzaileek ez dute ezer konputatu kuota likidoan, kenkarien ondorioz.

Sin embargo, 92.509 declarantes con cuota íntegra positiva no han computado nada en cuota líquida por efecto de las deducciones.

Azpimarratzekoa da ekitaldi honetan soilik 211 aitortzailek izan dutela likidazio-oinarri orokor negatiboa, -697.603 euro-koa, hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko. Hau da, 2014ko zerga-ekitaldiarekin alderatuta, % 14,57 aitortzaile gutxiagok izan dute likidazio-oinarri orokor negatiboa, hurrengo ekitaldietan konpentsatzekoa (% 19,72 gutxiago).

Murrizketa hori 2013ko ekitaldian sartutako berrikuntzaren ondorio zuzena da, harrezkero ez baitira zerga-oinarri orokorrean jasotzen zergadunaren jarduera ekonomikoen etekinak, horrelako etekinak elkarrekin integratuz eta konpentsatuz lortutako saldoa negatiboa bada. Saldo negatibo hori hurrengo urteetako jardueren etekinen saldo positiboarekin konpentsatu behar da. Hala, hurrengo ekitaldietan jarduera ekonomikoen etekinekin soilik konpentsatzeko geratu den zenbatekoa 34 milioi euro ingurukoa da.

Laburbilduz, aztertutako 560.600 aitorpenetatik 437.430 agirik (% 78,03) dute kuota likido positiboa, 2014an baino 5.694 aitorpen gutxiagok.

Zeroko kuota likidoa izan duten 123.170 aitorpenek 714,77 milioi euroko guztizko likidazio-oinarria egiten dute, eta 55,12 milioi euroko kuota osoa; aplikatu ahal izan dituzten kenkariak, ordea, 114,18 milioikoak izan dira. Ondorioz, zeroko kuota likidoa duten aitorpen bihurtu dira horiek guztiak.

123.170 aitorpen horietan, azken batean, ekitaldian egindako konturako ordainketa edo atxikipen guztiak itzuli dira eta, beraz, diferentziazko kuota negatiboa izan da. 2015ean, aitortzaile horiei itzuli beharreko zenbatekoa 68,32 milioi eurokoa izan da, eta subjektu pasibo horien 2015eko Errentaren gaineko Zergaren emaitza zero izan da. Esan beharra dago aurreko ekitaldian baino 4.230 aitorpen gutxiago izan direla.

Likidazio-oinarriaren tarteen arabera, datu hauek izan dira 2015eko PFEZn:

- Likidazio-oinarri positiboa izan duten 83.990 aitorpen 6.000 eurorainoko tartean daude, eta horietatik 15.050ek bakarrik izan dute 2.131.751 euroko kuota likido positiboa.
- Oinarri positiboa izan duten 172.116 aitorpen 6.000 - 18.000 euroko tartean daude, eta 119.390ek 128,98 milioi euroko kuota likido positiboa izan dute.
- 155.168 aitorpen daude 18.000 - 30.000 euroko tartean, 536,51 milioiko kuota likidoarekin.
- Gainerako aitorpenak, 149.326, 30.000 eurotik gorako tarteetan daude, eta 1.857,69

Cabe destacar que en este ejercicio únicamente 211 declarantes han generado una base liquidable general negativa por un importe de -697.603 euros que quedan a compensar para ejercicios posteriores, lo cual representa, respecto al ejercicio fiscal 2014, un 14,57% menos de declarantes, con una base liquidable general negativa, pendiente de compensar en ejercicios siguientes, inferior en un 19,72%.

Esta reducción es consecuencia directa de la novedad introducida en el ejercicio 2013, relativa a la no inclusión en la base imponible general de los rendimientos de actividades económicas del contribuyente cuyo saldo resultante de integrar y compensar entre sí este tipo de rendimientos fuese negativo. En estos casos, su importe se compensará con el saldo positivo de los rendimientos de actividades de años sucesivos. Así, el importe que queda pendiente a compensar exclusivamente con rendimientos de actividades económicas en los ejercicios siguientes, es aproximadamente de 34 millones de euros.

En resumen, de las 560.600 declaraciones estudiadas, presentan cuota líquida positiva 437.430 documentos (78,03%), 5.694 declaraciones menos que en 2014.

Las 123.170 declaraciones con cuota líquida cero presentan una base liquidable total de 714,77 millones de euros y una cuota íntegra de 55,12 millones, pero las deducciones que han podido aplicar alcanzan un importe de 114,18 millones, lo que las ha convertido en declaraciones con cuota líquida cero.

En definitiva, en esas 123.170 declaraciones se devuelven todas las retenciones o pagos a cuenta que se hubiesen hecho en el ejercicio y por tanto la cuota diferencial es negativa. En 2015 el importe a devolver para estos declarantes ha sido de 68,32 millones de euros y, el resultado del Impuesto sobre la Renta 2015 de estos sujetos pasivos ha sido cero. Hay que decir que son 4.230 declaraciones menos que en el ejercicio anterior.

Por tramos de base liquidable, indicar que en IRPF 2015:

- 83.990 declaraciones con base liquidable positiva se sitúan en el tramo hasta 6.000 euros y sólo 15.050 de ellos tienen cuota líquida positiva de 2.131.751 euros.
- 172.116 declaraciones con base positiva se sitúan entre 6.000 y 18.000 euros, siendo 119.390 los que tienen cuota líquida positiva de 128,98 millones.
- 155.168 declaraciones se sitúan entre 18.000 Y 30.000 euros, con una cuota líquida positiva de 536,51 millones.
- El resto, 149.326, está en tramos superiores a 30.000 euros y su cuota líquida positiva

milioi euroko kuota likidoa izan dute.

– Beraz, 18.000 eurorainoko tartean metatzen dira aurkeztutako aitorpenen % 45,68, baina kuota likidoaren % 5,19 baino ez dute egiten.

– 30.000 eurorainoko hirugarren tarte bat gehitzen badiogu, aurkeztutako aitorpenen portzentaje hori % 73,36ra igotzen da, eta kuota likidoaren % 26,44 egiten du.

– Beraz, aitortzaileen % 26,64 baino ez daude likidazio-oinarri positiboko 30.000 eurotik gorako tarteetan, eta kuota likidoaren % 73,56 ematen dute.

asciende a 1.857,69 millones.

– Por tanto, hasta 18.000 euros se concentra el 45,68% de las declaraciones presentadas, que presentan únicamente el 5,19% de la cuota líquida.

– Si le añadimos un tercer tramo hasta 30.000 euros, este porcentaje se incrementa hasta el 73,36% de las declaraciones presentadas y supone un 26,44% de la cuota líquida.

– Luego, sólo el 26,64 % de los declarantes se sitúan en tramos superiores a 30.000 euros de base liquidable positiva y aporta el 73,56% de la cuota líquida.

"Kuota osoa guztira / likidazio-oinarria guztira" erlazioa, hau da, batez besteko tasa deritzona, 2015eko ekitaldian % 21,82koa izan da, 2014koa (% 21,46) baino pixka bat handiagoa, baina urrun dago oraindik ere aurreko urteetan izandako % 26 inguruko portzentajetik.

La relación total cuota íntegra / total base liquidable, que constituye el llamado tipo medio, en el ejercicio 2015 ha sido del 21,82%, ligeramente superior al del ejercicio 2014 (21,46%), pero lejos del de años anteriores en que se había mantenido entorno al 26%.

Oinarri orokorraren batez besteko tasa % 21,78 izan da; portzentaje hori 2014koa (% 21,41) baino handiagoa izanagatik, aurreko urteetan izandakotik (% 27 ingurukoa) urrun jarraitzen du baita ere.

El tipo medio de la base general que se obtiene es 21,78%, también superior al del 2014 (21,41%) pero lejos del de años precedentes en los que se había mantenido entorno al 27%.


Magnitude horiek ezin dira kopuru homogeneotan konparatu 2014 baino lehenagoko ekitaldietan, zenbakitzaileak, kuota osoak, beherakada nabarmena izan duelako data horretatik aurrera, aurreko ekitaldiekin konparatuta, kuotako lehengo kenkari orokorraren ordez 1.389 euroko kuota-murrizketa ezarri izanaren ondorioz.

Estas magnitudes no son comparables en términos homogéneos con los ejercicios precedentes a 2014, ya que en el numerador, la cuota íntegra, se produce un descenso considerable desde esa fecha respecto a los ejercicios anteriores por la inclusión de la minoración de la cuota de 1.389 euros que sustituye a la antigua deducción general en cuota.

Murrizketa baino lehenagoko 2015eko kuota osoarekin egin behar dugu konparazioa, beraz; horrela, likidazio-oinarri orokorraren batez besteko 29,30eko tasa lortuko dugu, eta guztizko likidazio-oinarriaren batez besteko 26,95eko tasa.

La comparación deberemos hacerla con la cuota íntegra previa del 2015 antes de minoración y así obtendremos un tipo medio de la base liquidable general del 29,30 y un 26,95 de la base liquidable total.

Batez besteko oinarria, erkatzeko
Tipo medio comparativo



V.1.5 Guztizko likidazio-oinarriaren osagai nagusiak
Principales componentes de la base liquidable total

Hurrengo koadroan 2015/2014eko oinarri likidagarri orokor nagusien konparatiboa dago.

En el cuadro siguiente figura la comparativa 2015/2014 de los principales componentes de la base liquidable general.

54. taula / Cuadro nº 54
Guztizko likidazio-oinarriaren osagai nagusiak
Principales componentes de la base liquidable general

Kontzeptua Concepto	2015				2014				% Aldakuntza Variación 2015/2014	
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Batez-bestekoa Media	Guztira-koaren gaineko % s/total	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Batez-bestekoa Media	Guztira-koaren gaineko % s/total	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe
Norberaren Lanaren Etekiña Rendimiento Trabajo Personal	493.058	12.143.538.285	24.629	97,47%	497.538	11.891.419.330	23.901	98,12	-0,90	2,12
Higikorren Kapitalaren Etekina Rendimiento Capital Mobiliario	3.230	10.565.304	3.271	0,08%	3.121	11.065.272	3.545	0,09	3,49	-4,52
Higiezinen Kapitalaren Etekina Rendimiento Capital Inmobiliario	28.856	211.347.058	7.324	1,70%	28.186	208.556.597	7.399	1,72	2,38	1,34
Jarduera Ekonomiko Etekina Rendim. Actividades Económicas	62.792	931.592.917	14.836	7,48%	61.659	843.444.854	13.679	6,96	1,84	10,45
Gainerakoa (garbia) Resto (neto)		-837.682.474		-6,72%		-835.684.364		-6,90		0,24
Guztira/Total	528.016	12.459.361.090	23.597	100,00%	531.332	12.118.801.689	22.808	100,00	-0,62	2,81

Eurotan / Euros


Oinarri likidagarri orokorra zerga-oinarriari murrizketen zenbatekoa kenduta kalkulatzen da.

La base liquidable general proviene de restar a la base imponible general el importe de las reducciones.

PFEZ 2015ean (murrizketen aurretik) zerga-oinarri orokorra osatzen duten errentak grafiko honetan erakusten den bezala banatzen dira.

Las rentas que componen la base imponible general en IRPF 2015 (antes de reducciones), se reparten según se muestra en el gráfico siguiente.

Zerga-oinarri orokorraren osagaiak
Componentes de la Base Imponible General




Grafikoan ikusi daitekeen moduan, laneko errentak guztirako zerga-oinarriaren % 91,32 dira, eta guztirako likidazio-oinarriaren % 97,47, gutxitzeak aplikatu eta gero.

Logikoa denez, partaidetza horrek behera egiten du aurrezkiaren likidazio-oinarria kontuan hartzen badugu, batez ere kapital higigarriaren ondorioz, eta, hori dela eta, likidazio-oinarri osoan lanaren errentek % 89,63 osatzen dute. 2014ko partaidetza-portzentajeen aldean 0,34 puntu jaitsi dira.

Tal como muestra el gráfico, las rentas procedentes del trabajo representan el 91,32% de la base imponible general, y el 97,47% de la base liquidable general una vez detraídas las reducciones de base.

Como es lógico, esta participación desciende si incluimos la base liquidable del ahorro, sobre todo por el efecto del capital mobiliario, y por ello, sobre el total de base liquidable, las rentas del trabajo representan el 89,63%, con un descenso en la participación al respectivo del 2014 de 0,34 puntos porcentuales.

Likidazio-oinarri orokorraren osagaiak
Componentes de la base liquidable general



Gainerako ekitaldietan bezala, guztirako errentaren iturri nagusi gisa finkatzen da. 0,47 ehuneko puntu gutxitu da zerga-oinarri orokorrean eta 0,34 puntu guztirako likidazio-oinarrian.

Xehetasunez, 2014an gertatu zen bezala, laneko diru-sarrera gordinak eta errendimendu garbiak gehitu egin dira 2015ean, % 1,58ko eta % 2,12ko kopuruekin, aurreko ekitaldi fiskaletan gertatutako beherakadei oposatuz. Hori horrela da nahiz eta azken ekitaldietan zergadunen kopuruak behera egin duen; horietariko gehienak lan-errenten aitortzaileak lirateke. 2015eko beherakada 9.924 aitorpenetakoa da, 2014ko tasa baino zertxobait altuagoa (8.020 aitorpen gutxiago).

Azken ekitaldietako krisi-egoera eta lanpostuen egonkortasunik eza dira beherakadaren arrazoiak, bai eta azkenaldiko zerga-neurriak ere, zergaren likidazioa gogortu baitute eta horrek aitorpena ez egitera bultzatzen baititu behartuta ez dauden

Se afianza por tanto, al igual que en ejercicios anteriores, como la principal fuente de renta total. Se reduce 0,47 puntos porcentuales su participación en la base imponible general y 0,34 puntos su participación en total base liquidable.

En detalle, al igual que ocurrió en 2014, los ingresos brutos de trabajo y los rendimientos netos han aumentado en 2015 a tasas del 1,58 % y 2,12 %, en contraste con el descenso de los ejercicios fiscales anteriores. Esto es así a pesar de continuar el descenso del número de contribuyentes de los últimos ejercicios, de los que la mayoría serían declarantes de rentas del trabajo. Este descenso en 2015 es de 9.924 declaraciones, una tasa ligeramente superior a la del año 2014 (8.020 declaraciones menos).

Este descenso posiblemente es derivado de la situación de crisis y precariedad laboral persistente en los últimos ejercicios así como de las últimas medidas tributarias que endurecen la liquidación del impuesto, lo que retrae de presentación a los

subjektu pasiboak.

Horrela, laneko gastuen zenbatekoa 641,32 milioi eurora igo da; aurreko urtean baino 2,93 milioi gehiago izan dira.

Nolanahi ere, 2015eko laneko hobariaren zenbatekoa apur bat jaitsi da 2014koarekin alderatuta, hots, % 1,79ko beherakada izan du. Beherakada hori laneko sarrera pertsonalen aitorpenen zenbatekoaren antzekoa izan da (hori % 1,39 gutxitu da). Beherakada biak ere aurreko ekitaldietakoak baino zertxobait altuagoak dira (% 0,95 eta % 0,70 hurrenez hurren).

sujetos pasivos no obligados.

El importe de los gastos de trabajo ha aumentado hasta los 641,32 millones de euros, 2,93 millones más que el año anterior.

Sin embargo, el importe de la bonificación de trabajo en 2015 ha descendido ligeramente respecto de 2014, con un decremento del 1,79%, descenso similar al del número de declaraciones con ingresos de trabajo personal, que han disminuido en un 1,39%. Ambos descensos son ligeramente superiores a los sufridos en el ejercicio anterior donde los decrementos fueron del 0,95% y 0,70% respectivamente.

55. taula / Cuadro nº 55
Lan-etekin garbiaren bilakaera
Evolución del rendimiento neto del trabajo

	Kontzeptuak Conceptos	2015	2014	2013	% Aldakuntza Variación 2015/2014
	NLET duten aitorpen kopurua Número de declaraciones con ingresos trabajo personal	510.068	517.258	520.886	-1,39
1	Laneko sarrera gordinak Ingresos brutos de trabajo	14.435.747.915	14.210.778.642	14.188.471.908	1,58
2	Gastuak Gastos	641.316.575	638.384.019	619.876.925	0,46
3	Aplikaturiko hobaria Bonificación aplicada	1.650.893.055	1.680.975.294	1.697.028.957	-1,79
	Laneko etekin netoa (1-2-3) Rendimiento Neto de Trabajo (1-2-3)	12.143.538.285	11.891.419.330	11.871.566.026	2,12
					Eurotan / Euros

2015. urtean, lanaren bidezko diru-sarrera gordinak aitortu dituzten subjektu pasiboak 510.068 izan dira, eta horietatik 493.058k aitortu dituzte etekin garbiak. Beraz, zeroko etekina duten subjektu pasiboak, behin kasuan kasuko hobaria aplikatu eta gero, 17.010 dira, lanaren bidezko diru-sarrerak aitortu dituzten guztien % 3,33 inguru.

Aplikaturiko guztizko hobaritik, hau da, 1.651 milioi eurotik (2014an baino 30 milioi gutxiago), subjektu pasiboak legez ezarritako baldintzetan duen desgaitasunak igoarazitako hobariari dagozkio 61 milioi (8.990 zergadunek aplikatu dute hobaria).

Guztirako likidazio-oinarriaren kontzeptuen barruan garrantzia gehien duten hurrengoak jarduera enpresarial eta profesionalen (RAEPA) etekinak dira, likidazio-oinarri orokorraren % 7,48 eta zerga-oinarri orokorraren % 7,01 osatzen dute-eta. Likidazio-oinarri osoan, hau da, aurrezkiaren oinarria gehituta, haien partaidetza % 6,88ra jaitsi da.

En 2015, los sujetos pasivos declarantes de ingresos brutos de trabajo han sido 510.068 y de ellos declararon rendimientos netos 493.058. Por tanto, el número de sujetos pasivos que presentan rendimiento cero, una vez aplicada la correspondiente bonificación, es de 17.010, alrededor de un 3,33% del total declarantes de ingresos de trabajo.

Del total de bonificación aplicada, 1.651 millones de euros, (30 millones menos que en 2014) unos 61 millones corresponden a la bonificación incrementada por discapacidad del sujeto pasivo en las condiciones legalmente establecidas (la aplican 8.990 contribuyentes).

Le siguen en importancia relativa dentro de los conceptos de la base liquidable general, los rendimientos de actividades empresariales y profesionales (RAEPA) que representan el 7,48% de la base liquidable general y el 7,01% de la base imponible general. Sobre la base liquidable total, es decir, una vez agregada la base del ahorro, su participación se rebaja hasta el 6,88%.

Azpimarratzekoa da enpresa eta lanbide jardueren etekinak igo egin direla ekitaldi honetan 2013. eta 2014. ekitaldietan igo eta gero, eta 2008 eta 2012 arteko zergaldietan etekin mota horiek balio absolutuetan jaitsi ondoren. 2008 eta 2012 ekitaldien artean, izan ere, 146 milioi euro ez ziren aitortu.

Cabe destacar, el incremento de los rendimientos de actividades empresariales y profesionales (RAEPA) de nuevo en este ejercicio tras el aumento en los ejercicios 2013 y 2014, después del descenso en términos absolutos de este tipo de rendimientos en los ejercicios fiscales comprendidos entre el 2008 y el 2012, donde se dejaron de declarar 146 millones de euros.

Enpresa eta lanbide jardueren etekinak igo egin dira 2013ko ekitaldian aplikatu zen aldaketaren ondorioz: etekin mota hori barne hartzearen eta konpentsatzearen emaitza den saldoa negatiboa bada, ondorengo urteetako jarduera positiboen etekinen saldo positiboarekin konpentsatuko da.

El incremento en los rendimientos de actividades empresariales y profesionales tiene su origen en la modificación introducida en el ejercicio 2013 por la cual, si el saldo resultante de integrar y compensar entre sí este tipo de rendimientos resultase negativo su importe se compensará exclusivamente con el saldo positivo de los rendimientos de actividades positivos de años sucesivos.

2015eko ekitaldian guztira 931,60 milioi euro inguru aitortu dira, hau da, 2014ko zergaldian baino % 10,45 gehiago.

El total declarado en el ejercicio 2015, ha sido de 931,60 millones de euros, que representa un incremento del 10,45% respecto al ejercicio fiscal 2014.

Gorakada hori gehienbat jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko ezarritako arau aldaketak direla-eta gertatu da.

Este incremento viene determinado en su mayoría por los cambios normativos establecidos para la estimación del rendimiento neto de las Actividades Económicas.

Zergaldi horren ikuspuntu horretan, beste ekitaldiekin alderatuta, aldea, batik bat da araudian desagertu egin dela etekin garbia kalkulatzeko aukera modulu, zeinu edo indizeen sistema baten arabera.

En esta magnitud del impuesto, la mayor diferencia con respecto a ejercicios anteriores es que ha desaparecido de la normativa la posibilidad de estimar el rendimiento neto de la actividad a través de un sistema de módulos, signos o índices.

Kalkulatzeko modu objektibo hori hautatu duten zergadunak 2014rako eta hurrengoetarako, modalitate ohikoa edo sinplifikatua kalkulatzeko modu zuzenaren barne egongo dira.

Los contribuyentes que hayan optado por dicha estimación objetiva, para 2014 y siguientes, se habrán encuadrado en la Estimación Directa bien en la modalidad Normal o en la Simplificada.


Azken horretan, araudiarekin bat eginez, jardueraren sektorearen arabera aldatzen diren justifikatu gabeko gastuen araberako koefizienteak daude. Koefiziente horien helburua da , nolabait, estimazio objektiboa desagertu izana konpentsatzea.

En esta última, la normativa recoge una serie de coeficientes por gastos sin justificar que varían en función del sector de la actividad desarrollada y que pretenden, de alguna manera, compensar la desaparición de la Estimación Objetiva.

62.792 zergadunek aitortu dituzte; horiek, 79.040 jarduera desberdinei dagozkien datuak dauzkate.

Son declarados por 62.792 contribuyentes, los cuales presentan datos referidos a 79.040 actividades diferenciadas.

Jarduera ekonomikoen kopuruaren banaketa, aplikatutako jatorri eta zenbatespenaren arabera
Distribución del número de Actividades Económicas según origen y régimen de estimación aplicado



Aitortutako jarduera guztien artean % 63,60 enpresa-jarduerak dira eta jarduera ekonomikoen etekin garbi osoaren % 55,40 zergapetzen dute. Lanbide eta arte jarduerek % 36,40 osatzen dute eta horietan aitortutako etekin garbia zenbateko osoaren % 44,60 da.

Aitortutako jardueren guztizkoarentzat jarduera eta etekin garbiaren kopururik handiena zuzeneko zenbatespen erraztuko aitorpenena da -Orokorra, Nekazaritza-abeltzaintzakoa, Garraiokoa -. Balioak jardueren etekin guztien % 51,74 eta % 43,99 bitartean daude. Egotzitako zenbatekoa 736,19 milioikoa izan da guztira.

Ohiko Estimazio Zuzeneko Araubideak 199,15 milioi jaso ditu, Enpresa jardueren % 9,64, eta Jarduera profesional eta artistikoen % 5,58.

Enpresa jardueretako errendimendu garbitik % 19,64 ED ohikoari dagozkio, % 79,41 ED Sinplifikatu Orokorrari, Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerei eta Garraioari, eta bakarrik % 0,95 ED Baso Sinplifikatu eta Baxurako Arrantzari.

Lanbide eta arte jardueretan, etekin garbi osoaren % 76,66 zuzeneko zenbatespen erraztuan zergapetu da eta gainerako % 23,34a zuzeneko zenbatespen

El 63,60% del total de actividades declaradas son actividades empresariales e imputan el 55,40% del rendimiento neto total de las actividades económicas. Las actividades profesionales y artísticas representan el 36,40% y su rendimiento neto declarado supone el 44,60% del total.

Para el total de las Actividades declaradas, el mayor número de actividades y rendimiento neto corresponde a las declaraciones en régimen de Estimación Directa Simplificada, en sus vertientes General, Agrícolas-Ganaderas, Transporte, con valores entre el 51,74% de las actividades y el 43,99% del rendimiento total. El importe total imputado ha sido de 736,19 millones.

El régimen de Estimación Directa Normal obtiene 199,15 millones, el 9,64% del total de actividades Empresariales y el 5,58% en Profesionales y Artísticas.

Del total del rendimiento neto en actividades empresariales, el 19,64% corresponde a ED Normal, el 79,41% a ED Simplificada General, Actividades Agrícolas-Ganaderas y Transporte y sólo el 0,95% a ED Simplificada Forestal y Pesca de bajura.

En las actividades Profesionales y Artísticas, el rendimiento neto total se imputa en un 76,66% a ED Simplificada y en un 23,34% a ED Normal.

ohikoan.

Azkenik, esan beharra dago, ekitaldiko etekin garbien negatiboen konpentsazioak aplikatu direla, 9,10 milioi euro izan dira.

Por último decir que se han aplicado compensaciones de rendimientos netos negativos del ejercicio precedente por importe de 9,10 millones de euros.

Guztirako zerga-oinarrian sartutako kapital higigarriarengatiko etekinei dagokienez, zergaren arauak negatiboki definitzen ditu, hau da, 65. artikuluaren arabera aurrezpenaren oinarria eratzen duten horiek dira eta, edonola ere, baita zerikusia duten eragiketetatik etorritakoak ere.

Con respecto a los rendimientos de capital mobiliario integrados en la base imponible general la norma del impuesto los define de forma negativa, es decir, son aquellos que no se integran en la base del ahorro según el artículo 65 y en todo caso aquellos procedentes de operaciones vinculadas.

Hortaz, hondarrekoak dira, eta halaxe ageri da 2015eko PFEZean lorturiko zenbatekoetan. 3.230 agiri baino ez dira aurkeztu, guztira, 10,57 milioi euro.

Por tanto, tienen un carácter residual y así se pone de manifiesto en las cuantías obtenidas en IRPF 2015. Sólo son declarados en 3.230 documentos por un importe de 10,57 millones de euros.

Kapital higiezinaren etekinetatik, etxebizitzak ez diren mota guztietako higiezinen alokairuak eratzen du errenta orokorra. Soilik etxebizitzen alokairua sartzen da aurrezkiaren oinarrian.

De los rendimientos de capital inmobiliario constituyen renta general el arrendamiento de todo tipo de inmuebles que no sean viviendas. Sólo el arrendamiento de viviendas forma parte de la base del ahorro.

Etxebizitzaz bestelako higiezinen mota guztietako errentamenduetatik lortutako etekinak 28.856 aitorpenetan aitortu dira. Aitorpen horien zenbateko garbia 211 milioi izan da: 272 milioiko sarrerak eta 61 milioiko gastu kengarriak.

Los rendimientos procedentes de todo tipo de arrendamientos de inmuebles distintos de las viviendas han sido declarados en 28.856 declaraciones por un importe neto de 211 millones procedentes de incluir ingresos por 272 millones y 61 millones de gastos deducibles.

Guztirako likidazio oinarrietan, 2015eko PFEZean 57.756 aitorpenen barruan, higiezinen kapitalaren etekin motaren bat sartzen da. Aurreko ekitaldian, berriz, 53.477, eta kontsignaturiko guztizko zenbatekoan (367,73) 21,26 milioi euroko hazkundea izan da aurreko urtearekin alderatuta.

Para el total de base liquidable, 57.756 declaraciones de IRPF 2015 incluyen algún tipo de rendimiento de capital inmobiliario frente a las 53.477 del ejercicio anterior y el importe consignado total, 367,73 millones, experimenta un aumento de 21,26 millones de euros respecto al año anterior.

Kapital higiezinaren etekin garbiak % 1,59ko partaidetza du zerga-oinarri orokorrean, eta aurrezkiaren oinarrian sartzen den zatiarekin batera, guztizko likidazio-oinarriaren % 2,71 egiten du, aurreko ekitaldietakoen antzeko ehunekoa.

La participación del rendimiento neto de capital inmobiliario en la base imponible general se sitúa en el 1,59% y junto con la parte que se engloba en la base del ahorro, suponen el 2,71% de la Base Liquidable Total, porcentaje similares a los de ejercicios precedentes.

Likidazio-oinarri orokorraren osagai nagusien bilakaeraren azterketarekin jarraituz, "Hondarra" izeneko horren barruan zerga-oinarria eratzen duten kontzeptuak nahiz likidazio-oinarri orokorrekoak sartu ditugu. Hau da, garrantzia kuantitatibo eskaseko beste kontzeptu batzuez gain, zerga-oinarriaren murrizketak ere sartzen dira.

Continuando con el análisis de la evolución de los principales componentes de la base liquidable general, dentro del denominado “Resto” hemos englobado tanto conceptos que forman parte de la base imponible como de la base liquidable general. Es decir se incluyen, además de otros conceptos con poca importancia cuantitativa, las reducciones de la base imponible.

Era horretan, 1.218 aitorpenetan ondare-elementuen eskualdaketatik ez datozen ondare-irabaziak batu dira. Sariak adibidez, guztira 2,5 milioi eurokoak izan dira eta.

Así se incluyen, 1.218 declaraciones que suman las ganancias de patrimonio no provenientes de transmisiones, y entre otras los premios, por un importe de 2,5 millones de euros.

Halaber, zergadunek Aurreikuspen Funtsetara eta Pentsio Planetara egindako ekarpenengatik zerga-

Se incluyen, así mismo, las reducciones en base imponible por las aportaciones de los

oinarrian aplikatzen diren murrizketak sartzen dira, eta baita zerga-ordainketa bateraturako finkatutako legezko murrizketa eta pentsio osagarriak ere.

BGAE eta pentsio planen ekarpenen zenbatekoak asko egin du behera, 4,64 milioi (% 1,57) 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, 290,59 milioi guztira. Hala ere, beherakada hori 2014koan gertatutakoa baino nahikoa baxuagoa da. 2014ko beherakada 107,20 milioikoa izan zen, 2013an baino % 26,71 gutxiago. 2014ko beherakada handi hori abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arau berria indarrean jarri zelako gertatu zen, horren bitartez banakako ekarpenen muga gutxitu zelako, 6.000tik 5.000 eurora pasatuz hain zuzen ere. 2015. urte honetan, beherakada gertatzearen arrazoia BGAE eta pentsio planen ekarpenen aitorpen kopurua gutxitzea izan da, 2014an 161.824 izatetik 2015ean 151.259 izatera pasatu baita. Hau da, 10.565 aitorpen gutxiago daude ekarpenekin, eta horrek esan nahi du % 6,53ko beherakada egon dela.

2015ean 1.921 euroko bataz bestekoa lortu da, 2014an baino 97 euro gehiago aitorpen bakoitzeko.

Hurrengo taulan zergadunek egindako ekarpenen banaketa ageri da, ekarpenen xedearen arabera. Hala, guztizko zenbatekoaren % 68,88 enpleguko BGAE-ei edo pribatuei egindako ekarpen propioetarako erabili da 125.563 aitorpenetan. Pentsio planetarako edo mutualitateetarako ekarpen propioak, berriz, guztizkoaren % 7,53 baizik ez dira.

Enpresa-egozketen kasuan (enpleguko BGAE edo pentsio planei dagozkie), ekarpenak kopuru osoaren % 17,96 dira BGAE-en kasuan eta % 0,66 besterik ez pentsio planen edo mutualitateen kasuan. Taulan bi kontzeptuok ageri dira gehituta. Guztira 32.283 aitorpenetan egotzi dira.

Aipagarria da ekitaldi honetan, 2014an gertatu zen bezala, gizarte aurreikuspenen ekarpenen guztirakoan igoera egon dela, enpresen BGAE, PP edo mutualitatetara egindako egozteetan: 2015ean % 17,96. Zenbait urte eman dute behera egiten (% 21,05 2010ean, % 17,4 2011n, % 12,71 2012an eta % 11,15 2013an).

Egindako gainerako ekarpenak legezko aukera desberdinei dagozkie eta ekarpenen zenbateko osoan duten pisua txikia da. Ezkontidearentzako ekarpenek, esate baterako, ehuneko 2,35 osatzen dute.

contribuyentes a Entidades de Previsión y Planes de Pensiones así como la reducción legal establecida para la tributación conjunta y las pensiones compensatorias.

En relación a la cuantía de las aportaciones a EPSV y PP se produce un descenso en su importe de 4,64 millones (1,57%) con respecto al ejercicio 2014, hasta un total de 290,59 millones. No obstante, este descenso es notablemente inferior al producido en el ejercicio 2014 donde el descenso fue de 107,20 millones (un 26,71% menos que en 2013). Ese fuerte descenso en 2014 fue debido a la entrada en vigor de la nueva Norma Foral 13/2013 de 5 de diciembre, que disminuyó el límite de las aportaciones individuales, pasando de los 6.000 a los 5.000 euros. Este año 2015, el descenso es debido a la reducción del número de declaraciones con aportaciones a EPSV y PP, que pasa de los 161.824 en 2014 a los 151.259 en 2015, es decir, hay 10.565 declaraciones menos con aportaciones, lo que supone un descenso del 6,53%.

En términos medios se obtiene en 2015 una media de 1.921 euros, superior a la de 2014 en 97 euros por declaración.


En el gráfico siguiente figura el desglose de las aportaciones realizadas por los contribuyentes según destino de las mismas. Así, el 68,88% del importe total se destina a las aportaciones propias a EPSV de empleo o privadas, en 125.563 declaraciones. Estas aportaciones propias, pero a Planes de Pensiones o Mutualidades suponen sólo el 7,53% del total.

En el caso de las imputaciones empresariales, que responden a EPSV o PP de empleo, las aportaciones suponen el 17,96% del total en el caso de las EPSV y apenas un 0,66% en Planes de Pensiones o Mutualidades. En el gráfico figuran ambos conceptos agregados. Son imputadas en un total de 32.283 declaraciones.

Cabe destacar que, en este ejercicio, al igual que ocurrió en el 2014, se ha producido un aumento en la participación en el total de aportaciones a sistemas de previsión social, de las imputaciones empresariales a EPSV, PP o Mutualidades, 17,96% en 2015, tras varios años en descenso continuado (21,05% en 2010, 17,4% en 2011, 12,71% en 2012 y 11,15% en 2013).

El resto de las aportaciones realizadas corresponden a posibilidades legales distintas y su peso en el importe total aportado es pequeño, por ejemplo las aportaciones en favor del cónyuge representan sólo el 2,35 por ciento.

Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen zenbatekoari buruzko banakapena
Desglose del importe de las Aportaciones a Sistemas de Previsión Social



2015eko ekitaldian, baterako zerga-ordainketaren ziozko murrizketen legezko zenbatekoak 4.218 eurokoak izan dira. Guraso bakarreko baterako aitorpenen kasuan 3.665 eurokoak izan dira. Murrizketa horiek ia 131.918 aitorpenetan egotzi dira, eta zenbatekoa 537,46 milioi eurokoa izan da, 2014an baino % 1,29 handiagoa.

Zerga-oinarriaren murrizpenetan sartzen den azken kontzeptua konpentsazio-pentsioei dagokie; pentsio horiek urteko 10,72 milioi euro inguruko kopuruari eusten diote.

Azkenik, guztirako likidazio-oinarriaren zenbatekoa negatiboa izan daitekeela aipatu beharra dago. Kasu horietan, zenbateko hori etorkizunean sortuko diren oinarri positiboen bidez konpentsatzeke geratzen da.

2015ko PFEZean, aurreko ekitaldietako oinarri negatiboetatik datorren zenbateko konpentsatua 3,03 milioi eurokoa izan da; aurreko ekitaldikoan baino 3,52 milioi gutxiago (% 53,69 gutxiago). Ekitaldian sortutako likidatzeko oinarri negatiboaren zenbatekoa (eta hurrengo urteetan konpentsatu ahal dena) 697.293 euro izan da. Zifra hori asko gutxitu da beste ekitaldiekin alderatuta (2014an baino % 52,33 gutxiago), 2014an gertatu zen bezala, ezin direlako ekitaldiko zerga-oinarrian enpresa eta lanbide jardueren etekin negatiboetan egotzi.

En el ejercicio 2015 los importes legales de la reducción por tributación conjunta se establecen en 4.218 euros y 3.665 euros en el caso de las declaraciones conjuntas monoparentales. Se imputan estas reducciones en 131.918 declaraciones por importe de 537,46 millones de euros, un 1,29% más que en 2014.

El último de los conceptos que se engloba en las reducciones de la base imponible es el de las pensiones compensatorias las cuales mantienen una cuantía cercana a los 10,72 millones de euros anuales.


Por último, comentar que el importe de la base liquidable general puede ser negativo. En estos casos ese importe queda pendiente para compensar con bases positivas futuras que se generen.

En IRPF 2015, el importe compensado, proveniente de bases negativas de ejercicios anteriores, ha sido de 3,03 millones de euros, 3,52 millones menos que el ejercicio anterior (un 53,69% menos). El importe de la base liquidable general negativa generada en el propio ejercicio y que puede ser compensada en los años siguientes, ha sido de 697.293 euros, cifra que se ha reducido sustancialmente respecto a otros ejercicios (un 52,33% menos que en 2014), al igual que ocurrió en el ejercicio 2014, por la no posibilidad de imputar los RAEPA negativos en la base imponible del ejercicio.

56. taula / Cuadro nº 56
Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren osagai nagusiak /
Principales componentes de la base liquidable del ahorro

Kontzeptua / Concepto	2015			
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Batez-bestekoa Media	Guztira-koaren gaineko % s/total
Etekin positiboa Rendimiento positivo post compensación	368.847	770.093.964	2.088	71,17%
+ Higikorren Kapitalaren Etekin garbia Rendimiento Capital Mobiliario neto	363.711	630.680.873	1.734	57,87%
- Higikorren Kapitalaren Etekin negatiboa Rendimiento Capital Mobiliario negativo	3.969	11.387.300	2.869	1,04%
+ Higiezinen Kapitalaren Etekina Rendimiento Capital Inmobiliario	34.128	156.379.599	4.582	14,35%
- Aurreko urteeko etekin negatiboaren konpentsaz. Compensaciones rend. neg. años anteriores	2.658	5.579.208	2.099	
Ondare irabaziak Ganancia patrimonial	127.338	320.140.506	2.514	28,83%
Aurrezkiaren zerga oinarria Base imponible del Ahorro	389.421	1.090.234.470	2.800	
Murriztapenak Reducciones	32	378.794	11.837	
Aurrezkiaren likidazio oinarriaren Guztira Total Base Liquidable del Ahorro	389.410	1.089.855.676	2.799	100,00%
	Zenbatekoa eurotan/ Importe en euros			

Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren osagaiak/
Componentes de la base liquidable del ahorro



Aurrezkiaren oinarriari dagokionez, Foru Arauaren

En lo que se refiere a la base de ahorro el artículo 63

63. artikuluak dio honako hauen baturak osatuko duela: etxebizitzen errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinak 34., 35. eta 36. artikuluetako kapital higigarriaren etekinak eta ondare elementuak eskualdatzeagatik sortutako ondare irabaziak, horiek sortzeko aldia gorabehera.

de la Norma Foral dice que estará compuesta por la suma de los rendimientos de capital inmobiliario procedentes del arrendamiento de viviendas, por los rendimientos de capital mobiliario de los artículos 34, 35 y 36 y por las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de elementos patrimoniales con independencia de su periodo de generación.

Osagai horietatik garrantzitsuena kapital higigarriaren etekina da, zenbatekoagatik eta aitorpenen kopuruagatik, 363.711 agiritan, guztira, 642,07 milioi euroko etekina aitortu baita, jasotako dibidenduen lehen 1.500 euroen salbuespena kendutakoan.

El más importante de estos componentes por su cuantía y por el número de declaraciones es el rendimiento de capital mobiliario, ya que en un total de 363.711 documentos se declara un rendimiento de 642,07 millones de euros una vez descontada la exención de los primeros 1.500 euros de los dividendos percibidos.

Kapital higigarriaren 11,4 milioiko etekin negatiboak kendu ondoren, Kapital Higigarriaren Etekin Garbia kargatuta 630,68 milioi eurokoa da.

Una vez detraídos los rendimientos negativos de capital mobiliario por importe de 11,4 millones, el importe total del Rendimiento Neto de Capital Mobiliario sometido a gravamen es de 630,68 millones de euros.

Etekin garbi hori diru-sarrera gordinen eta dibidenduengatiko salbuespenen ezberdintasunarekin bat dator; salbuespen hori diru-sarrera gordinen % 10,08 da.

Este rendimiento neto se corresponde con la diferencia entre los ingresos brutos y la exención por dividendos, dicha exención representa el 10,08% de los ingresos brutos.

Kapital Higigarriaren Etekin Garbiaren barne (etekin positiboak eta negatiboak barne), guztizkoaren % 61,06 aitortutako dibidenduei dagokio, baina aplikatutako 1.500 euroko salbuespena kentzen baldin badugu, etekin garbiko parte-hartze guztia % 49,85era arte jaisten da.

Dentro del Rendimiento Neto de Capital Mobiliario (incluidos los rendimientos positivos y negativos), el 61,06 % del total corresponde a los dividendos declarados, pero si detraemos la exención de los 1.500 euros aplicada, esta participación en el total del rendimiento neto se rebaja hasta el 49,85%.

Horren atzetik honako hauek izan dira garrantzitsuenak: kontu korronteetako eta aurrezki kontuetako interesetatik datorren etekina (% 29,83), eta, urruti, gainerako etekinak, hala nola obligazioen eta bonuen interesak (% 12,31), aseguru eta kapitalizazio eragiketen ondoriozko etekinak (% 8,93) eta altxorraren letrak (% 0,06). Bukatzeko, aktiboen eskualdaketengatiko eratorriek ekitaldi honetan balio negatiboa izan dute, 5,95 milioi eurokoa.

Le sigue en importancia el rendimiento proveniente de los intereses de cuentas corrientes y de ahorro con un 29,83% y a mayor distancia el resto de los rendimientos tales como intereses de obligaciones y bonos (12,31%), los rendimientos derivados de las operaciones de seguros y capitalización (8,93%) y las letras del tesoro (0,06%). Por último, los derivados de la transmisión de activos han tenido en este ejercicio un valor negativo de -5,95 millones de euros.

Aurrezkiaren oinarriaren parte den etekin positiboaren osagaietako bat etxebizitzetarako erabiltzen diren higiezinen alokairutik datorren etekin garbia da. Talde hori etxebizitzetarako erabiltzen ez diren alokairutik datorrenaz bestelakoa da, eta azken hori oinarri orokorrean sartzen da.

Otro de los componentes del rendimiento positivo que forma parte de la base de ahorro es el rendimiento neto proveniente del arrendamiento de inmuebles que se destinan a viviendas y que se separa del proveniente del arrendamiento de los inmuebles que no lo son, el cual se incluye en la base general.

Egotzitako etekin garbia 34.128 aitorpenetan 156,38 milioi eurokoa izan da, eta 18,47 milioiko hazkundea izan da aurreko urtearekin alderatuta, 4.227 aitorpen gehiago. Honako hauetatik dator etekin garbi hori: aitorturiko 206,94 milioi euroko sarreretatik, interesei dagozkien 9,11 milioi euroko gastuetatik eta aplikaturiko 41,45 milioi euroko hobaritik.

El rendimiento neto imputado en 34.128 declaraciones ha sido de 156,38 millones de euros con un aumento, respecto al año anterior, de 18,47 millones en 4.227 declaraciones más. Este rendimiento neto se deriva de unos ingresos declarados de 206,94 millones, de unos gastos por intereses de 9,11 millones y una bonificación aplicada de 41,45 millones.

Gogoratu egin behar da araudiak aukera ematen duela etxebizitzen kasuan ehuneko 20ko hobaria aplikatzeko higiezin bakoitzagatik eskuratutako etekin osoen gainean eta bestelako gastu kengarrien kontzeptuagatik. Izan ere, erosketan eta hobekuntzan inbertitutako besteen kapitalen interesak kentzea bakarrik onartzen da. Hobariaren eta interesen arteko baturak ezingo du etekin garbi negatiborik ekarri eraikin bakoitzarentzat.

Ondare irabaziei dagokienez, araudiak aurrezpenaren oinarriaren barruan sortutako guztiak hartzen ditu, haiek sortu ziren aldia urtebete baino gehiagokoa edo gutxiagokoa izatea alde batera utzita. Aitzitik, irabazi edo galera batzuk erreserbatu egiten ditu, adibidez sarietatik eratorritakoak eta, orokorrean, ondare-elementu bat guztirako oinarrian sartzeko eskualdatzetik etortzen ez diren guztiak.

Xehetasunei erreparatuta, urteko 390 eta 391 motako 3.338 ereduen bitartez eskatutako zenbatekoa 83,08 milioi eurokoa izan zen, 2015ko BEZeko 90,19 milioien eta 3.217 dokumentuen aldean. Guztira itzulketa egiteko urteko eskaeretan 7,11 milioi euro gutxiago egotea dakar.

En detalle, el importe solicitado a través de los 3.338 modelos anuales 390 y 391 con solicitud, fue de 83,08 millones de euros, frente a los 90,19 millones y 3.217 documentos de IVA 2015. En conjunto supone rebajas en las solicitudes de devolución anuales de 7,11 millones de euros.

Araubide orokorrean 3.189 itzulketa-eskaera aurkeztu dira urteko 390 ereduan, guztira 82.072 milioi euro. Datuak eskuratu diren egunean eredu horietatik 2.732 likidatuta egon dira, 65,06 milioi euro.

Se han presentado 3.189 solicitudes de devolución por importe de 82.072 millones de euros en modelo 390, anual del régimen general, de las cuales, a la fecha de la obtención de los datos, se ha procedido a la liquidación de 2.732 por un importe de 65,06 millones.

Datuak lortu diren egunean 390 ereduko 457 agiritako itzulketak egon dira egin gabe: 17,01 milioi euro.

Quedan pendientes de devolución, a la fecha de obtención de los datos, 457 documentos del modelo 390 por un importe de 17,01 millones de euros.

Txosten hau egin denean, 2017ko azaroan, kudeaketa datuen arabera, berrikusi gabe egon dira guztira 15,17 milioi euro egiten duten itzulketak, eta itzulketa bidezkoa ez izateagatik ezezkoa eman da guztira 1,83 milioi egiten duten hainbat espedientetan.

A la fecha de la realización de este informe, noviembre de 2017, y según datos de gestión, quedan pendientes de revisión devoluciones por un importe de 15,17 millones euros, habiendo sido denegados expedientes por importe de 1,83 millones por devolución no procedente.

391 ereduan (araubide erraztua), 149 agiri aurkeztu dira, 1,01 milioi itzultzeko eskatuz. Horietatik 141 likidatu dira, 0,97 milioi euro guztira, eta datuak lortu diren egunean 37.000 euro baino ez daude itzultzeke.

En el modelo 391, régimen simplificado, se han presentado 149 documentos con una solicitud de devolución de 1,01millones de las cuales se han liquidado 141 por importe de 0,97 millones, quedando pendientes, a la fecha de la obtención de los datos, devoluciones por 37.000 euros.

303 ereduaren bidez izapidetzen diren hileko itzulketei dagokienez, 8.541 agiri aurkeztu dira eta horietan 562,41 milioi euro eskatu dira. Horietatik 8.276 agiri likidatu dira eta guztira 535,4 milioi euro itzuli dira. Ebatzi gabe daude 265 espediente, 27,01

Respecto a las devoluciones mensuales tramitadas a través del modelo 303 se han presentado 8.541 documentos que han solicitado 562,41 millones de euros y se ha procedido a la liquidación de 8.276 documentos por un importe efectivamente devuelto de 535,4 millones, quedando pendientes 265 expedientes

milioi inguruko itzulketa-eskaerak dituztenak, guztira.

con devoluciones solicitadas cifradas en 27,01 millones.

Txosten hau egin den garaian, 2017ko azaroan, berrikusi gabe egon dira guztira 21,42 milioi euroko itzulketak.

A la fecha de la realización de este informe, noviembre 2017, quedan pendientes de revisión devoluciones por un importe de 21,42 millones euros.

Zerga-kontsolidazioaren araubideko taldeek BEZean hileko 353 ereduaren bidez aurkezten dituzte euren emaitza ekonomikoak. Itzultzeko eskaera izan duten 296 eredu aurkeztu dituzte, taldeko erakunde nagusiak, 2016ean, itzultzeko 75,79 milioi eskatuz. Haietatik 267 agiri likidatu dira, 66,69 milioi itzuliz. 9,09 milioi eskatzen duten 29 agiri geratu dira ebatzi gabe (8,74 milioi euro, 2017ko azaroan).

Los grupos de consolidación fiscal en IVA presentan sus resultados de carácter económico a través del modelo 353 mensual. Se han presentado 296 modelos, entidades dominantes de grupo, con solicitud de devolución en 2016, por importe de 75,79 millones, de los cuales se han liquidado 267 documentos por un importe de 66,69 millones y quedando pendientes 29 documentos que han solicitado 9,09 millones (8,74 millones de euros a fecha de noviembre 2017).

Laburbilduz, guztira 11.416 agiri likidatu dira, 668,13 milioi itzultzeko. Ebatzi gabe daude 53,15 milioi euro eskatzen duten 759 agiri. Haietatik asko administrazioak agiri gehiago eransteko edo zergadunek emandako datuak argitzeko eskatutako agiriak dira. Gainera, 7,82 milioiko itzulketa-eskaerak ezetsi dira, bidezkoak ez izateagatik.

En resumen, se han liquidado un total de 11.416 documentos para proceder a la devolución de 668,13 millones, quedando pendientes de revisión 759 documentos que han solicitado 53,15 millones de euros, los cuales en un alto porcentaje son documentos requeridos por la Administración con el fin de que se adjunte más documentación o se proceda a aclarar los datos consignados por parte de los contribuyentes. Además, 7,82 millones de devolución se han desestimado por no procedentes.

Txosten hau egin den egunean, 2017ko azaroan, 2016ko BEZari dagozkion eta dirua itzultzeko eskaera zuten dokumentuetan berrikusteke zegoen zenbatekoa 45,33 milioikoa zen.

A la fecha de la realización de este informe, noviembre 2017, el importe pendiente de revisión de aquellos documentos relativos a IVA 2016 con solicitud de devolución asciende a 45,33 millones.

2016ko BEZaren itzulketarako eskaeren berrikuspenean eta likidazioan lortutako aurrezkia 7,82 milioikoa izan zen, administrazioaren mesedetan.

El ahorro obtenido en la revisión y liquidación de las solicitudes de devolución de IVA 2016 ha sido de 7,82 millones a favor de la Administración.

76. taula / Cuadro nº 76
Itzulketak / Devoluciones

Kontzeptuak / Conceptos	Eskabideak / Solicitudes			Likidazioak / Liquidaciones		
	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Batazbesteko zenbatekoa Importe medio	Kopurua Número	Zenbatekoa Importe	Batazbesteko zenbatekoa Importe medio
Urteko itzulketak (390. eta 391.ereduak) Devoluciones anuales (modelos 390 y 391)	3.338	83.080	25	2.873	66.035	23
- Enpresa handiak eta bestelakoak Grandes empresas y otros	184	21.855	119	134	13.467	101
- Enpresa txiki eta ertainak Pequeñas y medianas empresas	3.154	61.225	19	2.739	52.568	19
Hileko itzulketak (303. eredua) Devoluciones mensuales (mod. 303)	8.541	562.412	66	8.276	535.401	65
Sozietate taldeko itzulketak (353. eredua) Devoluciones grupos de sociedades (mod. 353)	296	75.787	256	267	66.698	250
Itzulketa Guztira / Devoluciones Totales	12.175	721.279	59	11.416	668.134	59

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

V.4.4. Zerga-oinarriak eta karga-tasak
Bases imponibles y tipos de gravamen

2016ko BEZa aztertzean, zerga-oinarriak gorantz egin izana da daturik deigarriena. 2016ko BEZaren guztizko zerga-oinarria (baliokidetasun errekargua sartu barik) 56.313,17 milioi eurokoa izan da. 2015eko BEZean lortutakoaren aldean (50.878,60 milioi euro) % 10,68 igo da, 5.435,58 milioi euro gehiago bildu baitira.

A la hora de analizar IVA 2016, lo que más llama la atención es el ascenso de la base imponible. La base imponible total de IVA 2016 (sin incluir recargo de equivalencia) alcanza la cifra de 56.313,17 millones de euros, con un aumento cifrado en 5.435,58 millones de euros respecto a la respectiva obtenida en IVA 2015 (50.878,60 millones de euros), el 10,68%.

Horrek esan nahi du aurreko ekitaldian berreskuratutako goranzko joerari eutsi zaiola, 2013. urtean izandako murrizketaren ondoren. Serie estatistikoan zehar beti izan dira gorakada handiagoak edo txikiagoak, baina joera beti izan da goranzkoa. Barne kontsumoa suspertzea izan da zerga-oinarriaren gorakadaren arrazoia.

Esto supone una continuación de la tendencia ascendente recuperada en el ejercicio anterior, tras la reducción sufrida en el año 2013. A lo largo de la serie estadística siempre se han producido aumentos, en mayor o menor medida, pero siempre ha tenido una tendencia ascendente. La recuperación en el consumo interno explica el ascenso de la base imponible.

Baliokidetasun-errekarguaren oinarria gehituz gero, guztizko oinarriaren aldakuntza positiboaren ehunekoak bere horretan segitzen du: 57.055,81 milioi euro 2016an, 51.626,19 milioi euro 2015ean.

Si agregamos la base por Recargo de Equivalencia la variación positiva de la base total se mantiene en términos porcentuales similares, y dicha base se sitúa en 57.055,81 millones de euros en 2016 frente a 51.626,19 millones de euros en 2015.

2016an zerga-tasen ziozko zerga-oinarria guztizkoaren % 84,55 izan da, baliokidetasun-errekarguaren ziozko oinarria % 1,30, Batasunaren barruko eskuraketen zerga-oinarria % 6,78 eta subjektu pasiboen inbertsioagatiko zerga-oinarria % 7,37.

La base imponible por tipos impositivos en 2016 supone el 84,55% del total, la base por recargo de equivalencia supone el 1,30%, la base imponible de las adquisiciones intracomunitarias el 6,78% y la base imponible por inversión del sujeto pasivo el 7,37%.

Zerga-tasen ziozko oinarrien artean, bere pisu espezifikoagatik nabarmentzen da, noski, tasa orokorreko zerga-oinarria. Tasen ziozko guztizko zerga-oinarriaren %82,43 izan da eta zerga-oinarri osoaren %69,69. Beraren zenbatekoa hazi egin da 2015eko BEZaren aldean: 4.827,49 milioi gehiago, % 13,82ko gorakada.

Dentro de las bases por tipos impositivos, como es lógico, destaca por su peso específico la base imponible al tipo general. Representa el 82,43% del total de base imponible por tipos y el 69,69% de la base imponible total. El aumento en su importe, respecto a IVA 2015, ha sido de 4.827,49 millones, el 13,82%.

Tasa oso murriztuko zerga-oinarria eta tasa murriztuko zerga-oinarria ere hazi egin dira; azken hori 2015eko ekitaldikoa baino 195,34 milioi gehiagokoa izan da, hau da, ehunekotan, % 2,91 handiagoa.

También se incrementan la base imponible a tipo súper reducido y la base a tipo reducido, esta última, respecto al ejercicio 2015, aumenta en 195,34 millones, lo que en términos porcentuales supone un incremento de 2,91%.

Tasa oso murriztua (% 4an mantentzen dena) aplikatu zaienen zerga-oinarrien urte arteko aldakuntza ere positiboa izan da: 33,75 milioi euro gehiago, % 1,97ko gehikuntza.

La variación interanual de la base imponible a tipo súper reducido, que se mantiene en el 4 por 100, ha sido también positiva y se cifra en 33,75 millones de euros más, un 1,97%.

Kontsumoa suspertzea izan da horren guztiaren arrazoi nagusia.

Todo ello se explica principalmente por la recuperación del consumo.

Beste tasaren bat aplikatu zaienen oinarria 2015ekoa baino gutxiago izan da; bi ekitaldietan aurreko

La base a otros tipos, se cuantifica en cifras inferiores al 2015 y en ambos ejercicios recoge la regularización

urteetako tasen erregularizazioa egin da.

Beste alde batetik, Batasunaren barruko eskuraketen zerga-oinarrian ere aldakuntza tasa positiboa izan da: 4,46 milioi euro gehiago,% 0,12ko igoera.

Subjektu pasiboen inbertsioen oinarriaren gehikuntza esanguratsuagoa da, 453,36 milioi eurokoa izan dena, % 12,08 handiagoa.


Beraz, kontuan izanik luzaroan krisian egon garela eta bitarte horretan barne-kontsumoaren geldialdia eduki dugula, baieztatu daiteke 2016ko ekitaldian jarduera ekonomikoak eutsi egin diola 2014an hasitako susperraldiari. Ondorioz, kontsumo zenbatekoak hazi egin dira; horren erakusgarri, zerga-oinarriek gora egin dute tasa guztiekin (salbuespen gisa, jaitsiera txikia izan dugu baliokidetasunaren araubideko oinarrian).

del cambio de tipos de años precedentes.

Por su parte, la base imponible correspondiente a las adquisiciones intracomunitarias sufre también tasas de variación positiva, en este caso del 0,12%, que aumenta la misma en 4,46 millones de euros.

Más significativo es el incremento en, la base por inversión de sujeto pasivo, que aumenta en un 12,08%, 453,36 millones de euros.

Por tanto, viniendo de una situación de crisis en la que hemos estado instalados, en la que el consumo interno claramente se había estancado, se puede afirmar que en el ejercicio 2016 continuamos con la recuperación de la actividad económica iniciada en el 2014. Ello ha derivado en un cierto repunte de los importes de consumo, tal como se manifiesta en los ascensos de las bases imponibles a los diferentes tipos (excepto un mínimo descenso producido en la base del régimen de equivalencia).



77. taula / Cuadro nº 77

Zerga-oinarriak karga-tasen arabera / Bases imponibles según tipos de gravamen

Zerga-tasa / Tipo impositivo	Zerga oinarria / Base imponible				% Aldakuntza Variación 2016/2015
	2016		2015		
	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	
100eko 4 / 4 por 100	1.742.844	3,05	1.709.091	3,31	1,97
100eko 10/ 10 por 100	6.906.647	12,11	6.711.304	13,00	2,91
100eko 21/ 21 por 100	39.761.504	69,69	34.934.011	67,67	13,82
Bestelakoak / Otros	-171.491	-0,30	-91.660	-0,18	87,10
Guztira, zerga-oinarria / Total base imponible por tipos	48.239.504	84,55	43.262.746	83,80	11,50
Erkidegoaren barruko eskuraketen oinarrria Base adquisiones intracomunitarias	3.867.405	6,78	3.862.947	7,48	0,12
Subjetu pasiboaren inbertsioen ziozko oinarria Base inversión del sujeto pasivo	4.206.265	7,37	3.752.903	7,27	12,08
Zerga oinarria guztira Baliokidetasun gainkargupekorik gabe / Total Base imponible sin Recargo Equivalencia	56.313.174	98,70	50.878.596	98,55	10,68
Baliokidetasun gainkargupeko zerga oinarria guztira Total base régimen de equivalencia	742.633	1,30	747.595	1,45	-0,66
Baliokidetasun gainkargupeko zerga oinarria guztia Total base imponible con recargo de equivalencia	57.055.807	100,00	51.626.191	100,00	10,52

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

Baliokidetasun-errekarguei dagokienez, hots, merkatari txikizkariei aplikatzen zaien araubide bereziari dagokionez, zerga-oinarrien guztizko zenbatekoa % 0,66 gutxitu da. Ikus ditzagun datuak tasen arabera xehakatuta:

- Tasa orokorrari dagokionez, hots, % 5,2ko tasari dagokionez, oinarria % 2,51 igo da: 2015ean 103,44 milioi izatetik 2016an 100,84 milioi izatera pasatu da.
- % 1,4ko errekarguari dagokion zerga-oinarria ere gutxitu da 2016an, 5,84 milioi gutxiagokoa izan da 2015ekoa baino, hau da, % 3,45 gutxitu da.
- Bestalde, % 1,75eko tasari dagokion oinarria (tasa hori tabakoari bakarrik aplikatzen zaio) % 2,20 gutxitu da.
- % 0,5eko errekarguari dagokion zerga-oinarria, aldiz, % 2,94 igo da.

2016an % 5,2ko eta % 1,4ko errekargu-tasei dagozkien zerga-oinarriak oso gutxi aldatu dira tasa

En lo que concierne a los recargos de equivalencia, régimen especial al que se acogen los comerciantes minoristas, la base imponible total disminuye 0,66%. En concreto, por tipos evoluciona así:

- Respecto al tipo general, al tipo de 5,2%, la base disminuye un 2,51%, pasando de 103,44 en 2015 a 100,84 millones en 2016.
- La base imponible del recargo del 1,4% también disminuye en 2016 en 5,84 millones respecto a 2015, lo que supone una disminución del 3,45%.
- Por su parte, la base al 1,75% (sólo aplicable al tabaco) disminuye un 2,20%.
- La base imponible del recargo del 0,5 %, en cambio, aumenta un 2,94%.

Las bases imponibles de los tipos de recargo al 5,2 por 100 y al 1,4 por 100 en 2016, varían mínimamente su

orokorreko eta tasa murriztuko zerga-oinarrien aldean.

Era berean, % 5,2ko errekarguari dagokion oinarriak, % 21eko tasa orokorreko oinarriaren aldean, eutsi egin dio bere ordezkagarritasunari.

2016ko BEZaren tasa guztiei dagozkien zerga-oinarrien zenbatekoari buruz aritzean azaldu dugun bezala, kontsumoaren eta jarduera ekonomikoaren hobekuntzak berekin ekarri du apur bat hobera egitea bai oinarriek bai oinarri horien ondorioz sortutako kuotek.

2016ko ekitaldian tasa guztiek sortutako kuota 9.075,2 milioikoa izan da, eta 2015eko BEZean 8.047,02 milioi eurokoa izan zen; hortaz, % 12,78ko aldakuntza positiboa izan da.

2016. ekitaldiko batez besteko zerga-tasa (tasa desberdinetako kuotak eta oinarriak baino ez) %18,81 izan da, hau da, 2015ekoa baino 0,21 ehunen gehiago.

Batasunaren barruko eskuraketek sortutako kuoten guztizko zenbatekoa 712,05 milioi euro izan da (2015ean baino 0,43 milioi gutxiago); batez besteko tasa % 18,41 izan da, ia ehuneko 0,03 puntu gutxiago.

2016an subjektu pasiboaren inbertsioagatiko oinarrietatik datorren kuota (zerga-tasa desberdinetan sortutako oinarrietatik bereizita aitortu behar dena) 861,28 milioi eurokoa izan da. Oinarria 4.206,27 milioikoa izan denez, batez besteko zerga-tasa % 20,48koa izan da.

2016ko BEZeko zerga-oinarriaren eta sortutako kuotaren (baliokidetasun araubidearen aurretik) arteko erlazioaren bitartez batez besteko karga-tasa lor dezakegu, eta 2016an ehuneko 18,91 izan da, 2015eko BEZarena baino ehuneko 0,2 puntu gehiago.

Baliokidetasun errekarguei dagokien zerga-oinarriak 12,41 milioiko kuota sortu du. Baliokidetasun errekarguari dagokion batez besteko karga-tasa 2016an gutxitu da 2015eko batez besteko tasaren aldean, eta % 1,67 izan da.

representatividad respecto a sus correspondientes bases imponibles del tipo general y reducido.

Asimismo, la base por recargo del 5,2 % en relación a la base al tipo general del 21% mantiene su representatividad.

Tal como hemos venido diciendo a la hora de comentar las cuantías de las bases imponibles a los diferentes tipos en IVA 2016, la mejora en el consumo y en la actividad económica implica una ligera mejora tanto en las bases como en las cuotas devengadas por dichas bases.

La cuota devengada por los diversos tipos correspondiente al ejercicio 2016 se elevó a 9.075,2 millones frente a 8.047,02 millones de euros en IVA 2015, lo que supone una variación positiva del 12,78%.

Por lo que respecta al tipo medio de gravamen (sólo cuotas y bases por tipos diferentes) para el ejercicio 2016 se ha situado en el 18,81% con un incremento de 0,21 centésimas al obtenido en 2015.

La cuota devengada por adquisiciones intracomunitarias se cifra en 712,05 millones de euros, (0,43 millones menos que en 2015) y obteniéndose un tipo medio del 18,41%, 0,03 puntos porcentuales menor.

La cuota proveniente de bases por inversión del sujeto pasivo, que debe ser declarada independientemente de las bases devengadas a los distintos tipos de gravamen, en 2016 alcanza la cifra de 861,28 millones que sobre una base de 4.206,27 millones se obtiene un tipo medio de gravamen del 20,48%.

La relación de la base imponible y la cuota devengada de IVA 2016 antes del Régimen de Equivalencia nos permite obtener el tipo medio de gravamen que para 2016 es del 18,91, superior al respectivo de IVA 2015 en 0,2 puntos porcentuales.

La base imponible correspondiente a los Recargos de Equivalencia ha obtenido una cuota devengada de 12,41 millones. El tipo medio de gravamen correspondiente al Régimen de Recargo de Equivalencia en 2016 disminuye respecto al tipo medio de 2015, y se sitúa en el 1,67%.

78. taula / Cuadro nº 78
Baliokidetasun-errekargua / Recargo de equivalencia

Errekargu-tasa Tipo recargo	Zerga oinarria / Base imponible					Portzentajea bidez. Inarriari dagokionez Porcentaje respecto a base correspondiente	
	2016		2015		Bariazio portzentajea Porcentaje de variación		
	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo		2016	2015
100eko 0,5 / 0,5 por 100	279.127	37,59	271.166	36,27	2,94	16,02	15,87
100eko 1,4 / 1,4 por 100	163.501	22,02	169.337	22,65	-3,45	2,37	2,52
100eko 5,2 / 5,2 por 100	100.838	13,58	103.437	13,84	-2,51	0,25	0,30
100eko 1,75 / 1,75 por 100	199.168	26,82	203.655	27,24	-2,20		
Guztira/ Totales	742.634	100,00	747.595	100,00	-0,66		

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

Labur azalduta, zerga-oinarriaren guztizko zenbatekoa, baliokidetasun errekargua barne, % 10,52 hazi da, eta sortutako kuota ere hazi egin da baina portzentaje handiagoan, % 11,86 egin baitu gora (10.660,95 milioiraino); horren ondorioz apur bat igo da batez besteko karga-tasa, 0,23 ehunen, hain zuzen, % 18,69ra igo baita.

En resumen, se produce un incremento del total de la base imponible, incluyendo el Recargo de Equivalencia, del 10,52%, aumentando también la cuota devengada en un porcentaje mayor, un 11,86% (hasta los 10.660,95 millones), lo que ha hecho aumentar ligeramente el tipo medio de gravamen en 0,23 centésimas hasta un 18,69%.

V.4.5 Kenkariak eta BLHri egotz dakiokeen emaitza
Deducciones y resultado atribuible al T.H.B

2016an araubide orokorrean aplikatutako kenkariek goranzko joera izan dute, sortutako guztizko BEZak eta zerga-oinarriak bezala. Araubide orokorrean aplikatutako kenkarien zenbatekoa hazi egin da. Izan ere, jasandako kuoten edo kenkarien zenbatekoa 8.195,26 milioi euro izan da 2016an, aurreko ekitaldian baino 1.077,27 milioi euro gehiago; beraz, % 15,13ko igoera izan da.

En 2016 las deducciones aplicadas en el régimen general han seguido la misma tendencia alcista que han sufrido el IVA devengado total y la base imponible. Las deducciones aplicadas en el régimen general han aumentado en su cuantía. Así estas cuotas soportadas o deducciones han ascendido en el año 2016 a 8.195,26 millones, 1.077,27 millones de euros más que en el ejercicio anterior, lo que supone un 15,13%.

Kenkari motak aztertuta, Batasunaren barruko eragiketak dira garrantzitsuenak, ekitaldian aplikatutako kenkarien guztizko zenbatekoaren % 87,63 baitira, hau da, guztira 7.181,60 milioi euro. 2016an goranzko aldakuntza izan dute, urtean 1.078,15 milioi inguru, % 17,66ko tasa positiboarekin.

Analizando los tipos de deducciones, las operaciones interiores son las más relevantes ya que representan el 87,63% del total deducido a lo largo del ejercicio, con un importe de 7.181,60 millones de euros. En 2016 han experimentado una variación al alza, alrededor de 1.078,15 millones anuales con una tasa positiva del 17,66%.

Garrantziaren arabera, ondoren kanpo-merkataritzarekin lotutako kenkariak eta Batasunaren barruko erosketengatiko kenkariak datoz. Kasu honetan, Batasunaren barruko erosketei lotutako eragiketak 706,61 milioi eurokoak izan dira, guztizko zenbatekoaren % 8,62, eta % 0,23 gutxitu dira (1,61 milioi euro).

Le siguen en importancia por su cuantía las deducciones relacionadas con el comercio exterior y las deducciones por adquisiciones intracomunitarias. En este caso, las operaciones relacionadas con las adquisiciones intracomunitarias que se elevan a 706,61 millones de euros, representan el 8,62% del total y han disminuido el 0,23% (1,61 millones de euros).

Inportazioekin lotutakoak hazi egin dira aurreko urtekoekin alderatuta; hain zuzen ere, 301,26 milioikoak izan dira, eta aurreko urtean 292,63 milioikoak izan ziren; beraz, % 2,95 hazi dira.

Las relacionadas con las importaciones presentan una cifra superior respecto al año precedente, 301,26 millones frente a 292,63 millones, lo que supone un aumento del 2,95%.

79. taula / Cuadro nº 79
Kenkariak/Deducciones

Kenkariak Deducciones	2016		2015		% Aldakuntza Variación 2016/2015
	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	Zenbatekoa Importe	Portzentaje erlatiboa Porcentaje relativo	
Barruko eragiketengatik jasandako kuotak Cuotas soportadas operaciones interiores	7.181.603	87,63	6.103.455	74,48	17,66
Inportazioengatik jasandako kuotak Cuotas soportadas importaciones	301.255	3,68	292.626	3,57	2,95
Konp. Araub. Berez. Nekaz., abel, arran. Comp.rég.especial agric.,ganad.y pesca	4.300	0,05	14.211	0,17	-69,74
Inbertsioengatiko erregularizazio Regularización por inversiones	1.492	0,02	-514	-0,01	390,27
Erkidego barruko eskuraket. dedukzioak Deducciones adquisiciones intracomun.	706.612	8,62	708.217	8,64	-0,23
Ekitaldiko kenkariak, guztira Total deducciones del ejercicio	8.195.264	100,00	7.117.995	86,85	15,13

Zenbatekoak milaka eurotan / Importes en miles de euros

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko konpentsazioari dagokionez, horren garrantzia oso txikia da, 2015eko aldean % 69,74ko jaitsiera handia izan duen arren, guztira 4,3 milioi eurora heldu arte.

En relación a la Compensación del Régimen especial de agricultura, ganadería y pesca, su importancia es muy pequeña aunque se ha producido una gran disminución respecto al 2015 del 69,74% hasta un total de 4,3 millones de euros.

Aurreko kasuan ez bezala, inbertsioen erregularizazioaren ziozko kenkariak asko egin du gora: 2015an -514.000 euroko saldo negatiboa izan zuen eta 2016an 1,49 milioi euroko saldoa positiboa izan du.

A diferencia de lo ocurrido en el caso anterior, la deducción por regularización de inversiones aumenta mucho, pasando de tener un saldo negativo en 2015 de -514.000 euros a un saldo positivo de 1,49 millones de euros en 2016.

Bi kenkarien zenbatekoen baturak (5,79 milioi) ia ez dauka pisu espezifikorik aplikatutako kenkarien guztizko zenbatekoan.

La suma de los importes de ambas deducciones alcanza la cifra de 5,79 millones y apenas tiene peso específico en el importe total de las deducciones aplicadas.

Sortutako guztizko kuota eta kenkariak alderatzen badira 2016ko ekitaldian, biek ere gora egin dutela ikusten da: hurrenez hurren lehenengoan % 11,86 eta bigarrenean % 15,13.

Si se comparan la cuota devengada total y las deducciones en el ejercicio 2016, se puede apreciar un aumento tanto de la primera (11,86%) como de la segunda (15,13%).

Laburbilduta, 2016ko BEZean araubide orokorrean sortutako kuotaren zenbatekoa (baliokidetasun araubidea barne) 10.660,95 milioi euro izan da, eta ekitaldiko kenkarien zenbatekoa, berriz, 8.195,26 milioi euro; hortaz, 2016ko ekitaldian kenkarien portzentajea % 76,87 izan da, eta 2015ean, berriz, % 74,69 izan zen.

En resumen, si la cuota devengada en el Régimen General de IVA 2016 (incluido régimen de equivalencia) se eleva a 10.660,95 millones de euros y las deducciones del ejercicio a 8.195,26, el porcentaje deducido en este ejercicio se sitúa en el 76,87% siendo este parámetro del 74,69% en 2015.

Hortaz, 2016ko BEZaren eta 2015eko BEZaren magnitude nagusietan aldakuntza hauek gertatu dira:

En resumen, las principales magnitudes de IVA 2016 e IVA 2015 han registrado las siguientes variaciones:

80. taula/ Cuadro nº 80
BEZaren magnitude nagusien aldakuntza (ehunekoak)
Porcentajes de variación de las principales magnitudes del IVA

Kontzeptua / Concepto	2016	2015
Guztizko zerga oinarria Total base imponible	10,52%	2,80%
Sortutako BEZagatiko guztizko kuota Total cuota IVA devengada	11,86%	2,42%
Jasandako BEZa, guztira (kenkariak) Total IVA soportado (deducciones)	15,13%	4,56%
Araubide orokorrek emaitza Resultado Régimen General	2,21%	-3,44%

Datu horiek ikusita, argi geratzen da kenkarien gehikuntza gertatu dela eta hori zerga-oinarriaren eta sortutako kuotaren hazkuntza baino handiagoa izan dela. Dena dela hazi egiten da Araubide Orokorreko emaitza aurreko ekitaldiarekin alderatua hala BEZ sortuan nola BEZ jasanean hazkuntza-tasa handiagoengatik.

A la vista de estos datos, se aprecia un aumento de las deducciones en mayor medida que el aumento de la base imponible y de la cuota devengada, no obstante, aumenta el resultado del Régimen General con respecto al año anterior por las mayores tasas de crecimiento tanto del IVA devengado como del IVA soportado.

Zerga-oinarriaren, kuotaren eta kenkarien hazkunde positiboko tasa horiek berretsi egiten dute joera aldaketa, eta lehengoratu egin da aurreko ekitaldietan

Estas tasas de crecimiento positivo ratifican un cambio de tendencia que recupera la senda de crecimiento que

antzeman zen hazkuntzaren joera.


2016an Zergaren likidazioaren ondoriozko diru-sarrerak (araubide orokorra gehi araubide erraztua) 3.140,04 milioi eurokoak izan dira (2015ean baino 21,11 milioi gehiago). Beste alde batetik, -713,24 milioi euroko itzulketak izan dira (2015ean baino 7,36 milioi gehiago). Azkenik, konpentsazioen saldoan 50.002 euroko aldakuntza negatiboa gertatu da.

Diru-sarrerei itzulketak eta konpentsazioen aldakuntzak kenduz Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako emaitza ateratzen da, eta 2.476,79 milioikoa izan da, 2015ean baino 51,21 milioi euro gehiago; beraz, termino erlatiboetan, % 2,11ko gehikuntza izan da.

se observó en ejercicios pasados.

En 2016 la liquidación del Impuesto (Régimen General más Régimen Simplificado) genera unos ingresos por valor de 3.140,04 millones (21,11 millones más que en 2015), unas devoluciones por importe de -713,24 millones de euros (7,36 millones más que en 2015) y una variación negativa del saldo de las compensaciones por importe de 50.002 euros.

El resultado de restar de los ingresos las devoluciones y las variaciones de las compensaciones da lugar al resultado atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia el cual ascendió a 2.476,79 millones, 51,21 millones de euros superior al obtenido en 2015, lo que en términos relativos supone un aumento del 2,11%.



2014-2016 aldian Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako guztizko emaitza % 1,35 gutxitu da, baina aldakuntza-tasak ez dira berdinak izan ekitaldi guztietan:

⇒ 2016an emaitzan % 2,11ko hazkuntza gertatu da hala sarreretan, % 0,68, nola itzulketetan, % 1,04 gertatu den gehikuntzaren ondorioz. Horri konpentsatu beharreko aldaketen saldo negatiboa batu behar zaio.

⇒ 2015ean emaitza % 3,39 gutxitu da, diru-sarreren narriaduragatik (% 1,68ko beherakada) eta itzulketen murrizketagatik (% 1,09), eta, horrez gainera, konpentsatu beharreko aldakuntzen saldo negatiboagatik.

⇒ 2014an emaitza %9,45 hazi da, diru-sarrerek izandako % 3,14 gorakadaren eraginez eta itzulketen % 2,07ko gorakadaren eraginez, eta, gainera, konpentsatu beharreko aldakuntzen saldo negatiboaren ondorioz.


A lo largo del periodo 2014-2016 el resultado total atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia ha disminuido un 1,35% pero las tasas de variación han cambiado de un ejercicio a otro:

⇒ En 2016 el resultado se incrementa en un 2,11%, por el efecto del aumento registrado tanto en los ingresos, 0,68%, como en las devoluciones, 1,04%, a lo que añadimos un saldo negativo de las variaciones a compensar

⇒ En 2015 el resultado se reduce en un 3,39%, que se explica por el deterioro de los ingresos con un descenso del 1,68% y una reducción de las devoluciones (1,09%) a lo que añadimos un saldo negativo de las variaciones a compensar.

⇒ En 2014 el resultado se incrementa en un 9,45%, por el efecto del aumento registrado tanto en los ingresos, 3,14%, como en las devoluciones, 2,07%, a lo que añadimos un saldo negativo de las variaciones a compensar.

V.4.6 BEZa aitortzaile moten arabera
IVA según tipo de declarante



Bizkaiko Lurralde Historikoko oinarriaren, kuoten eta emaitzaren azterketan aitortzaile-motari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu BEZaren guztizko zerga-oinarritik (baliokidetasun-errekarguaren araubidea kanpoan utzita), sortutako oinarriaren % 95,89 eta oinarriaren % 96,11 eta araubide orokorreko emaitzaren % 91,21 dagozkiela nortasun juridikodun sozietate edo entitateei; horiek 2016ko BEZaren aitortzaileen % 34,52 dira.

Euren garrantzi kuantitatiboagatik nabarmentzen dira sozietate anonimoak; izan ere, aitortzaileen % 3,71 baino ez izan arren (3.466 subjektu pasibo), zerga-oinarriaren % 57,87 eta sortutako kuotaren % 59,42 jartzen dute. Aldagai horiek guztiek 2016an apur bat gora egin dute, 2015ekoen aldean subjektu pasiboen kopurua murriztu den arren.

Aitortzaile-kopururik handiena, ordea, sozietateen barruan, erantzukizun mugatuko sozietateei dagokie. Aitortzaileen % 27,18 dira, eta sozietate aitortzaile guztien % 78,72; baina sortutako kuotaren eta oinarriaren gaineko portzentajeak % 31tik hurbil dabiltza.

Si el análisis de la base, las cuotas y el resultado del THB lo realizamos ateniéndonos al tipo de declarante nos encontramos que del total de la base imponible de IVA (sin incluir régimen de Recargo de equivalencia), el 95,89% de la base, el96, 11% de la cuota devengada así como el 91,21% del resultado del Régimen General corresponde a las Sociedades o Entidades con personalidad jurídica que representan el 34,52% de los declarantes de IVA 2016.

Por su importancia cuantitativa, destacan las Sociedades Anónimas ya que siendo sólo el 3,71% de los declarantes (3.466 sujetos pasivos), aportan el 57,87% de la base imponible, y el 59,42% de la cuota devengada, con ligeros aumentos en 2016 en todas estas variables a pesar de la disminución del número de sujetos pasivos con respecto a 2015.

Sin embargo, el mayor número de declarantes, dentro de las sociedades, corresponde a las Sociedades de Responsabilidad Limitada. Representan el 27,18% de los declarantes y 78,72% del total de sociedades declarantes, pero los porcentajes sobre la base y la

cuota devengada están cercanos al 31%.

Horrenbestez, oinarri horren % 2,66 eta sortutako kuotaren % 2,60 baino ez dagokie 54.695 pertsona fisikoen subjektu pasiboei (guztizkoaren % 58,56). Gainerako zenbatekoa 6.463 ondasun-erkidegori dagokie.

Por tanto, sólo el 2,66% de dicha base y el 2,60% de la cuota devengada, corresponden a 54.695 sujetos pasivos personas físicas (58,56% del total). El resto de los importes corresponden a 6.463 comunidades de bienes.

Araubide orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoari egotzitako emaitzaren banaketa aitortzaile-moten artean bat dator logikarekin: ehunekorik handiena sozietate anonimoei dagokie (% 66,78 eta 1.646,64 milioi euro) eta ondoren erantzukizun mugatuko sozietateak datoz (% 24,80 eta 611,6 milioi euro).

La distribución del Resultado atribuido al Territorio Histórico de Bizkaia, relativo sólo al Régimen General, en función del tipo de declarante, responde a criterios lógicos ya que el mayor porcentaje se obtiene en las Sociedades Anónimas con un 66,78%, 1.646,64 millones de euros, seguido por las Sociedades de Responsabilidad Limitada con el 24,80%, 611,6 millones de euros.

Aurreko ekitaldiaren aldean, apur bat jaitsi da sozietate anonimo aitortzaileen kopurua, eta, igo egin dira, bestalde, apur bat izan arren, horien aitortutako araubide orokorreko emaitzaren, sortutako kuotaren eta oinarriaren zenbatekoa. Era berean, aldagai horiek berak igo egin dira, araubide orokorraren emaitza salbu, erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan.

Con respecto al ejercicio anterior, disminuye levemente el número de Sociedades Anónimas declarantes, mientras que aumentan, también levemente, el importe de la base, cuota devengada y resultado del Régimen General declarados por las mismas. Asimismo, se incrementan estas mismas variables, salvo el resultado del Régimen General, en el caso de las Sociedades de Responsabilidad Limitada

Araubide erraztuaren emaitza, ordea, osorik egotzi zaie sozietate zibilei, ondasun-erkidegoei eta pertsona fisikoei, behar den bezala: % 1,25, % 3,44 eta % 95,31, hurrenez hurren.

Sin embargo y como es preceptivo, el resultado del Régimen Simplificado se imputa en su totalidad a las Sociedades Civiles, Comunidades de bienes y a las Personas Físicas en la proporción del 1,25%, 3,44% y 95,31%, respectivamente.

Sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen ehunekoa Bizkaiko Lurralde Historikoko guztizko emaitzan % 66,48 eta % 24,69 izan da, hurrenez hurren.

La participación de las Sociedades Anónimas y de Responsabilidad Limitada en el total resultado del THB alcanza porcentajes del 66,48% y 24,69%, respectivamente.

Ondasun-erkidegoen partea % 2,34 izan da, 57,85 milioi baino ez baitute jarri, eta pertsona fisikoei % 6,85 dagokie, 169,74 milioiko ekarpena egin baitute; hots, aurreko ekitaldian baino 9,14 milioi gehiago.

En el caso de las comunidades de bienes la participación ha sido del 2,34%, aportando tan sólo 57,85 millones y las personas físicas el 6,85% con una aportación de 169,74 millones, con un incremento de 9,14 millones.

Era berean, sozietate anonimoen ehunekoa ekitaldian egindako sarreretan % 58 izan da eta itzulketen guztirakoan % 38.

De la misma forma, la participación de las Sociedades Anónimas se mueve en un intervalo entre el 58% y 38% del total de ingresos efectuados en el ejercicio y del total de devoluciones, respectivamente.


Erantzukizun mugatuko sozietateen ehunekoa ekitaldiko sarreretan % 31 izan da eta itzulketetan % 42.

Estos porcentajes son entre el 31% y el 42% en el caso de las Sociedades de Responsabilidad Limitada.

Ondorioz, 2016an BEZean igo egin da sozietate anonimoen partaidetza guztizko diru-sarreretan eta jaitsi egin da horien partaidetza itzulketetan, erantzukizun mugatuko sozietateen gainekoen kalterako eta onerako, hurrenez hurren.

En IVA 2016, por tanto, aumenta la participación de las Sociedades Anónimas en el total ingresos y disminuye la participación de las mismas en las devoluciones, en perjuicio y en favor, respectivamente, de las relativas a las Sociedades de Responsabilidad Limitada.

V.4.7 BEZa jarduera-sektoreen arabera
IVA por sectores de actividad



	Nº de Contribuyentes	Base Imponible (Sin RE)	Cuota Devengada (Sin RE)	Resultado Reg. General
Nekaz. Abel. eta arrantza / Agr. y Pesca	0,34%	0,82%	0,89%	1,00%
Industria / Industria	7,91%	29,22%	29,98%	34,31%
Eraikuntza / Construcción	13,95%	4,86%	4,98%	5,68%
Zerbitzuak / Servicios	70,24%	59,23%	58,40%	49,88%
Sailkatugabekoak / Activ. No Clasificadas	7,56%	5,87%	5,75%	9,13%

Arestiko grafikoak BEZ 2016ko araubide orokorrari dagozkion zergapeko-kopuruaren banaketa, zerga-oinarria, sortutako kuota eta Bizkaiari egotzitako emaitza jasotzen ditu, BEZaren erroldako altan agertzen den jarduera nagusiaren epigrafearen arabera esleitutako jarduera-sektoreari jarraikiz.

Azken ekitaldietan ia ez da aldatu zergaren osagai nagusiek jarduera ekonomikoaren sektoreen arabera izan duen banaketa; 2016ko ekitaldian bakarrik egon dira gorabeherak sektore desberdinetan.

Horrela, zergadunei dagokienez:

- Ohi bezala, subjektu pasibo gehien dauden sektorea zerbitzuena da: guztien % 70,24. Sektore honetan aitortzaile gehien dituen jarduerak Merkataritza eta Merkataritzako beste zerbitzu batzuk dira.

- Industrian biltzen dira zergadun guztien % 7,91, hau da, 7.391 inguru; eta hor 14

El gráfico anterior recoge la distribución del número de contribuyentes, la base imponible, la cuota devengada y el resultado correspondiente a Bizkaia del Régimen General de IVA 2016 según el sector de actividad asignado en función del epígrafe de la actividad principal que figura de alta en el censo de IVA.

La distribución de los principales componentes del impuesto por sectores de la actividad económica permanece casi inalterable a lo largo de los últimos ejercicios con ligeras oscilaciones en 2016 en los distintos sectores.

Así, en cuanto a los contribuyentes:

- Se mantiene el Sector de Servicios como el que más sujetos pasivos congrega, con el 70,24% del total y dentro del mismo destacan por número de declarantes, el sector de Comercio y Otros servicios comerciales.

- La Industria representa el 7,91% del total de contribuyentes, unos 7.391, y dado que aquí

azpisektore daudenez, alorren arteko banaketa orekatuagoa da. Garrantzitsuena Elikadura da, sektorearen % 23,91 hartzen baitu, eta ondoren Eraikuntza Metalikoak, Artikulu Metalikoak eta Zura eta Altzariak.

se engloban 14 subsectores, la distribución entre las diferentes ramas está más repartida, siendo la más importante Alimentación con el 23,91% del sector, seguida de la rama de Construcciones Metálicas, Artículos Metálicos y Madera y Mueble.

- Eraikuntza guztizkoaren ia % 14 da eta zergapekoen kopuruak pixka bat egin du behera, aurreko urtearekin alderatuz gero. Guztizkoarekin alderatuta duen garrantzia espezifikoa antzera mantendu da.

- La Construcción representa el casi el 14% del total, con un ligero descenso en el número de contribuyentes respecto al año anterior y similar peso específico sobre el total.

2016ko BEZaren zerga-oinarriaren kasuan (baliokidetasun-errekargua kontuan hartu gabe), Zerbitzuak eta Industria dira sektorerik garrantzitsuenak. Honela:

En el caso de la base imponible IVA 2016 (excluida base por Recargo de equivalencia) también Servicios e Industria son los sectores de mayor importancia. Así:

- Zerbitzuen sektoreak zerga-oinarri osoaren erdia baino gehiago hartzen du, % 59,23, 2015ean baino ehuneko bost puntu gehiago, eta sektore horren barruan Merkataritzarena da garrantzitsuena, % 50,12ko partea duelako, 16,72 mila milioi, alegia, 2016ko BEZaren zerga-oinarri osoaren % 29,69. Garrantziari erreparatuta, horren ondoren dator Beste merkataritza-zerbitzu batzuen alorra: 14 mila milioi euroko zerga-oinarriarekin, sektorearen % 42 hartzen du, eta guztizkoaren % 24,88.

- El Sector Servicios representa más de la mitad de la base imponible total con el 59,23%, con un aumento superior a cinco puntos porcentuales respecto a 2015, siendo dentro de este sector la rama del Comercio la más importante con una participación del 50,12% del mismo, 16,72 mil millones lo que supone el 29,69% del total de base imponible del IVA 2016. La segunda más importante es la rama de Otros servicios comerciales con una base imponible de 14 mil millones de euros que representa casi el 42% del sector y el 24,88% del total.

- Industriak guztizkoaren % 29,22 hartzen du, eta 2,8 puntuko balio erlatiboa galdu du. Sektore horren barruan, energia eta uraren adarrak, 285 zergapeko baino ez badauzka ere, sektorearen zerga-oinarriaren % 47,55 biltzen du eta zerga-oinarri guztiaren % 13,89, azpisektore honetan sartzen direlako hidrokarburo operadoreak eta energia banatzeko industriak. Hala ere, azpisektore horrek botere erlatiboa galdu du bai sektorearen barruan (ia puntu eta erdi) baita BEZaren guztizko oinarrian ere (+1,7 puntu), 2015eko datuekin alderatuta. Industriako bigarrena elikaduraren adarra da; sektorearen oinarriaren ia % 12,26 dagokio, eta 2015ean baino ehuneko 0,26 puntu gehiago lortu du.

- La Industria supone el 29,22% del total, con pérdida de valor relativo de 2,8 puntos. Dentro de este sector la rama de Energía y Agua con solo 285 contribuyentes representa el 47,55% de la base imponible del sector y el 13,89% de la base imponible total porque en este subsector se engloban los operadores de hidrocarburos y las industrias distribuidoras de energía. Aun así, este subsector pierde poder relativo dentro del Sector (casi punto y medio) y gana sobre el Total Base de IVA (+1,7 puntos) con respecto a 2015. En segundo lugar, dentro de la Industria, está la rama de Alimentación con el 12,26% de la base del sector, y 0,26 puntos porcentuales más que en 2015.

- Eraikuntzaren sektorearen zerga-oinarria 2.734,46 milioi euro izan da, guztirakoaren % 4,86. Aurreko urteetako etengabeko beherakaden ondoren, 2016an ere 181,82 milioiko beherakada izan du BEZaren oinarriaren zenbatekoak, eta jaitsi egin da, era berean, sektoreak guztizko oinarrian duen pisu erlatiboa; zehazki, ehuneko 0,87 puntu.

- El sector de la Construcción con una base imponible de 2.734,46 millones de euros, supone el 4,86% del total de la misma. Siguiendo con las bajadas sucesivas de años anteriores, en 2016 también se produce una disminución en el importe de la base de IVA de 181,82 millones y también se produce un descenso porcentual del peso relativo del sector en el total, con 0,87puntos porcentuales menos.

Sortutako guztizko kuotak (baliokidetasun

La cuota devengada total (excluido Régimen de

errekarguaren araubidea sartu gabe) honako banaketa hau dauka sektoreen arabera:

- Aurreko ekitaldi guztietan bezala, Zerbitzuen sektoreak guztizkoaren erdia baino gehiago hartzen du, % 58,40 hain zuzen, eta sektore horren barruko jarduera-adarrik garrantzitsuenak Merkataritza (% 47,41) eta Merkataritzako beste zerbitzu batzuk (% 44,81) dira.

- Industriaren sektoreak sortutako kuota osoaren % 29,22 hartzen du, eta ehuneko 4 puntu inguruko beherakada izan du, Energiaren eta Uraren azpisektoreko enpresek pisu apur bat galdu dutelako. Hala ere, azken hori da sektorearen barruan pisu espezifikorik handiena duen adarra, sortutako kuotaren % 51,06 dagokio eta. Ondoren Oinarrizko Industria Metalikoak (% 8,30) eta Eraikuntza Metalikoak (% 7,41) datoz, garrantzi erlatiboaren arabera.

- Eraikuntzaren sektoreak sortutako kuota osoaren % 5 inguru biltzen du. Pisu erlatiboa galdu du, aurreko ekitaldietan guztizkoaren ehuneko 6-8 bitartean ibili baita, eta geldialdiaren zantzuak agertzen ditu.

Bizkaiari egotzitako 2016ko BEZaren araubide orokorraren emaitzaren banaketa jarduera-sektoreen artean honela banatzen da:

- Berriro ere zerbitzuen sektoreak egin du ekarpenik handiena, % 49,88, eta bere parte-hartze hori 2015eko ekitaldikoa baino nabarmen handiagoa izan da, ia 5 puntuko gehikuntza izan baitu. Sektore horren barruan, emaitzari begira jarduera-adarrik garrantzitsuenak berriz izan dira Merkataritza eta Merkataritzako beste Zerbitzu batzuk, sektorearen emaitzari, hurrenez hurren, % 45,37ko eta % 43,78ko ekarpena egin baitiote.

- Industriak % 34,31ko partea izan du, 2015eko ekitaldikoa baino apur bat txikiagoa, Energiaren eta Uraren azpisektoreko enpresek aitortutako zenbatekoak pixka bat txikiagoak izan direlako, arestian esan bezala. Hala eta guztiz ere, sektore horren barruan Energiaren eta Uraren adarra izan da jarduera-adarrik garrantzitsuena, eta alde handia atera die gainerakoei: berari dagokio sektoreko BEZaren emaitzaren % 90,33 (0,33 puntu gutxiago), eta 2016ko BEZ osoaren % 30,99 inguru, 2015ean baino 0,7 puntu gutxiago, baina 2015eko ekitaldi horretan beraren garrantzi erlatiboak 5 puntu galdu zituen 2014ko aldean. Azpimarratu behar da sektore horren

Recargo de Equivalencia) presenta la siguiente distribución por sectores.

- Como en todos los ejercicios anteriores, el sector de Servicios representa más de la mitad de la cuota total, con el 58,40% y dentro del mismo, las ramas de actividad más importantes son el Comercio (47,41%) y Otros servicios comerciales (44,81%).

- El sector de la Industria representa el 29,22% de la cuota devengada total, con un descenso cercano a 4 puntos porcentuales por la leve pérdida de peso de las empresas del sub sector de Energía y Agua, aunque dentro del sector sigue siendo la rama de mayor peso específico con el 51,06% de la cuota devengada. Le siguen en importancia relativa Metálicas Básicas (8,30%) y Construcciones Metálicas (7,41%).

- El sector de la Construcción representa alrededor del 5% de la cuota devengada total. Por debajo de su peso relativo en ejercicios anteriores situado entre el 6 y 8 por ciento del total, y mostrando signos de estancamiento.

La distribución del Resultado del Régimen General de IVA 2016 atribuido a Bizkaia entre los sectores de actividad es la siguiente:

- El sector de Servicios sigue siendo el de mayor aportación con un 49,88%, siendo su participación porcentual bastante superior respecto al ejercicio 2015, con un aumento de casi 5 puntos. Dentro de este sector las ramas de actividad más importantes a efectos del Resultado siguen siendo el Otros Servicios Comerciales y Comercio con una aportación al resultado del sector del 45,37% y 43,78%, respectivamente.

- La Industria representa el 34,31%, ligeramente inferior al del ejercicio 2015 por la leve pérdida de importancia, tal como se ha dicho antes, de los importes declarados por las empresas del sub sector de Energía y Agua. Aun así, dentro de este sector la ramas de actividad más importante y con mucha diferencia respecto a las demás ramas, es Energía y Agua con un significativo 90,33% del Resultado del IVA del sector (0,33 puntos más) y alrededor del 30,99% del total IVA 2016, con un ligero descenso de 0,7 puntos respecto del 2015 cuando en ese ejercicio se había producido un descenso de 5 puntos en su importancia relativa respecto al 2014. Destacar que dentro de este sector hay 4 subsectores, los mismos que en el ejercicio

barruan 4 azpisektore direla, aurreko ekitaldian zeuden berberak, emaitza negatiboa izan dutenak (guztira, -85 milioi). Honako hauek dira: industria ez metalikoa; makinak; garraio materiala; eta kautxoa eta plastikoa.

- Eraikuntzak guztirako emaitzaren % 5,68 biltzen du, hau da, aurreko ekitaldian baino ia 2 puntu gutxiago. Guztira, 139,94 milioi dira.

precedente, que presentan Resultado negativo por un total de -85 millones. Son los siguientes: Industria no metálica, Maquinaria, Material de Transporte y Caucho y Plástico.

- La Construcción representa el 5,68% del total del resultado, produciéndose una disminución de casi 2 puntos porcentuales respecto al ejercicio anterior y un importe total de 139,94 millones.


BEZaren araubide orokorreko emaitzaren bilakaera 2014-2016 aldian jarduera-sektoreen arabera banatuta aztertuz gero, agerian geratzen da pisurik handiena zerbitzuen sektoreak duela, eta industriaren eta eraikuntzaren sektoreak, ordea, garrantzia galdu duela, eta nekazaritzak eta arrantzak eragin txikia daukatela Zergaren emaitzan.

2016ko BEZaren emaitza kalkulatzeko, araubide orokorreko emaitza eta araubide erraztuko emaitza batu dira. Araubide orokorreko emaitza 2016ko BEZaren guztizko emaitzaren % 99,55 izan denez, batari zein besteari egiten zaizkien analisiak bat etorriko dira.

El análisis de la evolución del Resultado del Régimen General del IVA distribuido por sectores de actividad a lo largo del periodo 2014-2016 pone de manifiesto el mayor peso del sector de Servicios y la pérdida de importancia de la Industria y de la Construcción, así como la escasa participación del sector de la Agricultura y Pesca en este resultado.

El Resultado de IVA 2016 se obtiene de la agregación del resultado del Régimen General más el resultado del Régimen Simplificado. Dado que el Resultado del Régimen General constituye el 99,55% del resultado IVA 2016 total, los análisis que se hagan de uno u otro coincidirán

Emaitzen bilakaera sektoreka
Evolución del resultado del Rég. Gral. por sectores



	Nekaz.abel.eta arrantza Agr. y Pesca	Industria Industria	Eraikuntza Construcción	Zerbitzuak Servicios	Sailkatu gabek Sin clasificacón
2016	24.602	845.892	139.943	1.229.995	225.252
2015	23.133	855.773	178.480	1.087.811	267.127
2014	23.540	997.252	178.245	1.020.470	278.798

Hain zuzen ere, goiko grafikoan araubide orokorreko emaitzaren bilakaera ageri da sektoreka:

Así, en el gráfico anterior se puede apreciar la evolución del Resultado del Régimen General por Sectores:

